



Haimar Zubeldia txirindulari ohiairi elkarriketa

Lezo Urreiztieta: akzio-gizon baten bizipenak



Ni ausartu banaz zu be ze arraixogatik ez leloa erabilita, Aretxabaletan egin duten Gabonetako iragarkiko irudiak, Puigdemont protagonista dela. AZ VISUAL MEDIA

30 lanetik gora Durangoko Azokan

Debagoieneko eleberriak, filmak, DVDak, ipuinak, musika produktuak eta ikus-entzunezkoak erosgai izango dira eguenetik domekara / 30

Umeen eta gurasoen estalpe izan nahi duen Txikitxokoa erabilgarri dago Arrasaten / 15

	MANEX ARRIOLABENGOA / 17
	AGURNE JULDAIN / 12
	MAIALEN SANTOS / 26
	ITSASO ERRETOLATZA / 14
	AINZANE OIARBIDE / 40

Gama altuko
2 mó progresibo
erreflexuen aurkako
lenteekin
229€

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehenaz zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com



Potx eta Lotx-en emanaldia, Arrasaten. MAIALEN REGUEIRO



Olatz Salvadorren kontzertua, Arrasaten. JOKIN BEREZIARTUA



Arrasateko Udal Euskaltegiko ikasleak. UDAL EUSKALTEGIA



Euskaraldiaren Herri Eguneko bazkarian, Eskoriatzan. ESKORIATZAKO BATZORDEA

Euskararen alde jai giro betean

Musikaren, antzezlanen, 'flashmob'-en, lasterketen eta konpromiso-mezuen bitartez ospatu zituzten Euskaraldia eta Euskararen Nazioarteko Eguna debagoiendarrek, herri guztietan izan baitziren ekitaldiak asteburuan eta astelehenean

Amaia Zabala DEBAGOIENA

Bergaran, emozio handiz agurtu zituzten hamaika egunez protagonista izan diren *Ahobizi* eta *Belarriprest* lagunak, Seminarixoa egindako igoera ekitaldian, eta, ondoren, Euskaraldiak iraun duen bitartean egin dituzten kale neurketen berri eman zuten. Emaizten arabera, hamaika egun hauetan, euskararen erabilerak kalean nabarmen egin du gora adin tarte guztietan.

Aretxabaletan, berriz, Euskaraldiari atxikimendua emateko argazkia, dantza emanaldia eta *flashmob*-a izan zituzten. Baina ez ziren bakarrik izan, Antzuolan ere herri ikastetxeko ikasleek *flashmob*-a egin baitzuten. Zapatuan, berriz, *Izan dute eraginik genero rolek hitanoaren erabileran Antzuolan?* hitzaldia egin zuen Onintza Legorburuk.

Arrasaten ere egun handia izan zuten astelehenekoa; hain zuzen ere, *UrflaXekin euskaraz...1,2,3 GoXaketaaaa* antzez-lana, *flashmob*-a eta Potx eta Lotxen emanaldia izan zituzten.

Elgetarrek ere antzezlan beraz disfrutatzeko aukera izan zuten astelehenean, baina Euskaraldiaren ospakizun handia zapatuan egin zuten; izan ere, Elgetako kantuzaleek, Eibarkoen laguntzarekin, hainbat euskal kantu klasiko abestu zituzten. Oñatin haratago joan ziren eta Euskaraldiak iraun duen hamaika egunetan hartutako ohi-

turak finkatzeko konpromisoa hartu zuten, Euskararen Kriseilua ekimenarekin. Bestalde, *Ez dok hiru* antzez-lana izan zuten.

Eskoriatzan, buruhandiak, txokolate-jana eta Euskaraldiko bizipenekin bideo emanaldia izan zituzten astelehenean. Zapatuan, berriz, Euskaraldiaren Herri Eguna ospatu zuten.

Aramaion aurreratu egin zuten Euskararen Eguna: abenduaren 2an ospatu zuten, herri lasterketa eginda; 120 lagunek hartu zuten parte. Astelehenean ere izan ziren etxeko txikienentzako ekitaldiak.

Herri batzordeei esker

Arrate Illaro Euskaraldiko koordinatzaileak Goienari adierazi dio "imajina zezaketena baino" masiboagoa izan dela Euskaraldia eta hori herritarrak aktibatzeari esker lortu dela.



Euskararen Kriseilua ekimenaren aurkezpena. ARANTZAZU EZKIBEL



Herri Egunean kalejiran, Eskoriatzan. MAIALEN REGUEIRO

**EUSKARALDIAK
220.000 PARTAIDE
IZAN DITU; ETA
HORIEK 13.458,
DEBAGOIENETAKOAK**



Mondragon Assembly-ko kideak Euskaraldiari atxikimendua ematen. MONDRAGON ASSEMBLY



Elgeta Kantuan taldeko abeslariak euskal kantu klasikoak abestu zituzten zapatuan. IMANOL SORIANO



Euskararen Eguneko herri lasterketan Aramaion. IMANOL SORIANO



Herri lasterketan. IMANOL SORIANO



Euskaraldiari atxikimendua eman dioten elkarteak, Aretxabaletan. MIRARI ALTUBE



Ahobizi-ren eta Belarriprest-en igoera. MAIALEN REGUEIRO



Larunbateko hitzaldia, Antzuolan. JABI ETXANIZ



Antzuolako flashmob-a. ANE GARMENDIA



Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak aditu ikastaroko edizio honetako lagunak Goienan ere egon ziren. ARTXIBOA

Hizkuntza gutxituen berreskuratzea lantzen

Garabidek antolatutako 'Hizkuntza biziberritzeko estrategiak' aditu ikastaroaren laugarren aldian, munduko hamabi hizkuntza komunitate ordezkatzeko dituzten hamazortzi lagun abenduaren erdira arte euskal esperientzia lehen eskutik bizitzen ari dira

Jokin Etxebarría DEBAGOIENA

Euskalgintzaren eta lankidetzaren arteko uztarketa prozesu batetik sortu zen Garabide, orain dela hamabost bat urte, galdera batekin oinarrian: *Zer dugu munduarekin elkarbanatzeko?* Hizkuntza-lankidetzaren bidea jorratzeko apustua egin zuen bere momentuan, betiere, esperientzia elkartrukatze batean oinarrituta eta euskal komunitatea ere hizkuntza berreskuratzeko lanean ari den beste komunitate bat dela aitortuta. Azken finean, beste hizkuntza komunitate batzuekin zubiak eraikitzea du helburu.

Horren harira sortu zen *Hizkuntza biziberritzeko estrategiak* aditu ikastaroa eta dagoeneko laugarren aldian da aurtengoa. Aditu ikastaroa inflexio-puntu garrantzitsu bat izan da Garabideren ibilbidean; izan ere, ezagutza teorikoak eta euskaren berreskurapen prozesua bultzatzeko arlo desberdinetan sortu diren proiektu eta espe-

rientzia praktikoen *in situ* eza-gutza konbinatzen dituen unibertsitate mailako titulu homologatua eskaini ahal du

12 komunitetako 18 lagun

Laugarren aldi honetan, parte hartzen ari direnak irailaren 26an etorri ziren eta abenduaren 14ra arte egongo dira Debagoienan. Egun hauetan zehar, munduko hamabi hizkuntza komunitetako 18 lagunak azken 50 urteotako euskararen biziberritzearen gakoak ezagutzen ari dira. Horretarako, eskualdeko eta Euskal Herriko txoko ezberdinetako errealitateak ezagutzen ibili dira; betiere, euskaraz jarduten duten proiektuak: kooperatibak, eskolak, komunikabi-

EGUNEROKOTASUNEAN EUSKARAZ NOLA JARDUN DAITEKEEN EZAGUTU AHAL IZAN DUTE LEHEN ESKUTIK

deak... Eskoletan alde teorikoa lantzeaz gain, lehen eskutik ezagutu ahal izan dute egunerokotasunean euskaraz nola jardun daitekeen. Horren guztiorren helburua da euren herrialdeetara egoera hauek eraman eta hango egoerara egokitzuz bertan praktikan jartzea. Izan ere, adituen ikastaroa ez da abenduaren 14an amaitzen. Orain, dena praktikan jartzea tokatzen da.

Guatemalako kitxeak eta kektxiak, Mexikoko maiak eta nauathak, Kolonbiako nasak, Ekuadorko kitxuak, Bolibiako guaraniak, Brasilgo kashinawak, Wallmapuko maputxeak, Kurdistango kurduak eta Afrika iparraldeko amazighak. Komunitate horiek guztiak egon dira ordezkatzeko eta guztiak txundituta gelditu dira euskarak gaur egun duen indarrak, euskaldunok euren hizkuntzan jarduteko duten konbikzioak eta euskara bizirik mantentzearen hezkuntza mailan egiten den lanaz.

Hiru lagun eta hiru esperientzia



JULEN LARRAÑAGA GARABIDE

"Hizkuntza minorizatu guztiak batera goaz, itsasontzi berean itsas zakar honetan, eta denon beharra daukagu, elkar ezagutuz indartsuago izango garela bidean hobeto joan gaitezen".



CARMELINA LIX RUK'U'X QATINAMIT

"Euskal Herrian edalontzia erdi beteta ikusten da beti. Sekula ez zaudete konforme, baina horrek egiten zaituzte zaretan modukoak. Beti zaudete hurrengo pausoa pentsatzen, beti lanean".



ANA LLAUPI KOZ KOZ PARLAMENTARIA

"Txilen, umeen hezkuntza oso arautua dago; hemen, berriaz, askeagoa da eta umeak pozik eta aske sentitzen dira euren espazioetan. Horrela, ikasgaia naturaltasunez eta goxotasunez hartzen dute, ez inposatuta".



Arrikutzeko lehoiaren erreplika ARTXIBOA

Arrikutzi buruzko liburu monografikoa

Abenduaren 11n, Oñatiko Santa Ana aretoan, Aranzadi Zientzia Elkarteak *Arrikutzeko lehoia* izenarekin argitaratu duen liburua aurkeztuko dute, arratsaldeko zazpitan. Juan Luis Arsuaga Atapuercako zuzendaria izango da hizlaria, eta Ruiz de Arkaute espeleologoari eta Iñaki Zubeldia eta Jesus Manuel Maroto lehoiaren aurkitzaileei omenaldia egingo diete.

'Big data'-ri buruzko mahai-ingurua abenduaren 11n

Mondragon Unibertsitateak eta Agirre Lehendakaria Centerrek, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, *big data*-ri buruzko solasaldia antolatu dute abenduaren 11rako, 18:30ean, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan.

Izan ere, mugikor eta ordenagailuetatik milioika datu ateratzen dira konpainia teknologikotartantz; horiek ahalmen handia dute eta oso arriskutsu bihurtu daitezke neurri gabe erabiltzen badira. Baina datu bolumen hori erabil daiteke, baita ere, gizartea eraldatzeko. Eta, nazioarte mailan, ekimen berritzaileak abian jartzen ari dira, *big data*-k ematen duen informazioa aprobetxatu eta pertsonen bizimodua hobetzeko. Horri buruz hitz egingo dute Mathew Claudelek -Massachusetts Institute Of Technologyko Berrikuntza Zibikoaren arduraduna-, Enaitz Ezpeletak -MUKO irakaslea- eta Carlos Garciak -MUKO Goi Eskola Politeknikoko zuzendaria-.



Gatz Bidien dagoen seinaleztapena, Gatz Fabrikako identifikatzailearekin. AITOR AGIRIANO

Bailarara batzeko bidea, pauso handiak ematen

Leintz Gatzaga Eskoriatzarekin eta, horrekin batera, bailararekin lotzeko, Gatz Bidie proiektuarekin buru-belarri ari dira hainbat herritar. Hori horrela, bide horretako 4.300 metroko zatia egokitu beharraren garrantzia azpimarratu dute

Imanol Beloki DEBAGOIENA

Leintz Gatzaga bizirik mantendu eta Debagoienara gerturatzea izan da Gatz Bidie ekimenaren hasierako helburuetako bat; mugikortasunaren bitartez, herria bailara lotzea, hain zuzen. Edozelan ere, "lehenengo hausnarketaren ondorioz, kirola, ekologia, mugikortasuna, jasangarritasuna, turismoa eta, nola ez,

baserri mundua edo lehen sektoreko bizitza herri handiagotara hurbiltzearen helburua ere betetzen du aurkezten dugun proiektu honek", adierazi du Lore Diaz de Gereñuk, Gatz Bidie proiektuko kideetako batek. "Gure arbasoek eguneroko bizitzan erabili izan duten bide bat errekuatu eta egokituaz, gaur egun, Gatzaga eta Eskoriatza

lotuko dituen bidea berreskuratzeara da amets gisa hasi eta proiektu bilakatu den betebeharra: herri ekimen gisa hasi den ilusio honen izena Gatz Bidie da eta *Leintz lotzen* da leloa".

Mugikortasun bizkarrezurra

Gatzaga da bailararen mugikortasunaren bizkarrezur den bidegorritik kanpo dagoen herri ba-

karra. Errekak eta errepedeak baino ez ditu lotzen bost kilometro exkaxetara dauden Gatzaga eta Eskoriatza. Autoa ezinbestekoa da Gatzagan hazi eta bizitzeko. Egoera horrek dakartzan arazo eta mugei aurre egiteko, herriko taldetxo bat hausnarketa-lan baten hasi zen eta berehala ikusi zuen badagoela, lehenago gurdiak mugitzeko eta baserriarrek oinez ibiltzeko erabiltzen zuten bide bat egokituta, oinez zein bizikletan bi herri hauek eta era horretan bailara modu jasangarrian lotzeko aukera -azken urteotan erabili ez den arren-.

Duela hiru urte, Eskolore trenbide PR-100 bezala markatu zen bidea, eta erabilgarri izateko egokitzapenak beharrezkoak direla adierazi dute ekimeneko kideek. "4.300 metro besterik ez da bailaratik at uzten gaituen zatia. Zati hori egokitu beharrean gaude, gazte, ume, heldu eta nagusiek oinez, bizikletaz zein korrika Gatzaga bailararekin lotzen duen zatia egiteko aukera izan dezaten. Egunerokotasunean gaur egun bailarako bizkarrezurra den ibilbide horrekin konektatua egoteko", adierazi du Diaz de Gereñuk.

Bidearen erabilpenak, gora

Bideak duen egoeratik, eroritako zubien pasabideak ekiditeko, tokatzen ez den tokietatik joan beharra dago, asun eta narrez betetako pasabideak daude... eta, gaur egun, jende gutxi erabiltzen du. "Dena den, bidea ezagutzea ematen hasi garenetik, bailarako ume taldeak, bidea ezagutu nahi dutenak, eta abar pasatzen hasi dira. Planteatzen denaren balorazioa egiteko orduan, denok datoz bat egingarri den zerbait dela, eta, are gehiago, egin beharreko zerbait dela".

Egindako prozesua

Herri ekimen gisa hasi zen hausnarketa, 2017ko azaroan. Hiru emakumek hasi zuten, ilusioz, bidearen lanketa -Lore Diaz de Gereñu, Rosa Lasagabaster eta Dorleta Elkorobarrutia-, eta honako hauek egin dituzte ordutik: lur-jabeekin egon beraien onarpena eta iradokizunak jasotzeko, egin nahi denaren ideia herritarrei zabaltzeko, proiektu bilakatu, ezagutzea emateko bideo bat egin, eragileen artean ezagutzera eman, Puntaik Punta ekimenarako tramua egin, eta bailarako ikastetxeetara proiektua zabaltzeko, besteak beste.

Orain, auzolanean hainbat lan egin badituzte ere, epe motzerako lan batzuk aurreikusten dituzte, eta, horiek aurrera eramateko, Gatzagako eta Eskoriatzako udalera jo dute laguntza eske.

Etorkizunari begira

Gatzagan bizi eta lanean dabiltzan %99k herritik kanpo lan egiten dute eta 6 urtetik gorako umeentzat ez dago herrian ikasteko eta, are gutxiago, eskolaz kanpoko burutze aukerarik. Bide honek autonomia emango liekeela adierazi du Diaz de Gereñuk: "Autoek eragiten duen menpekotasunak gure adin txikikoak konfiantzaren pedagogia horretan hezteko aukera gutxi ematen du gaur egun. Horregatik guztiatik, argi daukagu ume, gazte, familia, heldu zein behar bereziak dituztenek erabiliko duten bidea izango dela".

ESKORIATZAKO ETA GATZAGAKO UDALEN LAGUNTZA EZINBESTEKOA DA BIDEA KONPONTZEKO

"Parte-hartze txikiak eragina izan du hauteskundeetan"

Rafael Gomez Arrasateko PSE-EEko zinegotzi ohiaren ustez, sozialisten emaitza txarrak "aurreikusi" zitezkeen

I.B DEBAGOIENA

Alderdi Sozialistak hamalau eserleku galdu ditu Andaluziako hauteskundeetan eta eskuineko alderdiek gehiago osoa lortu dute. Gainera, parte-hartze txikia izan da, %58,65koa, eta emaitzen arra-

zoia horregatik izan dela adierazi du Rafael Gomezek, Arrasateko Al Andalus elkartearen presidentea ohiak eta zinegotzi sozialista ohiak: "Inkestek kontrako esan arren, aurreikusten nuen emaitza izan da. Herritarrek uste

zuten Susana Diazek gehiago zabalarekin irabaziko zuela, eta askok botoa emateari utzi diote, beti berdinekin irabaziko zutela pentsatuta... Zenbait faktorek eragin dute, azken finean, eta emaitza kezkagarria da. Andaluzak diru laguntzez bizi izaten ohiu dira, eta orain, aldaketa garaia izango da. Agian, ez da txarra izango, baina maila ertainbaxukoei eragingo diote emaitza hauek. Vox-ek lortu dituen eserlekuak harritu egin naute, eta, seguruenik, beraiek ere bai".



Rafael Gomez, Arrasateko Al Andalus elkartearen presidentea ohiak. GOIENA

Maidar Arregi ARRASATE

Internetek eskatzen duen etengabeko berrikuntzari estuki lotuta egon da beti Goiena. Hala, teknologia berrien iraultzaren uholdearekin bat eginik, 2003ko azaroan *Goiena.net* webgunea jaio zen. Lehen urratsak ziren, eta gertuko eta euskarazko informazioa zen webgunearen ardatz nagusia.

"Goienaren balioetako batean esaten dugu puntaren puntan egon behar dugula. Gure ikuskerara helburuetan erreferente izatea eskatzen diogu geure buruari, baina ez hori irudiz ona delako, baizik eta puntan egonda eraginkorrakoak garelako. Argi ikusi genuen Internet izango zela multimedien laugarren hanka, mahaiari egonkortasuna emango zion hanka hori. Eta asmatu egin genuen. Gaur-gaurkoz, hanka oso inportantea da Goienarendako", azpimarratu du Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusi Iban Arantzabalek.



Orain dela hamabost urte, *Goiena.net*-en aurkezpenean; tartean, Miren Azkarate, orduko Kultura eta Euskara sailburua. GOIENA

Euskara eta euskal komunitatea

Arantzabalek adierazi du orain dela 15 urte argi zutela bai Goienak eta baita euskarak ere sarearen aldeko apustua egin behar zutela. Euskarari eta euskal komunitateari asko eman diolako sareak: "Bi eka-rrri aipatuko nituzke: bata, euskara gertuko edukiekin zortzigarren probintzian ere egotea; bestea, euskal kulturako komunitatearekin bat-bateko harremana. Internetek ekarritako iraultzetako bat da komunikazioan igorle-hartzaile zena hartzaile-igorle noranzkoan ere gertatzea. Hori salto handia da, eta komunitatearekin informazioa landu nahi dugunondako ezinbesteko erre-minta".

Albistegi jarraituaren ideia teknologikoa Goienak CodeSyntax Eibarko enpresarekin batera garatu zuen. "Sustaturen

'Goiena.eus': berrikuntzari lotuta, hasieratik

2003ko azaroan, jaio zen 'Goiena.net' webgunea. 2014an, berriz, '.eus'-era saltoa ematen aitzindaria izan zen Goiena. Internet, 15 urtetan abiadura bizian eta etengabe aldatu da. Puntan egoten jarraitzeko lanean dihardu 'Goiena.eus'-ek

sorreran egon ginen, bai. Nire jarduna Goienan *Sustatu.com* webguneari –orain *.eus*– lotuta hasi zen. Orduko hartan, telematika saila deitzen genion laugarren hanka horri. CodeSyntax enpresan ere hiru lagun ziren orduan eta albistegi jarraituaren ideia teknologikoa erakutsi ziguten. Segituan ikusi genuen zerua zabaltzen zela, mundu berri bat zetorkigula eta bai Goienak eta bai euskarak apustu egin behar zuela hor egoteko. Toki kazetaritzaren konstante bat izan da trenak azkar harrapatzea. Horren adibide dira *Arrasate Press*, Arrasate Telebista eta blog komunitatea bera. Apalago dago blogintza gaur egun, baina modu oso librean jarduteko gune aproposa da, eta 140 karaktereren diktaturatik harantzago jarduteko tresna egokia".





Rikardo Arregi saria jasotzen telematika saileko kideak. GOIENA

Rikardo Arregi Saria 2011n

2011n, Rikardo Arregi Kazetaritza saria jaso zuen Goienak. Sariak, hain zuzen ere, Goienak Internetera egindako jauziari aitortza egin zion; tokiko eta euskarazko kazetaritzak teknologia berrien aldeko apustua egin izanari, alegia.

Diseinu berritzailea

Irigarritasuna eta erabilgarritasuna, bi irizpideekin egindako gunea izan zen hasierako *Goiena.net*. Goio Arana (Goiena) eta Maite Rementeria (CodeSyntax) diseinatzaileek jardun zuten buru-belarri. "Duela hamabost urteko Internet eta egungoak ez dauka zerikusirik. Oso hedabide gutxi zegoen orduan sarean, eta zeudenak papereko produktuen isla soilak ziren, neurri batean. Albistegi eguneratuak –blog estiloan– hasi ziren han-hemenka sortzen, eta giro hartan sortu zen *Goiena.net* ere", azaldu du Rementeriak.

Hamabost urte hauetan, plataformak aldaketa handiak izan ditu. 2004an, *Goiena.net*-ek Portugalgo eta Espainiako diseinu onenaren saria jaso zuen. Baina, hasierako urratsen ondoren, 2010a ezkerro, erabateko berrikuntza izan zuen *Goiena.net*-ek. Multimedia izaera berezkoan sakontzeko urrats garrantzitsuak egin ziren. Besteak beste, Goiena telebistan landutako eguneko albisteen laburpena eta bideoak ikus zitezkeen. Berrikuntzen artean, zorion agurren eta Sailkatuen atalak zeuden, esaterako. Edonork bidaltzeko bidea ireki zen; partaidetza zabal-tzen hasi zen.

"Diseinua ere ikaragarri aldatu da. Ordukoari begirada bat ematea aski da horretaz ohar-

tzeko. Orduan ez zen, adibidez, mugikorrik erabiltzen nabigatzeko, eta egun, bisiten gehiengoa horietatik dator. Diseinua aldatzen joan da urteetan zehar, moldatzen etengabe. Aldaketa handiak baino gehiago, aldaketa etengabea izan du".

'Net'-etik 'eus'-era

Goiena.net zena *Goiena.eus* da 2014a ezkerro; guztiz eraberritua eta erronka gehiagori heltzeko gertu. "*Eus*-erako saltoa ematean aitzindariak izan ginen, bai. Gure jarduna lokala izan arren, inoiz ere ez dugu ahazten Euskal Herriko erreferentzia, eta euskararen eta euskal komunitatearen parte sentiarazten gaitu. Identitate arrazoiengatik *.eus*-ena oso argi ikusi genuen, gainontzeko hizkuntzen leku berean kokatzen gaituelako gu guztiok batuz. Gure lanak badu loturarik euskararen normalizazioarekin, eta horretan ere laguntzen du *.eus* ekimenak. Zelanbait, nazioarteko aitortza ere ematen digu *.eus*-ek", dio Iban Arantzabalek.

Euskarazko atariak

6.000 BISITARI DITU 'GOIENA.EUS'-EK EGUNERO; URTEAN, 6.500.000 ORRI IKUSTEN DIRA

Goiena.net-en sorrerarekin etorri ziren hainbat euskarazko web-gune. Guztiek zuten euskal komunitatea oinarri, baina bakoi-tzak bere esparrua betetzen zuen –aisialdia, tokiko merkataritza, informazioa...–: *Merkatua.com*, esaterako. Guztiz errotu ez bazen ere, bere fruituak eman dituen egun: *Merkatari* aplikazioa da horren isla. "Gure nahia izan da tokikoa eta euskara lehen lerroan egotea, eta porrot egin dugun proiektuetan inbertitzeak ere lagundu du horretan. Ezin da beti asmatu, eta porrot egiteko beharra ere errebindikatu nahi dut. Larri ibiltzen gara euskal kazetaritzan diruz-eta, baina, hala ere, Goienan, inbertitu egin dugu: *Aurreztu*, *Zuzeu* –gazteenendako plataforma–, *Merkatua.net* deitzen zen Internet bidezko salmenta lokaleko plataforma, musika lokalaren-dako blogak zituen *Danbaka.com* agerkaria... Batzuek beste batzuek baino gehiago funtzionatu zuten eta horiek denak izan dira oinarri Goienari egin-dako errekonozimenduak jasotzeko", dio Arantzabalek.

Etengabeko eboluzioa

Datuei erreparaturaz, goranzko eboluzioa du *Goiena.eus*-ek. "Eten barik doa gora eta ez dugu goia jo oraindik. Eta horretan anai-arreba asko ditugu hedabide lokalak batzen gaituen Tokikom platforman. Tokiko hedabideok, batuta, publizitatea modu eraginkorrean egin dezakegu, eta eskaintza bateratua dugu Euskal Herri osora heltzeko. 250.000 irakurletara heltzen gara eta oso fidela den irakurlea da tokikoona. Sinesgarriak gara gertuko komunikabideok eta horrek publizitatea eraginkorra izaten ere laguntzen du", gaineratu du".

Goiena.eus-ek, egunero-egunero, 5.000-6.000 bisitari inguru ditu. Albiste esanguratsuak dauden egunetan, 8.000 eta 9.000 bisitariren buelta dago.

"6.500.000 orri ikusten dira urtean. Horri, baina, Twitter, Facebook eta Instagrameko datuak gehitu behar zaizkio; izugarriak dira datuak. Gure esparru geografikotik kanpora ere kontsumitzen da Goiena, eta hiriburuetatik %10eko trafikoa sartzen da, esaterako. Ez dugu goia jo eta hori da gure egitekoa, ahalik eta eraginkorrenak izatea", adierazi du Arantzabalek.

"Askatasun esparru bat izan da bloga niretzat"

JOXE ARANZABAL BLOGARIA

Euskal blogintzan aitzindarietakoa da *Faroa* bloga (*goiena.eus/blogak/faroa*). Orain dela 15 urte idatzi zuen lehen posta Joxe Aranzabal blogari arrasatearrak.

Zergatik erabaki zenuen blogari izatea?

Bizpahiru urte *Sustatu*-n eginda, erabaki nuen neure ahotsa izatea, eta orduan sortu nuen *Faroa*. Bertan nahi dudana idatz dezaket, eta nahi dudanean, inori ezer galdetu behar barik, eta muga fisiko barik, blog batean artikulua nahi adina luze izan daitezke eta. Niretzat, bloga izan da askatasun esparru bat, bai *Sustatu*-n eta baita *Faroa*-n ere, eta askotan balio izan dit nire iritziak besteenekin kontrastatzeko. Alde horretatik, eskola ere izan da bloga, bertan ikasi dugu-eta zelan eztabaidatu modu zibilizatuan.

Faroa-k duen oihartzuna espero zenuen? Sekulako feedbacka lortu zuen blogak.

Oihartzun hori sortu zenean izan zen; orain, askoz ere gutxiago. Sare sozialak sortu zirenetik, Twitter, batez ere, blogen inguruan

sortzen diren eztabaidak eta iritzi-trukeak Twitterren gertatzen dira. Eta, gerora begira, ez dakit blogek berreskuratuko ote duten bertan eztabaidatzeko ahalmena. Eduki onak ateraz gero, seguruenik, bai; bestela, nekez.

Gaur egungo sare sozialen aurrekariak izan dira blogak?

Neurri batean, bai. Blogean denbora eta patxada hartzen duzu pentsamenduak

garatzeko. Sare sozialetan,

berriz, hori guztia di-da egiten da. Hala ere, denborak erakutsi digu sare sozialek badutela alde ilun bat, non manipulazioa eta zarata puri-purian dauden. Gainera, multinazional handiak erabiltzen ari dira sare sozialak gure datuak saldu eta gure iritziak manipulatzeko, Facebookek, adibidez, behin eta berririo erakutsi duen moduan. Panorama horretan, esan liteke blogak izan daitezkeela elementu egokiagoak itsaso nahasi horietan nabigatzeko.

Euskarazko blog komunitateak zer eman dio euskalgintzari?

Eman dio beste esparru bat, orduan sortu zena, blogena, eta euskal komunitateak nahiko bizkor bete zuena. Lehenbizikoa talde-bloga izan zen, *Sustatu*, eta hor, askok ikasi genuen zer ziren blogak, eta bertan zelan idatzi. Pare bat urte geroago sortu ziren blog pertsonalak, eta hor, esparrua izugarri zabaldu zen.

Desagertu egingo dira?

Egia esan, ez dakit zer gertatuko den, baina hortik zehar blog interesgarri askoak daude. Nik segitzen dut idazten; egia da, seguruenik, gura baino gutxiago idazten dudala, baina, zerbait esateko premia dudanean, ordenagailuaren aurrean jarri, eta idatzi egiten dut, gero *Faroa*-n ateratzeko. Eta horrela segituko dut.

Hekuntzara eramanez duzue blogintza; zein onura izan du Mondragon Unibertsitateko ikasleengan?

Ikasleek ikasten dute euren burua azaltzen –eta saltzen–, pentsamenduak antolatzen, eztabaidatzen... hori guztia, elementu multimediale erabilita: testua, argazkiak, bideoak, soinua. Euren ahotsaren jabe egiten dira, eta, konturatu barik ia, argitaratzaile bihurtzen dira.



JOXE ARANZABAL

Indarrak batuz, aurrera begira

Mugikorreari begira egin dira 'Goiena.eus'-en azkenengo aldaketa nabarmenenak. Urri amaieran egindako itxuraldaketa da adibide garbiena; egituraketa eskuko telefonoari begira diseinatu dute, eta hortik ordenagailuetara egokitu

Itziar Larrañaga ARRASATE

Urriaren 25ean egin zuen *Goiena.eus*-ek diseinu berrirako eraldaketa. Lanketa luze baten emaitza izan da, Tokikom Plataformak osatzen duten kide guztien hausnarketa prozesu baten ostean, beharrak eta erronka berriak identifikatu ziren, eta hainbat hilabetez horiek guztiak asebeteko zituen formula bat diseinatu da. Garapen lanak CodeSyntaxek egin ditu, Plataformako kideekin elkarlanean.

Webgunearen itxura aldatzeaz gain, arlo teknikoarekin lotura dutenak ere gauzatu dira.

20 webgune erro berarekin

Tokikom Plataformako medio guztiek izango dute datozen hilabeteetan diseinu berria. Aldaketara egokitzen lehena izan da

Goiena.eus, eta dagoeneko sei webgune dira egitura berria dutenak –Goiena, Anboto (Durangaldea), Baleike (Zumaia), Euskalerrria Irratia (Iruñea), Ataria (Tolosaldea) eta Maxixatzen (Azkoitia)–; eta Gabonetan, beste bi.

2019 hasieran, plataformako kide guztiek izango dute webgune berritua. Horren ostean, erronka berriak etorriko dira.

Mugikorrak nagusi

2013an egin zuen *Goiena.eus*-ek pasa den urrira arte zeukan diseinua; orduan, batez ere, ordenagailuei begira egin zen eraldaketa guztia. Izan ere, mugikor bidezko trafikoa gutxiengoa zen momentu hartan. Baina bost urtean aldaketa erabatekoa izan da; lehen balio zuena orain ez da nahikoa.

"Datuek erakusten dute Interneteko kontsumo ohiturak aldatu egin direla azken urteotan. Gaur egun, %60 inguru telefono mugikor bidez sartzen da gure webgunera, eta horretarako egokitu gura izan dugu: garbigoa, kargatzerakoan bizkorragoa eta argazkiek garrantzi handiagoa, besteak beste", dio Mirari Altubek, Goienako arlo digitalako koordinatzaileak.

Kontsumo ohiturak aldatu diren neurrian, kazetarien lana egiteko era ere asko aldatu da azken urteotan. Internetek ez du itxiera ordurik, 24 orduz dago aktibo webgunea eta kazetariak unean uneko informazioa eskaintzeko egiten dute lan. Horrek gero eta gehiago eskatzen du kaletik lan egitea, eta, kasu horietan, eskuko telefonoa bilakatu da aliaturik onena. Hala



Goiena.eus, eskuko telefonoan. ITZIAR LARRAÑAGA

ere, oraindik ere, lan gehiena ordenagailu bidez egiten da.

Gaur egungo kazetaritza

Arlo teknikoa garatzea garrantzitsua da, baina, era berean, ezinbestekoa da langileek ere digitalizaziorako saltoa egitea. Teknologia lana errazteko dago. Egun, Goienako kazetari guztiak

hainbat euskarritan lan egiteko gai dira; denbora laburrean, egoera berrira egokitzen jakin dute. Horregatik, Altubek azaltzen duen moduan, kazetari multimedia dira guztiak: "Kazetariak ere egokitzen joan behar izan dute azken urteotako alaketetara, eta, horretarako, hainbat mediotan jar-

"Plataforman 20 medio egongo dira urte amaieran"

JOXE ROJAS TOKIKOMEKO IKT ETA KOMUNIKAZIOKO ZUZENDARIA

Tokikom Plataformak 2013an sortu zuen Tokikomek, CodeSyntax enpresarekin elkarlanean. Goienarekin batera beste 16 toki komunikabidek osatzen dute –Hiruka, Anboto, Baleike, Guaixe...– eta urte bukaerarako 20 izango dira.

Zer da Tokikom Plataformak?

Plataforma bi elementuk osatzen dute: alde batetik, software bat, CodeSyntax enpresarekin elkarlanean garatu duguna, eta balio duena toki komunikabideen edizio digitalak egiteko. Eta bestetik, plataformak erabiltzen duten komunikabideen arteko foro edo sare bat. Bertan erabakitzen da softwareak zer berrikuntza behar dituen, bilatzen da berrikuntza horiek egiteko finantzazioa, denon artean eztabaidatzen da epe ertaineko estrategia zein den...



JOXE ROJAS

Zein onura ekarri die plataformak kide direnei?

Batetik, plataformak eskaintzen du euskarazko toki komunikabideek eurek pentsatutako tresna bat, euren beharretatik diseinatutakoa. Tresna gisa,

ahaltsua eta moldagarria da, eta, gainera, komunikabideen beharren eta nahien arabera aldatzen eta garatzen doana. Horrek egunerokotasunean, batez ere, konpartitzea errazten du: edukiak partekatzea komunikabideen artean, baina baita inbertsioak ere: komunikabide bakoitzak diru apur bat jarrita, guztiek erabil ditzaketen eta bakarka egin ezingo lituzketen garapenak egin ditzakete. Eta denborarekin asko baloratzen ari den aukera bat: tresna zein hedabidearen beraren garapen digitalaren inguruko gogoeta partekatze espazio bat. Komunikabide txikiak asko eskertzen ari dira etorkizun digitalaren inguruko kezka eta gogoetak konpartitzeko eta elkarrengandik ikasteko espazio bat izatea.

Nola funtzionatzen du Plataformak?

Funtzionamendua aztertu eta hurrengo garapenak zeintzuk izan behar duten erabakitzeke, Batzorde bat osatu dugu Plataformak erabiltzen duten medio guztiekin. Batzorde horretara ekartzen dira ideia berriak, Plataforman egin beharreko hurrengo hobekuntza edo aldaketak zeintzuk diren, komunikabideek planteatzen dituzten beharretan oinarrituta. **Zeintzuk dira Plataformaren erronkak etorkizunera begira?**

Hurbilen dugun erronka ikus-entzunezko edukien integrazioa da. Tokikom Plataformako medio gehienek Youtube edo Vimeo bezalako kanpoko azpiegituren menpe daude. Ikus-entzunezko materialaren kontsumoa gero eta handiagoa da Interneten, horregatik gero eta argiago ikusten dugu beharrezkoa dela bideo eta audioak sarean argitaratzeko azpiegitura propioa izatea. Hala ere, GOIENAK badu bere azpiegitura.

duteko trebakuntza jaso dute. Hala, telebistan, prentsa idatzian zein digitalean lan egiteko gaitasuna dute, horretan dihardute egunerokoa eta sare sozialetan ere aurrean dabilta. Kazetari multimedia dira albisteak jaso, hasi eta bukatzen dakitelako, edozein hedabide-tarako izanda ere".

Eskaintza guztia sarean

Goiena Komunikazio Taldeak hasieratik egin du Interneten aldako apustu garbia. Sarera-ko ekoizten denaz gain, GOIENA aldizkarirako eta Goiena telebistarako sortzen den guztia eskaintzen da *Goiena.eus*-en.

Kontsumo ohitura berriek mugikorraren bidezko trafikoa gorakada ekarri dute, baina ez hori bakarrik. Unean unekoari garrantzi handiagoa ematen zaio eta norberak aukeratu dezake zer, noiz eta nola ikusi nahi duen.

Horregatik, egubakoitzero GOIENA aldizkarian argitaratzen diren albisteak Interneten ere sareratzen dira. Gainera, aldizkaria bera pdf formatuan irakurtzeko aukera ere badago. Telebistari dagokionez, *Harmailatik*, *Hemen Debagoiena* eta azkenaldian telebistan eskaini diren erreportaje bereziak, guztiak aurki daitezke *Goiena.eus*-eko telebistaren orrialdean. Nahieran kontsumitzea eskatzen dute herritarrek, eta hori eskaintzen du Goienak.

Etorkizunari begira

Berrikuntza prozesuak ez du hasiera eta amaiera bat, etengabeko lana da, eta etorriko diren beharrak identifikatzea ez da lan makala: "Internet mundua ziztu bizian dabil aldatzen, eta jakin ez zer etorriko den. Dena den, gure komunitatea errotzea da erronketa-ko bat; debagoiendarrak eta, gehienbat, euskal hiztunak dira gure erabiltzaileak, nagusiki. Horiek guztiak gurera ekarri nahi ditugu, eta horien leialtasunari eutsi. Erronka da baita albisteak jaso orduko, edo-

WEBGUNEAREN ITXURA ERALDATZEAZ GAIN, ARLO TEKNIKOAN ERE EGIN DIRA ALDAKETAK

GOIENA ALDIZKARIRAKO ETA TELEBISTARAKO SORTZEN DEN GUZTIA ESKAINTZEN DA 'GOIENA.EUS'-EN


WEBGUNEKO ERABILTZAILEEN FIDELTASUNA LORTZEA DA ERRONKA NAGUSIETAKO BAT

zein txokotan izanda ere, *Goiena.eus*-en egotea lehenbailehen. Lan horretarako, mugikorra funtsezko gailua da".

Komunitatea da azkenaldian indarra hartzen ari den atale-tako bat. Euskaraldiaren berri emateko erabili dute eragile askok, eta irakurleen arreta izan duela erakusten dute analitikek. Bestalde, hainbat ikas-tetxe eta alderdi politikok ere *Goiena.eus*-eko komunitateak eskaintzen duen zerbitzua balaratu eta erabiltzen dute.

Horretaz gain, azken urtean indartu nahi izan diren arloetan ere lanean jarraituko dute: "Whatsapp eta Telegram bidezko notifikazioak ere bidaltzen ditugu azken urtean, egunean bat, albiste garrantzitsuena irizten diogun horrekin, eta sare sozialetan -Twitter, Facebook eta azken urte eta erdian Instagram- oso aktiboak gara, webgunean sartutako guztia horien bidez zabaltzen dugu. Azken batean, helburua da *Goiena.eus* webgunera ekartzea jendea, eta gaur egun horretarako dauden bide garrantzitsuenak erabiltzen ditugu".

Erabiltzaile berriak erakartzeaz gain, fidelitasuna ere bada erronka garrantzitsu bat. Webgunean eskaintza gero eta zabalagoa da, eta, horri esker, egunean hainbat alditan sartzen den irakurle horrek une oro izango du zerbaite berria ikusteko aukera.



2018ko ikusienak

Interneteko analitikek datu kuantitatibo ugari eskaintzen dituzte, baina, horretaz gain, erabiltzaileen interesak identifikatzen laguntzen dute.


Goiena.eus-en herriek indar handia dute; erabiltzaile bakoitzak berera jotzen du, batez ere. Horien artean, Oñati da gehien kontsultatzen den herria, eta, ostean, Bergara eta Arrasate datoz. Aipatzekoa da, era berean, Elgeta biztanle dezente gehiago dituzten herrietako orrialdeetatik nahiko hurbil ibiltzen dela.

Kirolak dira irakurle gehien erakartzen dituen gaia, eta bide beretik telebistan ere, *Harmailatik* baita orrialde bisitatuena.

Zerbitzuei dagokionez, zorion agurrak dira *Goiena.eus*-eko irakurleen artean interes gune nagusietako bat; bereziki, jaiotzak. Bestalde, Goienak bailaran hil diren guztien informazio ematen du, eta eskelen orrialdea oso irakurria da, ondorioz. Horretaz gain, agenda eta sailkatuak ere lehenengo hogen orrialde irakurrien artean daude.


Bestalde, 2018an zehar interes berezia piztu dute hainbat gaik; besteak beste, Kantariren kanal bereziak, Udako Argazkien Lehiaketak eta jaien kanal bereziak. Horien artean nagusitu dira Maritxu Kajoi, Bergarako eta Oñatiko jaiak eta Aratustek. Baita Gure Esku Dago eta Eskola Publikoaren Debagoieneko jaiak ere.

Zein maiztasunekin eta zer irakurtzen duzu 'Goiena.eus'-en?



MAITANE UGARTE
ADMINISTRARIA

"Nik egunero begiratzen dut Twitter eta, normalean, hortik sartzen naiz *Goiena.eus*-era'. Egutero ez bada, bi edo hiru egunean behin beti dago intereseko albisteen bat. Albisteez gain, zorion agurren atala ere oso gustuko dut. Eta, gehienetan, mugikorra erabiltzen dut nabigatzeko".




ELENA HERRARTE
BAGARAKO KIDEA

"Goienan astean hiru edo lau aldiz sartzen naiz, mugikorratik zein ordenagailutik. Interesa pizten didaten albisteak eskualdeko herri edo eragile ezberdinetan gertatzen ari direnak izaten dira: udalgintza eta herrigintza gertatzen direnak, bereziki. Bestalde, jaiotzak begiratzeko ohitura ere badut".




JOXE ANJEL ANTIXIA
ERRETIRATUA

"Ni ia egunero sartzen naiz webgunean ordenagailu bidez; oraindik, itxura berrira ohitzen ari naiz. Aretxabaletako kontuak irakurtzen ditut, gehienbat, eta gai ezberdinak interesatzen zaizkit; kultura, politika... Ezohiko albisteak ere gustatzen zaizkit; azkenaldian, adibidez, Eusko Ikaskuntza jarraitu dut".



AMAIA ARRAYAGO
BERGARA EUSKARALDIKO KIDEA

"Egutero edo ia egunero sartzen naiz *Goiena.eus*-en. Goizean goiz sartzeko ohitura dut; prentsa ezberdina irakurtzen dut; tartean, Goiena. Mugikorrean Bergarako orrira sarbide zuzena daukat eginda, herriko albisteak baitira gehien interesatzen zaizkidanak. Azkenaldian, Euskaraldira lotutako gaiak ere begiratu ditut".



MIKEL ZUMALDE
IKASLEA

"Bilbon bizi naiz, eta nire herrian [Aretxabaleta] zer gertatzen den jakitea gustuko dut. Webgunea maiztasun handiarekin erabiltzen dut, egutero. Ordenagailuz zein mugikorrekin sartzen naiz, eta, herriko albisteez gain, kirolekin lotutakoak begiratzen ditut gehien. Hala ere, denetik irakurtzen saiatzen naiz".

Goiena.eus Kabitu ezinda

Urterik urte errekor berri bat lortzen
dugu bisitetan –saioetan–
eta erabiltzaile kopuruan.

Kabitu ezinda gaude, eta gora goaz.
Eskerrak zuri.



goiena[“]
Zu hemen zaude.

Hamabigarren eguna

MAREN BELASTEGI ETA IBAI REDONDO
SORTUKIDE ETA EUSKALTZALEAK
BERGARA

Pasio osoz bizi izan dugu hamaika egunez Euskaraldia. Milaka bergararrekin batera gure kontraesanak gainditzeko ariketa egin dugu, beste askotan bezala, baina beste askorekin batera. Ez daukagu daturik, baina sentipena daukagu Euskaraldiak iraun duen hamaika egunetan Bergaran euskaraz dezente gehiago hitz egin dugula; %42-45 inguruan trabatuta zegoen erabilera, ziurrenik, %50etik gora joan da... eta ez da gutxi!

Izugarrizko balioa dauka, hizkuntza ohiturak aldatzea ez delako erraza.

Baina gu ere Amets Arzallusekin ados gaude, hamabigarren eguna izango da garrantzitsua, eta hurrengoak berdin. Zer gertatuko litzateke hamabigarren egunetik aurrera ere Euskaraldian izan dugun jarrera bera izango bagenu? Zuek topatu erantzuna.

Baina nahikoa al da? Gure ustez, herritarrok inplikatzeari oso garrantzitsua da, baina hamabigarren egunean herri bultzada honek instituzioen babesa behar du. Euskara berreskuratzeko, hizkuntza politika eta plangintza eraginkorrak behar dira Euskal Herri osoan: euskarak ofiziala eta lehentasunezkoa izan behar du, gizonen eta emakumeen aukera

berdintasuna lortzeko zapaldua den kolektiboak, emakumeen kolektiboak, diskriminazio positiboa behar duen bezala, euskarak ere diskriminazio positiboa behar du. Horregatik, hamabigarren egunean euskara berreskuratzeko herri bultzada mantentzeaz gain, instituzio guztien ahalegin handiagoa beharrezkoa izango da, baita Bergarako Udalarena ere. Batzuetan, Udalaren kanpo komunikazioa ikusita, badirudi ele bitan, modu orekatuan egitea nahikoa dela, eta hori gezur hutsa da. Bergarako Udala Euskaraldian ere ez da gai izan euskarari lehentasuna emateko: web orria, sare sozialak, bandoak... Antolatu dituen hitzaldi, kultur ekintza ugari –gehienak– gazteleraz izan dira... Euskaraldian! Zapaldutako hizkuntzak diskriminazio positiboa behar du, egunero. Are eta gehiago, Bergara bezalako herri euskaldunak, Ueman gauden herriak; aditu guztien arabera, klabeak gara berreskurapen prozesuan. Euskarak etorkizuna izango badu, nagusia izango den lurraldea behar duelako, eta lurralde zati horretako parte da Bergara –ia %80ko ezagutza–. Instituzioetatik herritarroi hamabigarren egunetik aurrera azken hamaika egunetan bezala jarraitzeko eskatzen digute, eta oso pozik egingo dugu, baina instituzioek ere entzun dezatela: 365 egunetan eman euskarari lehentasuna.

Irabazi Bergarak azaroko osoko bilkuran aurkeztu dituen hiru mozioak baztertu egin ditu Gobernuak

AIERT LIZARRALDE
IRABAZI BERGARA KOALIZIOAREN
BOZERAMAILEA
BERGARA

Ezker Anitzaz, EQUOz eta independenteez osaturiko koalizioak Gobernuaren azken orduko mozio batekin ordezkaturia izan zen Espainiako koroaren aurkako mozio bat aurkeztu zuen azaroaren 26ko osoko bilkuran. Gobernuaren mozioak monarkia egotearen arrazoiak argudiatzen zituen. EAJrentzako eta Alderdi Sozialistarentzako, monarkiak Estatutuaren eta Konstituzioaren arteko konexio egoki bat egiten badu, bere izateko arrazoiak justifikatzen ditu.

Bestetik, eta ikusita azkenaldian apustu aretoen eta ludopatia kasuen gorakada, Irabazik, gai honi ondo heltze aldera, hainbat konpromiso hartzea eskatzen zuen mozio bat aurkeztu zuen. Gobernuak mozio hau bazterrerara bota zuen, eta Gobernuaren argudioa izan zen Udaletik jada lan asko egiten dela gai honen inguruan. Aiert Lizarralde zinegotziak argi utzi zion Gobernuari gezurretan dabilela, agintaldi osoan ez baita gai honen inguruan lanketarik egin zerbitzu sozialetako batzordean, eta,

gainera, oposizioak ez du inolako informaziorik jaso. Ingurumenari dagokionez, Irabazik, eukaliptoaren landaketa debekatzeko aldera, Euskal Autonomia Erkidegorako espezie inbaditzaileen katalogo bat sortzeko eta eukalipto katalogoan bertan sartzeko mozio bat aurkeztu zuen. Mozio hau ere baztertu egin zuen Gobernuak. Argudiatuz badaudela ikerketa zientifikoak eukalipto uste den bezain agresiboa ez dela frogatzen dutenak. Honi gehitzen badiogu urriko osoko bilkuran Gobernuak kobre oxidoaren alde emandako botoa, garbi geratzen da gure ingurumenak inoiz baino arerio handiagotzat jo ditzakeela Bergarako EAJ eta Alderdi Sozialista.

Noiz izango da zure arazoa?

JOSU GARITAONANDIA
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EKIMENAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Gizarte kontsumista batean bizi gara; nabarmen ikusten da Gabon jaiak hurbiltzen direnean.

Iragarkien mezu guztiek sinestarazten digute derrigorrez zerbait erosi behar dela pozik bizi ahal izateko.

Gizaki guztiok hainbeste kontsumituko balute, planeta batzuk beharko genituzke egarri-zoro hori asetzeko, baina planeta bat daukagu eta mugatua da.

Ondorioz, ondorengo belaunaldien baliabideak kontsumitzen ari gara, *modan* dagoelako; zabor gehiago sortzen dugula? "Hori ez da nire arazoa" esan, eta kito. Orduan, noiz izango da zure arazoa?

Egoera honi buelta eman nahi diozula?

Beharrezkoa duzuna erosi, ahalik eta gertuen eta ekologikoki ekoiztutakoak, eta sobratzen zaizun dirua banku etiko batean sar ezazu; zuri interes gutxi emango dizu, baina gizarteari onura handien egiten dioten ekintzak bultzatuko ditu.

Argiak, turroiak, lurrinen eta jostailuen iragarkiak, erakuslehoak...

MIKEL ARANTZABAL
EIBAR

Agian, nire irudipena izango da, baina esango nuke urterik urtera lehenago *hasten* direla Gabonak. Azaro erdialdean, hain zuzen ere.

Kalean bueltatxo bat ematea besterik ez dago horretaz jabetzeko: erakuslehoak Gabonetako apaingarriekin, argiak, herri batzuetan musika... eta, zer esanik ez, telebista piztuz gero: lurrinak eta jostailuak barra-barra.


Gainera, batzuek honezkero hainbat turroi-tableta jango zituzten... supermerkatuak izaten baitira lehenak Gabonak *hasten*.

Dena, guztiok ere gehiago eros dezagun, gehiago kontsumi dezagun...

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





ZABALIK

AGURNE JULDAIN

Ez da ezer gertatzen

Zenbatetan entzun dugu edo esan dugu esaldi hau? Nik neuk askotan! Bai entzun, bai esan. Baina, zorionez edo zoritxarrez, beti gertatzen da zeozer. Eta egia da. Beti, une oro gertatzen da zerbait. Batzuetan ona, beste batzuetan txarra. Nork egiten du onaren edo txarraren balorazioa? Norbanakoak. Baina aurrean dugun pertsona horrek nahikoa du egoera bizitzearekin. Ez da eroso, ez, egoera txar bat bizitzea, eta egia da, normalean. "Ez da ezer gertatzen" motako esaldia egoera txar baten aurrean esan edo entzuten dugu. Konturatu gabe esaten diogu edonori, "lasai, ez da ezer gertatzen; ezin bada ezin da, ez da mundua amaitzen".

"Lasai, ez da ezer gertatzen" entzun ondoren, gure emozioak nahastu egin daitezke. Baina aurrean dugun horrek ziur bere animo positibo gehiengoarekin esan digula esandakoa; ez diezaiozun aurpegi txarrez erantzun. Posible bada, noski!

AGIAN, BESARKADA ISIL BATEK GEHIAGO LAGUNDUKO LIGUKE BIZI DUGUN EGOERA BATEN AURREAN

Bakoitzak bere bizipenak bere modura bizi ditu, eta bai, "normala" da mota honetako esaldiak esan eta entzutea, baina, batzuetan, momentuaren arabera,

agian, ez da esaldi egokiena.

Agian, besarkada isil batek gehiago lagunduko liguke bizi dugun egoera baten aurrean. Baina beste ezer esateko hitzik aurkitu ez badu?

Izan gaitezen flexibleagoak eta jar gaitezen bestearen egoeran balorazio bat egin aurretik. Benetan aurrean dugun pertsona ezagutzen badugu jakingo dugu bihotz onez esan digula esan beharrekoa. Ahal izan duen modu onenean erantzun ahal izan digu aurrean dugun pertsonak. Zuk zer esango zenuke, ba? Eta beste zerbait esango bazenu, zergatik ez duzu esaten? Zergatik ez diogu hurrean dugun pertsona horri nahi dugun hori eskatzen? Asmatu egin behar al du?

Lagun diezaiozun elkarri eta egin dezagun bizitza errazagoa. Baliteke, agian, guk geuk konplikatzeko egunero. Edo ez! Ez dadila orain inor nirekin haserretu; azken finean, ez da ezer gertatzen, edo bai?

HANDIK ETA HEMENDIK

Usteak erdia ustel

JOSUNE AZURMENDI TELLERIA

HTTPS://LABUR.EUS/XNYCZ

'ARGIA.EUS'-EN ARGITARATUA

Norbanakotasunek ezberdintzen gaituzte; janzteko moduak, hitz egitekoak, arnastekoak, jolastekoak, abestekoak, ibiltzekoak, izatekoak. Izan; bagara, hori bada gure nahia. Ez da ala?

Askotan begiratzen dut nire ingurura, nire inguruan dagoen orora, pertsonetara. Gizartean dauden pertsona ezberdinak elkartzen dituen gauza bat garraio publikoa da. Badaude goizean goizetik energia altu dutenak, astelehen goizean asteburuko musika euren aurikularrekin ozenki entzuten dutenak, autobusera aurpegia izaren markaz apainduta igotzen direnak edota irratia entzunez lanera pozik doazenak. Etxeko lanak eskolara bidean letra dantzariz eta presaka egiten dituztenak edo autobusera igo orduko lo seko geratzen direnak. Autobusean bere geldialdia baino bost minutu lehenago altxatzen direnak, autobusa geldituko ez den beldurrez, baita jaitsi behar diren geltokian bertan autobusa gelditu arte euren eserlekuan lasai daudenak ere.

Leihotik begiratu eta egun euritsueta aterki gabe korrikan dabilzan asko ikusten ditut, aterki azpian burua makurtuz babesten direnak, aterkia energiaz eutsi eta lepoa tentetuz

eguraldi txarrari aurre egiten diotenak. Putzutik putzura saltoka dabilzan haurrak, aterki gabe lasai euriaz gozatzen dutenak edota presarik gabe euria geratu arte aterpean itxaroten dutenak.

Gazia gozoa baino nahiago dutenak, edo alderantziz. Klasean aspertu eta orri txuria arte-lan bilakatzen dutenak, "tres en raya"-n jolasteaz aspertzen direnak edo irakaslea ohartu gabe euren otartekoa jaten dutenak. Hitzak soberan dituztenak edo hitz egitea soberan dagoela uste dutenak. Gaur egun, oraindik ere, emakumeoi hitz ustelak jaurti eta gustuko ditugula uste dutenak.

Usteak erdia ustel, eta beste erdia?

Beste erdia gure baitan. Nire baitan, bere baitan eta zure baitan. Uste duguna gara batzuetan, eta beste batzuetan aldiz, uste ez duguna; gainontzekoak baino gehiago garen uste ustela.

Zuzendu dioten komentario matxistagatik dakit nor den Ada Hegerberg

JON TORNER ZABALA

HTTPS://LABUR.EUS/OILFS

'ARGIA.EUS'-EN ARGITARATUA

Luca Modric kroaziarrak eta Ada Hegerberg norvegiarrak irabazi dute Urrezko Baloia, jokalaririk onenak saritzen dituen trofeoa. Askok ezagutzen dugu Modric, baita gizonezko gainerako hautagai ia guztiak ere. Hegerberg

ordea... Parisen egindako galan parte hartu duen Martin Solveig DJak zuzendu dion galdera batek sare sozialetan eragindako zalapartagatik ezagutu dut nik, futbolaren ingurukoez egunero irakurtzen dudana arren.

"Twerking egiten badakizu?", galdetu zion DJak Lyongo Olimpique taldeko aurrelariari. Norvegiarrak ezetz erantzun dio, eta eszenatokitik alde egiteko imintzioa egin du. Ekitaldiko aurkezle David Ginolak geratu du, eta tentsioa baretzea lortu. Azkenean, Solveigek –zeinak barkamena eskatu duen– eta Hegerbergekin elkarrekin egin dute dantz, Frank Sinatraren abesti batekin.

Komentario matxista hori, emakumezko kirolarietako sufritu behar dituzten pikukerien zerrendara gehitu beharreko beste bat, jokoz kanpo dago erabat.

Tamalez, sortutako polemika eraman dute hedabideek Hegerbergekin jaso duen Urrezko Baloia buruzko albistearen titularrera.

Eta, tamalez, sare sozialetako zalapartagatik dakit nik nor den Urrezko Baloia jaso duen lehenbiziko emakumea, nahiz eta, besteak beste, 2016an Europako jokalaria onenaren UEFA saria jaso eta pasa den denboraldian Txapeldunen Ligako goleatzaile nagusia izan.

23 urterekin, ia 300 gol sartu ditu norvegiarrak.

goiena^{ak}
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitate

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Korrika batzordeetan parte hartzeko gonbita egiten dut"

JOSU ZUBIA DEBAGOIENENKO KORRIKAREN KOORDINATZAILEA

Eneko Azkarate ARRASATE

Korrikak 21. edizioa izango du 2019an, apirilaren 4an Garesen hasi eta amaiera Gasteizen, 14an, izango duena. *Klika* izango da leloa eta abestia eta bideoklipa ere badauzka dagoeneko.

Korrika 21rako motorrak berotzen hasi zarete...

Korrika moduko ekitaldi sozial erraldoi bati dagokion moduan, badauzkagu leloa, irudia, abestia, bideoklipa, jantziak eta bestelako produktuak, eta hasiera eta amaiera egunak. Ibilbidea ere zehaztuta dago, eta urtarrilean jakinaraziko dugu. Arropa salgai dago euskaltegian eta laster hasiko gara kalean postuak jartzen.

Batzordeak sortzeko unea orain?

Hala da. Herririk herri sortuko dira batzordeak. Horretarako, joko dugu aurreko edizioetan aritu direnengana, baina deialdi zabala ere egingo da parte hartu nahi duen ororendako. Herrietako kilometroak



Josu Zubia, Korrika 21rako egindako arroparekin. ENEKO AZKARATE

kudeatzea eta giroa sortzea izango da batzordeen egitekoa.

Zergatik da inportantea batzordeetan parte hartzea?

Korrika maila nazionaleko ekimena bada ere, azken finean, norbere herrian

gertatuko den hori batzordeetan erabakitzen delako.

Korrika Kulturala izango da hurrengo hilabeteotako egitekoa?

Bai, eta hor herririk herriko dinamikak sortuko dira, baina

badira, horiekin batera, beste bost ekimen berri, pixkanaka-pixkanaka estreinatzen joango direnak. Urtarrila eta otsaila bitartean mamituko da Korrika Kulturala.

Zein da datorren urteko Korrikaren helburua.

Euskara lehen lerrora ekartzea eta euskararen alde korrika egiteak sortzen duen sentimendua azaleratzea. *Klika* da leloa eta horrekin adierazi nahi da kliken bidez mundua aukeratu egiten dugula, nolabaiteko hautu bat egiten dugula.

Konpromisoaren hautua egiteko unean gaudela adierazi nahi dugu, klik egiteko euskarari. Jakina, Korrika finantzazio bide ezinbestekoa da AEKrendako, hori ezin da ukatu.

Mad Muasel, La Furia eta Fermin Muguruza dira aurtengo abestiaren egileak. Gustuko duzu?

Kantua oso ausarta da eta batzen ditu herri honetako errealitateak; horretarako dei bat da! Gorputza mugitzera gonbidatzen zaitu... Gainera, Euskal Herria puntarik punta lotzen du -Iparraldeko, Erriberako eta Irungo egileek egin dute- eta guztiok parte izatera deitzen gaitu: "Zu gabe hau ez da posible". Batu gaitezen, beraz, Korrikara!

HAU BE BADOGU!

Urrezko Baloia jaso duen lehen emakumea



Ada Hegerberg norvegiarra izan da Urrezko Baloia jaso duen lehen emakumea. Lotsagarria izan zen, hala ere, Martin Solveig aurkezleak ea *twerking* egin zezakeen galdetu ziola galan. Jokalariak, haserretuta, ezetz erantzun zion:

@bbc_world: "Ada Hegerberg urteko futbolari onena izendatu dute Urrezko Baloia galan... Ondoren, DJ ospetsu batek *twerking* egin dezakeen galdetu dio. Ez da onargarria eta barkamenak eskatu dizkio" (itzulita).

Korrikaren abestia kritikatu dute sarean

Fermin Muguruzak eta La Furia eta Mad Muasel rap abeslariak egin dute kanta:

@martin_kitto: "Bada, hementxe dugu euskaldunon arteko enegarren mundu gerra. Ze izen jarriko diogu bando bakoitzari? #korrikakoabestia".

@amuarraia1: "Esan daiteke Korrikaren kantua oso txarra dela? Modernokeriak galtzen gaitu".

@unblenbe: "#Korrika-ko kanta *belarriprest* dela dirudi...".

Vox eta eskuin muturreko alderdiak

Andaluziako hauteskundeetan 12 eserleku eskuratu ditu eskuin muturreko VOX alderdiak:

@enekuttun: "Eskuin muturraren igoera nabarmena eta kezagarria da European, baina beste herrialdeetan ikusi duguna da eskuin eta ezkerre bat egiten eskuin muturra bazter utzita eta Espainian ordea, eskuineko alderdiak pozik ikusi ditugu faxisten bozkei esker gehiengoa lortu dutelako. #Beldurra".

ITURRI ONETIK

Sharon Stoner, laugarren diskoa grabatzen

Sharon Stoner talde oñatiarra laugarren lana grabatzen ari da. Egunotan, Garate estudioan izan dira, Iñaki Zubia musika-teknikaria lagun dutela. 2003ko maketaren ostean, 2006an atera zuen lehen diskoa, *-3.000 bira-*, Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketa irabazi ostean. Gerora etorri ziren *13 Taupada* (2008) eta *Puntu bakar batean elkartzen diren ertzak* (2012). Bestalde, Iker Martinez de Zuazo -Latzen, Potemkin, Lenao- bigarren diskoa grabatzen hasi da.

ALBISTE IZAN ZEN



2006-12-04

Dendariak, merkataritza-gune handiaren aurka

Arrasateko Zabaleta inguruan merkataritza-gunea kokatzeko asmoen aurka azaldu ziren Debagoieneko dendarien elkarteak. Izan ere, Txomintxo erakunde sustatzaileak Arrasateko Hiper Eroski ondoan 28.000 metro koadroko azaleradun merkataritza-gunea egiteko asmoa azaldu zuen. "Merkataritza eredu hori zaharkituta" geratu dela adierazi zuten. Gerora, Arrasateko Udalak ez zuen baimenik eman horretarako.

"Armak behar badituzte, gu udaltzainekin gaude"

OSCAR GARCIA ARRASATEKO PSE-EE-KO BOZERAMAILEA

EAJrekin batera osatu duten Gobernua aberasgarritzat jo du, ezberdinen artean ulertzea lortu dutelako. 2019ko udal hauteskundeetan sozialisten alkategai izango da

Xabi Gorostidi ARRASATE

Agintaldia amaitzear dela, Goiena telebistako *Harira* saioan izan da, 2015etik hona egindakoak errepasatzeko.

Nola bizi izan dituzue, familia sozialistan, Andaluziako hauteskundeek utzitako emaitzak?

Kezka handiz bizi izan ditugu, batez ere, Gobernuarengan higidura handia ikusi dugulako. Hala ere, benetan zaila ikusten dut PP buru izango duen gobernua Andaluzian, batez ere, Ciudadanosentzat kaltegarria delako estatu mailan. Beraz, hauteskundeak errepikatzeko aukerak egon daitezkeela uste dut.

Arrasatera etorrita, nola baloratzen duzu amaitzear dagoen agintaldia?

Nekagarria da agintea, baina aberasgarria ere bai. Askok ikusi dugu. EAJrekin harreman ona izan dugu; ikuspuntu ezberdinak izan arren, adostasunak eta ezberdinen arteko elkarlana lortu ditugulako.

Agintaldi hasieran, auzoak hobetzeko garrantzia azpimarratu zenuen. Zer egin duzue eta zer nabarmendu zenuke?

Askok egin dugun arren, egiteko asko falta dela esango nuke. Egin ditugun gauzen artean, auzoen garbiketan aurrera egin dugula nabarmendu nuke. Orain, kontratu berria eta ho-



Oscar Garcia, martitzenean, Goiena telebistako platoan. JAGOBA DOMINGO

"NIRE MISERIAK JOKO POLITIKORAKO BALIATZEAK EZ DIO MESEDERIK EGITEN KAUSA FEMINISTARI"

betua lortu dugu Cesparekin, baina, horren aurretik, neurriak hartu genituen auzoetako garbitasuna hobetzeko. 2012an, krisiaren eraginez, murrizketak izan ziren zerbitzuan, eta auzoetako bizilagunak izan ziren

horren eraginak gehien pairatu zituztenak.

Zertan igarriko dira kontratu berri horren hobekuntzak?

Frekuentzietan eta makinerian, batez ere, igarriko da aldea. **Gaiz aldatuz, nola bizi izan zenuen Baleikek eta Irabazik azken osoko bilkuran jarritako mozioa, zuk jasotako salaketa baten harira?**

Esan zuten, mozioa aurkezteko arrazoia eraso matxisten aurkako protokoloa ez betetzea izan zen. Baina benetan uste duzu hori izan zela euren nahia? Nire bizitza pribatuko miseria

bat baliatu dute joko politikoa egiteko, eta haratusteljaiek bezala jokatu dute. Osoko bilkuran esan nuen salaketak ez duela aurrera egin, ez naiz inoiz akusatuta egon, fiskalak salaketa kentzeko eskatu zuen, eta kasua artxibatuta dago. Halako salaketetan, gutxitan gertatzen den zerbait da, baina esan beharra dago fiskalak idatzi bat egin zuela salaketa artxibatzeke. Euren jakingo dute zergatik egin zuten, baina euren burua hain feministatzat duten horiek pentsatu beharko lukete miseria pertsonalak joko politikorako erabiltzeak ez diola mesederik egiten kausa feministari.

Bizikidetzaren alorrean urratsak egin dituzue alderdi guztien artean. Gustura geratu zarete Isaias Carrascori egindako aitortzarekin?

Gehiago egin zitekeen nire gusturako, baina nire iritzia ez da garrantzitsua kontu honetan. Azpimarragarriena da minimo batzuk adostea lortu dugula denon artean, eta, batez ere, Arrasate moduko herri batean Isaias Carrascori merezi zuen omenaldia egin zaiola. Aurrerapauso garrantzitsua izan da denon arteko bizikidetzarako.

Zein da zure iritzia lapurreta gorkadaren eta udaltzainek suzko armak eskatzearen inguruan?

Lapurretekin kezkatuta gaude, eta herritarren artean ere kezka hori ikusi dut. Armen erabilerraren gaian, sozialistok udaltzainekin gaude. Eurak dira kaleko arriskuei aurre egin behar dutenak, euren dakite zer behar duten. Duela urte eta erdi, tiroak ikusi genituen San Andresen, adibidez. Labankadak ere izan dira. Halako eraso batean udaltzainen bat kaltetuz gero, euren eskaria ukatu ostean, ezingo genuke kontzientzia lasai izan.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

Izendunak

Totik dioten bezala, historia ezagutu behar da gaur egungo egoera ulertzeko, baina emakume ereduak falta zaizkit hurbileko historiaren egiazko kontakizuna egiteko. Eta galdetuz, jaso ditut izen batzuk, ertz guztietatik janzteko asmoz. Esaterako, Celina Wood, nahiz eta ez zen Arrasaten jaioa, pentsatu nahi dut Pedro Viteri senarrarekin batera egin zituztela eskola laikoaren ekarpenak. Teresa Garcia izan zen maistra ezaguna, Viteri eskolen hastapenetatik jardun zuen emakume xaloa. Albina Madinabeitia, 2. gerra ondoren Espainiako Kamera Orkestrako lehen biolin jolea izatera heldu zen. 100 urte iraun duen Zeziaga mertzeriak, Maalako errebaletan, zeina Rafaela Lasagabasterrek eraman zuen mendearen hasieratik. Juana Fundazurik auto eta kamioi gidabaimena aterata eta taxi gidari izan zituen bizibide, Gipuzkoan aitzindari. Eta gasolina botatzera Portaloiko Juanitaren hornitegira joko zuen, besterik ezean.

Hala nola Santxa, Jesusi, Mariasun, Marga, Xeli, Ino, Julia, Ines, Amaia eta hainbat. Aktore, zuzendari, mediku, dantzari, kazetari, artista, kirolari... egin diezaiegun gorazarre, behingoz.



Haurrentzako eta gurasoentzako estalpea

Txikitxokoa erabilgarri dago jada, eta, era horretan, erantzuna eman dio Udalak aurrekontu parte hartzaileetan boto gehien jaso zituen eskariari. 0 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, eta gurasoek kudeatutako gunea izango da

Xabi Gorostidi ARRASATE

Eguraldi txarra egiten duenean, erdigunean batez ere, haurrekin jolasteko leku gutxi daudela aldarrikatu izan dute Arrasateko gurasoek. Baina eskari horren atzean dagoen babesa argi azaleratu zen 2018ko aurrekontu parte hartzaileetan, Txikitxokoa sortzea izan baitzen proposamen botatuena, 643 punturekin.

Hala, jasotako enkarguari erantzuna emanez, atzo estreinatu zuten Arrasateko lehen Txikitxokoa udal ordezkariak. Lokala Maalako errebaleko Okendo jauregiaren beheko solairuan egokitu dute behin-behinean, lehen Okendo Kirolak denda zegoen tokian. Haren alokairua Udalak ordainduko du, baina asmoa da urte batzuk barrenean udal jabetzako lokal bat erabiltzea horretarako.

Astelehenetik domekara egongo da irekita, goizez eta arratsalde, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Jolasteko

gunea bat izateaz gain, edoskitzeko espazio egoki bat ere izango da, baita gurasoen arteko harremanak eta elkartrukea sustatzeko ere. Udala arduratu-ko da lokala irekitzeaz eta ixteaz, mantentze eta garbiketaz, baina lokalean bertan ez da udal langilerik izango. Erabilera egokirako arau hauek zehaztu dituzte: 0 eta 6 urteko umeentzako izatea, gunea garbi mantentzea, koltxoneta gainean ibiltzeko zapatak kentzea eta joan aurretik dena txukun uztea.

Estalpean jolasteko aukera emateaz gain, honako balio hauek lantzeko balio izatea nahi dute udal arduradunek: euskara eta euskal kultura sustatzeko, inklusibitateko, parte hartzerako, elkarrekintzarako eta errespeturako, besteak beste. Gune berriko erabiltzaileekin komunikazio bideak izateko, gazteria@arrasate.eus helbidea jarri dute, esperientzia berriarekin lotutako proposamenak egiteko.



Okendo Kirolak denda ohia Txikitxoko izateko egokitu du Udal Gobernuak. M. REGUEIRO



POLI KARPO

Herriko talde batekin, goraino

Arrasateko gaztetxea leporaino bete zen bariku gauean The Potes taldeak diskoa aurkezteko egindako kontzertuan. Screammers And Sinners taldearekin beroketa lanak egin ostean, The Potes zazpikoteak emanaldi gogoangarria egin zuen, hainbat kolaboraziorekin lagunduta. Pozgarria gaztetxea beteta ikustea, bertako taldeek egindako kontzertu batean.

Gabônetako 50 otarreren zozketa

Egin zure erosketak Arrasaten abenduaren 15era bitartean eta lortu hauetako saski bat



Otarreen banaketa. Abenduak 15. Harresian Zuloren kontzertua bitartean.

Arrasateko kultura gida eta promozio gehiago

www.ibaiarte.eus



Sasoiko argazki onenak prisma urretxuarra du

Pablo Perez urretxuarrak irabazi du Artgazkiren Udazkeneko Lehiaketa. Aurtengo edizioan, 61 argazkilarik hartu dute parte eta 171 argazki izan dira lehian. 45 onenekin erakusketa egingo dute; saltzeko, eta batutako dirua Aspanogiri emateko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Artgazki elkarteak antolatzen duen Udazkeneko Lehiaketako saridunak aukeratuta dituzte jada, eta podiumean bi arrasatear daude.

Hala ere, podium horretako lehen koxka Pablo Perez urretxuarrak lortu du, *Bajo el cielo* izeneko argazkiarekin. Behetik gorantz aterako argazkia da, udazkeneko zuhaitzen edertasuna eta koloretasuna primeran izoztea lortzen duena. Zuhaitz bat du argazki erdian, eta, enkoadraketa esker, inguruko zuhaitz guztien epizentroa dela ematen du.

Alfredo Losada arrasatearrak bigarren postua lortu du *Aterkin urdina* titulua duen argazkiari esker. Konposizio berezia du; marra zuzenek agintzen duten enkoadraketa du, eta baita bertako oreka hausten duten bi elementu: zuhaitz baten hostoak eta kalean oinez doan pertsonaren aterki urdina. Nabarmenezkoa da Losadaren ausardia; izan ere, udazkena plasmazeko, naturaguneak baztertu eta hirigunea aukeratu du.

Podiumeko azken koxkan, Benja Ramosen *Otzarreta* argaz-

kia geratu da. Argazki klasiko bat da, udazkeneko basoen elementuak modu ederrean batzen dituen. Detaile moduan, eskualdean, maisuki izoztutako eguzkiaren arrastoa ageri da, zuhaitzen arramen zirrikituetatik pasatzen ahalegintzen dena.

45 onenak, saltzeko prest

Epaimahaia Jessica Del Campo, Ane Idigoras eta Iker Iglesias argazkilarik profesionalak osatu dute. Hiru onenez gain, jasotako 42 argazki onenak ere aukeratu dituzte. 45eko bilduma hori, lehenik eta behin, herriko lokaletan zehar banatuko dute: Kajoi, Itzala, Zuk Nahi eta Ezkiña tabernetan, Udalaiz mediku zentroan, Eye dendan eta Uribealgo Aseguruen bulegoan. Ostean, hilaren 12tik 16ra, Kultureteko klaustroan jarriko dute bilduma, erakusketa gisa.

40x50 formatua izango dute koadroek, eta, gutxi gorabehera, 25 euroren bueltan erosi ahalko direla azaldu dute Artgatzkiko antolatzaileek. Aurten, beste behin, koadroak salduz batutako dirua Aspanogi elkarteari emango diote. Iaz, adibidez, 1.020 euro batzea lortu zuten.

OHARRAK

Pentsiodunak

Astelehenean Herriko Plazan elkartuko dira, 12:00etan.

'Big data' hizpide

Goi Eskola Politeknikoan, hilaren 11n, 18:30ean.

Murala Makatzenan

Muralart-en lau diseinuren artean gustukoena botatu daiteke udal webgunean.

Migrazioa antzerki bidez lantzen duen obra, ostegunean

Murren bidaia haurrei zuzendutako antzerkia da, zailtasunen gainetik dagoen adiskidetasun istorio bat kontatzen duena. Umorearekin, poesiarekin, eta hizkuntza zuzen batekin, migrazioari buruzko estereotipoak eta aurreiritziak lantzea du helburu. Hitzordua egunean da, 18:00etan, Kultureteko areto nagusian.

EROSKI SELEQTIA

Gonbidatu, ospatu, partekatu.

Bazkide bazara
2. alea
-%30
EROSKI SELEQTIA
produktu GUZTITAN

EROSKI
ARRASATE

Musekola z/g ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



Pablo Perezen *Bajo el cielo* argazki irabazlea. ARTGAZKI



Basotik egurra ateratzeko lanez ohartarazten duen kartela, Untzillan. J.I.

Garestitu egingo da neguan egurra ateratzea

Ordenantza aldatzeko lanean ari dira udalbatzako alderdiak. Giro kaxkarrarekin hondatu egiten dira bideak, eta Udalak nahi du tasak eta bermeen zenbatekoak handiagoak izatea sasoi horretan, eta kontrol-lan zorrotzagoa ere egingo du, gainera

Julen Iriondo ARAMAIO

Lehendik ere mahai gainean zegoen gaia zen, eta urriko oso bilkuran atera zen berriz ere, ibilgailu astunek landa eta baso bideak erabiltzearen gaineko ordenantzaren zenbatekoak eguneratu behar zituztela-eta. Bertan planteatu zuen EAJk ibilgailu astunei neguan bide horiek erabiltzea debekatzeko aukera –eta, ondorioz, basoetatik egurra ateratzeko–, eta gaia ondo aztertu beharrekoa zela iritzita, batzordean lantzekotan geratu ziren EH Bildurekin.

Tarte honetan bildu dira bi alderdietako ordezkariak, eta ordenantzan egingo dituzten aldaketan nondik norako nagusiak adostu dituzte; debekua beharrean, neguan tasa eta bermeak handitzea da erabaki dutena, bikoiztea: "Horrez gain, zorrotzagoak izango gara neguan jarduera ikuskatzerakoan, eta ikusten badugu kalteak gertatzen ari direla, geratu egingo ditugu lanak", dio arloko batzordeko

burua den Jon Ugartek, aitortuz orain arte ez dela halako zorrotasunik egon, nahiz eta ordenantzak esan Udalak baduela lanak gelditzerik, bideen erabilerarekin arazoak egonez gero.

Debekurik ez, hortaz; garestitzea, bai. Ugarteren arabera, izan zen garai bat neguko debekua indarrean egon zena, baina hori aldatu egin zen: "Negu onak ere izan ditugu, eta sektorearentzat, egur zaleentzat, arazo bat zen, eta baita lur jabeentzat ere; eta Udalarentzat ere bai. Udalak ere baditu pinudiak, eta askotan berak ere etsenplu txarra eman izan du: basoak adjudikatzeko, prozesu bat jarraitu behar izaten da, eta prozesua luzatu egiten da askotan, eta

BALIZKO DEBEKUAREN AURREAN, SEKTOREAK ZIOEN LANPOSTU ASKO EGONGO LIRATEKEELA JOKOAN

egurra udan atera nahi izan arren, negua gainera etortzen da, iaz gertatu zitzaigun moduan eta aurten gertatu zaigun moduan; Aramaioko Udala bera dabil neguan egurra ateratzen. Orduan, esaten genuen: 'Nola debekatuko diegu beste batzuei, geu ere horrela ibiltzen bagara?'. Eta egur zaleek balizko debekuaren gainean esateko zutena ere entzun dute: "Eurentzako kalte handia zela esaten ziguten, hurrengo urteetan egur asko aterako dela [are gehiago, pinuen gaitzarekin], lanpostu asko dau dela jokoan...". Hortik baldintzak zorrotzea, debekatu beharrean.

Horrekin batera, Udalak iraungitze data jarriko die hainbat lur-jaberekin indarrean dituen akordioei. Akordio horiek tasetan baldintza bereziak jasotzen dituzte, adibidez; esaterako, bide bat zabaltzeko jabe batek bere lur zati bat eman izanaren truke. Baina akordiook ez zuten amaiera datarik, eta orain, jarri egingo diete.

Pinuen gaitzarekin lotutako bilera eta saio gehiago herrian

Interes handia piztu zuen azaro amaieran pinuen gaitza dela-eta egindako mahai-inguruak, eta datozen asteetan ere izango dira gaiarekin lotutakoak. Arabako basozainen elkarteak, batetik, informazio batzarra egingo du hilaren 11n, 17:00etan, kultura etxean; hilaren 20an Arabako basogintza elkartearen hitzaldia izango da leku eta ordu berean.



Azaro amaierako saioa. ARAMAIOKO UDALA

Aitor Ugarterekin buruz burukoan, saria Arrizubietarentzat

Gasteizko Hala Bedi tabernan jokaturako Bertsoko sariketako finalean, txapela lortzetik gertu ibili zen Aitor Ugarte aramaioarra. Sei bertsolariren arteko lehian –Martin Abarrategi ere bai tartean–, Ugarte eta Aroa Arrizubieta iritsi ziren buruz burukora, eta, azkenean, gasteiztarra izan zen, epaileen ustez, lan onena egin zuena.

Amillena elkartearen beste bisita gidatu bat, domeka honetan

Aramaio ezagutu izenburudun bisita izango da, 11:00etan euskaraz eta 12:30ean gaztelaraz. Santa Ana ermitatik aterako da, eta ordubeteko izango da –4 euro–. Kasu honetan, eta askorentzat egunotan hainbat jaiegun jarraian izango direla eta, Gorbela Euskadiren egitarau zabalago baten barruan ere sartu dute bisita.

OHARRAK

Kontratazioa: bi peoi

Hiru hilabeterako eta lanaldi erdian nahi ditu Udalak. Hilaren 14an Lanbiden *Peoi orokorra* kategorian izena emanda dauden artean egingo dute hautaketa.

Katastroa dela eta

Balioak eguneratu dituztela eta, Aldundiko ordezkariak Aramaion izango dira hilaren 12an eta 13an –udaletxean–.

NIRE USTEZ

MANEX
ARRIOLABENGOA

Zirkulua

Denbora zirkulu lau batean oinarritzen da; izan ere, behin eta berriz gertaera berdinak errepikatzen dira.

Mundu honetan ez da ezer erabakitzen.

Denbora zirkulu lau bat da, egin dugun guztia eta egingo duguna behin eta berriz errepikatuko baita.

Egia da guk denbora linealki aurrerantz doala sentitzen dugula.

Edozelan ere, geure burua gure espazio denboratik kanpo ateratzea lortuko bagenu, denbora zirkulu lau bat dela konturatuko ginatke eta kotxe zirkuitu batean bezala bueltaka eta bueltaka ibiltzen garela ohartuko ginatke, zeharo harrapatuta.

Horregatik, ezer ez da aldatzen.

Eta, hain zuzen ere, esandako horren guztiorren azken froga nabarmenena aurreko domekan izan ziren Andaluziako hauteskundeetan daukagu.

Argi dago-eta gizakiok, gizarte bezala, ez dugula iraganeko ondorioetatik ezer ikasten.

Alegia, historia beti bilakatzen baita berdin eta berriz ere zirkulu baten poderioz bueltatzen baikara arrisku eta zulo berdinetara.

Udala eta merkatariak bat eginda Gabonak girotzeko

'Puigdemont' etorri da, herritarrek Aretxabaletan kontsumitzera animatzeko, "ni ausartu banaz zu be ze arraixogatik ez" esanez; AZ Visual Mediak egindako iragarkiarekin batera, abendurako antolatutako ekintzen eta eskaintzen berri eman dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Ohi baino lehenago iritsi dira aurten Gabonetako argiak herriko kaleetara, baita Olentzero eta beste hainbat pertsonaia ere, *Puigdemont*, adibidez. Gabonak girotzea eta herriko merkatari-tza sustatzea helburu duen iragarkiarekin grabatze lanak izan dira horren arrazoia. Atzo aurkeztu zuten AZ Visual Mediako kideek Udaleko eta Aretxarte merkatari-tza elkarteko kideekin batera, eta, beste behin, harrituta utzi dituzte herritarrek.

Aretxabaletako Udalak eta Aretxarte merkatarien elkarte-ko kideek egitarau berezia ger-

tatu gura izan dute aurten ere. Eta eragile ezberdinen arteko elkarlana nabarmendu dute biek ala biek.

Azoka, zozketak eta opariak

Artisau, ekoizle eta merkatarien azoka izango da Gabon atariko izarra. Abenduaren 15ean –egun osoz– eta 16an –goizez– egingo dute Herriko Plazan jarriko den karpa azpian. Horiekin batera hainbat elkartetako kideak izango dira, Harreman dendakoak eta Hiruatxekoak, esaterako; azken horiek Hotz Oñatiri eta Hermansoloña GKeri lagunduko

diete abian dituzten kanpainetan. Horiez gain herriko musikari eta liburu egile bana ere elkartuko dira azken lanak aurkezteko.

Bestetik, arrakasta handia izan ohi duten bonuak jarriko ditu Udalak herritarren eskura; 20 euro ordaindu eta 30 euro gastatzeko. Arkupen eskuratu ahal izango dira horiek. Aretxarteko kideek, oster, zigiluen kanpaina dute abian. Sei zigilu lortutakoan zozketan parte hartzeko aukera dute herritarrek; sariak izango dira 200 euroko bonua, asteburu pasa bat eta 50 euroko 38 bonu.

Merkatariek azken urteotan kaleratu izan duten egutegia ere jasoko dute herritarrek.

Erakusleho dotoreenari saria

Egunotan hasi dira erakuslehoak apaintzen merkatariak, izan ere, gaurtik abian da lehia-keta. Kalitatea, publizitate mezua-ren imajinazioa, originaltasuna, eraginkortasuna eta argien erabilera hartuko ditu kontuan, besteak beste, epaile lanak egingo dituen aditu batek. Bi sari banatuko dituzte abenduaren 28an: nagusia –plaka eta 300 euroko bonua– eta Gabon mezu onenarena –150 euroko bonua–.



Udal ordezkariak, Aretxartekoak eta AZ Visual Mediakoak egitaraua aurkezten. GOIENA

Bertso liburua jasoko dute iaz jaiotakoek Lekaixokaren eskutik

Igor San Juan musikariak girotutako ekitaldian banatuko dute, hilaren 12an, eguaztena, Arkupen

M.A. ARETXABALETA

Bertso liburua egin diete 2017an jaiotako neska-mutikoei Lekai-xoka bertso eskolako kideek, Udalaren laguntzarekin. Banatze ekitaldia eguaztenean, abenduaren 12an, izango da Arkupen

(18:30). Igor San Juan musikari aretxabaletarrak girotutako ekitaldi goxoa eskainiko diete umeei zein horien senideei.

Laugarrenez egin dute jaioberrindako bertso liburua, eta aurten, 40 bat ume jaso dituzte.

Horiendako bertsoak gertatzen, oster, Lekaixokako hamar kide ibili dira urriaz geroztik. Umearen datuak eta haien gaineko argibideak jaso zituzten izena ematerakoan, eta horiekin osatu dituzte bertsoak. Argazki bana ere jarri diete alboan.

Ilusio handiarekin jaso izan dute gurasoek liburu hori aurreko urteetan: "Opaki ezin politagoa da". Bertso eskolako kideek, berriz, pozik egiten duten lana da: "Bertsolaritzara gerturatzeko lehen urratsa".

Udalak eta Aretxartek antolatutakoak

Azoka: abenduak 15-16

- **Ekoizleak:** Herriko artisauak, baserritarrek eta merkatariak.
- **Elkarteak:** Hiruatx-Harreman, Gu Haziak Gara eta UDA.

Bonuak eta zigiluak

- **20+10:** 20 euroko bonua erosi eta 30 euro gastatzeko. Arkupen salgai (pertsonako bat).
- **Zigiluak:** Aretxarten egindako erosketa bakoitzeko zigilu bat jaso eta zozketan parte hartu.

Egutegiak eta aterkiak

- **Egutegiak:** Merkatariek egindako egutegiak opari.
- **Aterkiak:** Dendetan aterkiak erabilgarri.

Erakusleho lehiaketa

- **Hilaren 5etik 28ra:** Herriko denda guztiak.
- **Bi sari:** Nagusia eta euskarazko mezu onena.

Bideoa

- **Iragarkia:** Herriko merkatari-tza sustatzeko AZ Visual Mediaren bideoa Kepa Errastirekin.

Horiekin batera ekitaldi ugari antolatu ditu Kultura Sailak Gabon egunak girotzeko: gospel kontzertua, bertso jaialdia eta hainbat antzezlan, esaterako.

Gabonetako egitaraua

Musika

- **Akordeoi kontzertua:** Neza Torkar eta Maria Zubimendi. Abenduak 6 (19:30, Arkupe).
- **Organo kontzertua:** Aitor Olea; Abenduak 7 (20:00, eliza).
- **Leizarra musika eskolako emanaldia:** Abenduak 18 (18:00, Herriko Plaza).
- **Organoa eta kantua:** Abenduak 23 (20:00, eliza).
- **Gospel kontzertua:** Ispirit taldea. Abenduak 26 (20:00, Arkupe, 4 euro).

Antzerkia

- **Patata Tropikala:** *Denboraren taupadak*. Abenduak 8, (17:00, Arkupe, 3 euro).
- **Pantzar:** *Kolorez kolore*. Abenduak 15 (11:30, Arkupe, debalde).
- **Kurtzebarri eskolakoak:** *Kirol etxea*. Abenduak 19 (17:30, Arkupe).
- **Kurtzebarri eskolakoak:** *Zaletasuna, neurtu beharreko sentimendua*. Abenduak 20 (17:30, Arkupe).
- **Txalo produkzioak:** *Zoaz bake santuan*. Abenduak 27 (19:30, Arkupe, 4 euro).

Bertso jaialdia

- **Bertsolariak:** Maialen Lujanbio, Jone Uria, Aitor Mendiluze, Unai Agirre. Abenduak 28 (19:00, Arkupe, 4 euro)

Jou Díaz

Karakina
 Loramendi 1
 Tel.: 943 79 71 69
 20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
 Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
 ARETXABALETA



Heldu bat eta bi ume Kuku Mikuren egoitzan, jolasean. GOIENA

Umeen eta gurasoen topagune den elkarte

Osasuntsu jarraitzen du lanean Kuku Mikuk sei urteren ostean; 47 familia inguru dira bazkide gaur egun eta umeendako kontuak eta gurasoendako trebakuntza saioak antolatzen dihardute; abenduaren 17an, doluaren gaineko solasaldia izango dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Orain dela sei urte ekin zion ibilbideari Kuku Miku elkarteak, eta osasuntsu jarraitzen du lanean. Egun, 47 bat familia dira bazkide, eta 0 eta 6 urte arteko 60 bat neska-mutiko elkartzen dira han, Durana kalearen atzeko partean duten egoitzan –Gurea taberna alboan–.

Trebakuntza saioak

Haurren garapenerako elkarte da, eta haurrentzat eta gurasoentzat erreferentziatzeko topaleku izateko helburuarekin sortu zen. "Haurrei jolasaren eta elkarrekintzaren bidez garatzeko espazio bat eskaintzeaz gain, gurasoen gogoetarako eta formaziorako gune ere izan nahi du Kuku Mikuk", adierazi du Oihana Garcia Insaustik, ekintza antolatzaile taldean dagoen kideak. Horretarako, ikasturte osoan zehar garatzen diren jarduerak iraunkorrak dituzte, hala nola komunikazio ez bortitzean aditua den Nerea Mendizabalek

gidatzen duen guraso-eskola. Horrez gain, hilean behin gurasoentzako hitzaldiak, tailerrak edo ikastaroak antolatzen dituzte: "Haurren larrialdietarako lehen sorospinak, elikaduraren eta loaren gainekoak, motxila eramangarriari buruzkoak, matematikaren gainekoa... Gaiak oso zabalak dira, eta edonorendako", dio Garcia Insaustik. Izan ere, trebakuntza-saio horietara interesa duen edonor gertura daiteke, bazkide izan edo ez.

Umeendako ekintzak ere izaten dituzte, ipuin kontaketa eta txotxongilo tailerrak, besteak beste. Bazkideak, gainera, edozein unetan gertura daitezke egoitzara, umearekin lasai egoteko, jolasean jarduteko edo

HAURREN GARAPENERAKO ELKARTEA DA, TREBAKUNTZAREKIN LAGUNTZEKO GUNEA

ipuinak kontatzeko. "Negu partean eskaera handiagoa dago, baina betekadarik ez da egon izan. Uda sasoiari, osterara, geratu egiten ditugu aktibitateak". Sei urte bitarteko umeendako izan arren gehiengoa hiru urtetik beherakoa dela gaineratu du Garcia Insaustik.

Doluaren gaineko hitzaldia

Doluaren gaineko saioa egingo dute abenduaren 17an, astelehena, 17:30ean, pare bat orduz. Eider Otxoa aretxabaletarrak gidatuko du, eta heriotzaren gainean egingo die berba: "Umeek heriotza zelan bizi duten adieraziko digu, aholkuak eman gurasooi eta material lagungarria eskura jarri; liburuak, esaterako".

Urtarrilean, osterara, azaroan egitekoak ziren lehen sorospinak gaineko ikastaroari helduko diote – data oraindik zehaztu barik–. Horretarako, Debagoieneko ospitaleko mediku bat eta erizain bat etorriko dira.



Ion Albizu eta Juan Karlos Izagirre elkarrekin, atzo, Durana kalean. M.A.

Herritarren kezka entzun dituzte Izagirrek eta Albizuk

Aurrez aurre duten erronkari heltzeko gogotsu agertu ziren biak ala biak Taberna Barrin egindako solasaldian

M.A. ARETXABALETA

Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusi izateko EH Bilduren hautagai den Juan Karlos Izagirre elkartu zen atzo, martitzena, Ion Albizu alkategaia-rekin, eta Aretxabaletak eta Gipuzkoak dituzten erronken gainean jardun zuten. Herritarren kezka eta iritziak ere entzun zituzten.

Albizuren proposamenak

Azken agintaldian egindako lanarekin "pozik" agertu zen Albizu, eta bide horretatik lanean jarraitzeko gertu: "Politikak ezartzen dituen arauak apurtu ditugu batzuetan: politika desdramatizatu dugu, eskuzabalak izan gara, proposamen ausartak egin ditugu, eta inportanteena, jendea ahalduzko ahalegin handia egin dugu".

Udal Gobernuak "noraezean eta irizpiderik gabe" ikusten duela

gaineratu zuen, eta horren aurrean gobernu sendoa osatzeko nahia agertu: "Gobernatu irizpide argiekin baina zabalik aldi berean". Eta herritarren bizi-modua hobetzeko egingo lukeen lanaren berri eman zuen: mendekotasunaren atentzioa lehetsi, gazteendako proiektu zehatzak proposatu eta merkataritza laguntzak, besteak beste. Gizartea aktibatu beharra ere azpimarratu zuen.

Herritarren galderak

Herritarrek ekitaldian bertan zein aurretik galdetzeko aukera izan zuten. Hala, garraio zerbitzuaren, politika feministen eta mendekotasun politiken gainean agertu zuten interesa, eta Izagirreri galdetu horiek. Albizuri, osterara, herriko kontu zehatzen gaineko iritzia eskatu zioten, hala nola obrak, drogak eta animalien gaineko ordenantza.

Berdintasunean hezteko hitzaldia Kurtzebarri eskolan

Kurtzebarri eskolako Gurabarri guraso elkarteak hitzaldia antolatu du egunerako, abenduak 13, eskolan bertan (17:30): *Nola hezi gure haurrak berdintasunean?* Huheziko irakasle Amelia Barquinek gidatuko du eta galdara horren gaineko argibideak emango ditu. Era berean, gurasoek dituzten zalantzak argitzen ere saiatuko da.

Ana Galarragaren saioan izena emateko azken eguna

Elhuyarko kide Ana Galarragak gidatutako *Zer gertatuko litzateke Frankenstein berpiztuko balitz?* ipuin kontaketa saioa izango da abenduaren 13an (17:30) liburutegian, 7 eta 10 urte bitarteko umeendako. Zientzian oinarritutako saioaren plazak mugatuak dira; horregatik, aurrez eman behar da izena ludotekan. Gaur, hilak 5, da azken eguna.

Gabonei ongietorri gisa, argiak piztuko dituzte

Gaurko ekitaldian, honako ekintza hauek izango dira Fernando Eskoriatza plazan: apaingarriak egiteko haurrentzako gunea, txokolate-jana, 'Merkatari' aplikazioaren bideo proiektzioa, Gabonetako argien piztueria ekitaldia eta koloretako su artifizialak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzan, beste herrietan moduan, deseaten daude herri-tarrak Gabonetarako. Hori horrela, motorrak berotzen joateko, Gabonetako argiak piztuko dituzte gaur, eguaztena Fernando Eskoriatza plazan.

Piztueria ekitaldi horrekin batera, egitarau ederra antolatu du Udalak, eta ekintza horiekin emango diete hasiera Gabonei, Eskoriatzan. Hasteko, umeentzako eskulan tailerrak izango dira, iaz moduan, eta horiek egiten laguntzen ludotekako begiraleak izango dira. Horrekin batera, *Merkatari* proiektuko kideak ere bertan izango dira aurten, trebezia jokoekin. Hori horrela, Gabonetako apaingarri ezberdinak egiteko eta jolas ezberdinak probatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen diren haurrek. 18:00etan, berri, txokolate-jana izango da herri-tarrentzat. Kultura etxeko erretiratuaren tabernatik banatuko dute txokolatea, eta bakoitzak bere edalontzia eramatea eskatu dute antolatzaileek.

Merkatarien Iragarkia

19:00etan, aldiz, astelehen hone-tan aurkeztu berri duten *Merkatari* aplikazioaren aurkezpene ingo dute herri-tarren aurrean. Horretarako, herriko komertzioetako egindako iragarki bideoa proiektatuko dute plazan. Aurkezpenean adierazi zuten moduan, Eskoriatzako 36 komertzio hartu dute parte proiektuan eta aplikazioaren helburua herriko merkatarien eta bezeroen arteko komunikazioa hobetzea da. Hala, zozketa ere jarriko dute martxan, bihartik aurrera aplikazioa erabiltzen dutenen artean.

Hori amaitzean, Gabonetako argiak piztuko dituzte, Juan Karlos Zubiak botako dituen koloretako su artifizialekin lagunduta.



Gabonei ongietorria egiteko, argiak piztuko dituzte. IMANOL BELOKI

Argiak herri osoan

Argien piztueria Fernando Eskoriatza plazan egingo da, baina, agintaldi honen hasieratik, herriko zazpi elizateetan ere jarri izan dituzte urtero Gabonetako argiak. "Aurreko urteetan, eli-

zate guztietan jarri izan ditugu argiak, Zarimutzen izan ezik. Horiek Marulandan jarri izan ditugu, baina, beraien eskaria betez, elizatean bertan ere jarri ditugu aurten", adierazi du Joserra Zubizarreta alkateak.



Udal ordezkariak, *Merkatari*-ko Raul Uriarte eta Asier Amutxastegirekin. I.B

'Merkatari' aurkeztu dute

Astelehenean egin zuten *Merkatari* aplikazioaren aurkezpene osoko bilkuren aretoan. App-aren funtzionamenduaren, gaurko ekitaldian eskainiko dituztenen eta aurrera begira egin nahi dituzten zozketen berri eman zuten, besteak beste.



MAIDER ETXANIZ

Euskarazko jostailuak probatzen

Astelehenean ireki zuten euskarazko jostailu erakusketa kultura etxean, eta gaur ere, 17:00etatik 19:30etara bitartean ere egongo da aukera bertara joan eta jostailu ezberdinak ikusi eta probatzeko. Hori horrela, jende dezente izan da bertan zer dagoen ikusten, eta, euskarazko mahai jolasez gain, bestelako hizkuntza batzuetakoak eta kooperatiboak direnak ere ikusi ahal izan dituzte herri-tarrek.

Nerabeen irteera: Durangoko Azokara egubakoitzean

Abenduaren 5etik 9ra bitartean, Durangoko Azoka izango da. Bertan, Landako gunean ehun standetik gora batuko dira, euskal kulturaren plaza bihurtuz. Hala, Durangoko Liburu eta Disko Azokara egingo dute irteera Eskoriatzako gaztelekuko nerabeek, egubakoitzean.

10:00etan irtengo dira eta 18:00etan izango da itzulera. Durangora doazene bost euro ordaindu beharko dute, eta bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du. Izena emateko azken eguna eguna izango da. Horretarako, Eskoriatzako gaztelekuko hezitzaileei *whatsapp* mezua bidali beharko zaie, asistentzia konfirmatzeko.

Abenduaren 16an mendi irteera egingo dute Albertiara

Makilla eskuen eta ibili basuen egitasmoa kideek antolatuta, Arlabango mendilerroan dagoen Albertiako landetara joango dira abenduaren 16an. Irteera 10:00etan izango da, Fernando Eskoriatza plazan hasita; hala ere, bi bide daude Albertiara joateko: Landatik edo Legutiotik. Hori horrela, plazatik irten beharrean, 10:30ean Landatik irteteko aukera ere izango du nahi duenak.

Familiei zuzendutako irteera da, baina edozein herri-tarrek hartu dezake parte. Mendi irteerara joateko ez da izenik eman behar, baina haurrak ezingo dira bakarrik joan. Heldu batekin lagunduta joan beharko dute.





Eskoriatza taldeko jokalaria baloiarekin. IMANOL SORIANO

Eskoriatza hirugarren postuan da sailkapenean

Asteburuan ligako partidurik ez duten arren, gaur, Gipuzkoako kopako final-laurden partidua jokatu du Euskal Ligan ari den Eskoriatza areto futbol taldeak. Partidua Tolosan izango da, 20:00etan, Herrikide taldearen aurka

Imanol Beloki ESKORIATZA
Euskal ligan ari den Eskoriatza areto futbol taldeak pauso handiak eman ditu azken asteetan. Izan ere, lau jardunalditan jarraian lortu du garaipena, eta, pasa den astean, Manuel Muñoz kiroldegian, Scalibur taldeari 10-3 irabazita, hirugarrena da sailkapenean.
Iker Molinaren mutilak pozik egoteko moduan daude; izan ere, emaitza bikainak lortzen ari dira azkenaldian. Denboraldiurrean egindako lana azaleratzen ari da taldea, eta hori emaitzetan nabari da. Liga ez zuten hain ondo hasi, baina taldea egonkortu eta sendotu egin da partiduz partidua. Hala, sailkapene-

ko goiko postuetan sartu dira, eta orain, bertan mantentzea dute helburu: "Lehenengo itzulia amaitzeko bi partidu geratzen zaizkigu, eta helburua lehenengo postuan amaitzea da. Azken emaitzak onak izan dira, eta bide horretatik jarraitu behar dugu", adierazi du Iker Molina entrenatzaileak.
Gaur, Gipuzkoako kopakoa
Gaur, 20:00etan, Herrikide taldearen aurka Tolosan jokatu dute Gipuzkoako finalurrekoen kopako partidua. "Zubian, atsedena izango dugu, baina gaurkoa irabaztea gustatuko litzaiguke. Kopan sailkatzen bagara, talde oso onen kontra

jokatu beharko dugu, baina gogotsu gaude".
Emakumezkoek, atsedena
Abenduko zubian atsedena izango dute Eskoriatzako senior mailako emakumezkoek. Indarrak hartu ostean, berriz, hurrengo bi jardunaldiak etxean jokatu dituzte. "Abenduaren 21ean, ligako partidua izango dugu Trintxerperen aurka eta abenduaren 21ekoa, aldiz, kopakoa, Laubururen aurka. Hala, azkenaldian ondo jokatzen ari garen arren, golak sartzea falta zaigu. Horrez gainera, zaleekin oso pozik gaude. Azkenaldian, geroz eta jende gehiago dator gu ikustera".

Sanandresak ospatu dituzte

Azaroaren 30ean izan zen San Andres eguna, eta Eskoriatzako Eraña auzoan domekan egin zuten ospakizuna Leteko, Bolibarko eta Eraña auzotarrek, beste hainbat herritarrekin batera. Hori horrela, San Andres baselizan meza izan zuten lehenbizi, eta gero, luntxa izan zen gerturatu ziren guztientzat. Gutxi gorabehera, 50 lagun batu ziren bertan.



GOIENA

LEINTZ GATZAGA 21



Arlo teorikoa lantzen atera zuten argazkia. AINHOA BARANDIARAN

Autodefentsa feminista tailerra "arrakastatsua" izan da

Arlo teorikoa eta praktikoa landuz, saio gehiago antolatzeko gogoia adierazi dute antolatzaileek

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA
Pasa den zapatuan, autodefentsa feminista tailerra izan zuten Leintz Gatzagan. Lehenengo saioari, urriaren 27an egin zuten tailerrari, jarraipena emanez, autodefentsa defentsa ikastaroko bigarren zatia izan zuten. Hori horrela, arlo teorikoa eta praktikoa landu zuten bertan batu zirenek, eta balorazio oso positiboa egin dute antolatzaileek.
"Saio gehiago antolatzeko asmoa adierazi dute antolatzaileek, eta ez da gutxiagorako. Izan ere, bi saioetan oso gustura izan gara joan garen guztiok, orokorra

izan da balorazioa. Gainera, ondo pasatu dugu, asko ikasi, eta baita dibertitu ere", adierazi du Garazi Orobengoak, saioan parte hartu zuen gatzagarra.
Kasu ezberdinak aztertu
Arlo teorikoa lantzean, indarkeria matxistaren problematika analizatu zuten. "Icebergaren puntatik harago joan ginen. Ezagutzen genituen kasu ezberdinak aztertu genituen, hauei nola aurre egin hitz eginez... Ondoren, hori praktikan jarri genuen, eta saio interesgarria izan zen".



MIREIA BIKUNA

Egungo ziklismoa hizpide

Euskal txirrindularitza izeneko mahai-inguruaren bueltan elkartu ziren pasa den egubakoitzean, Gatzagan, Euskadi Murias taldeko Mikel Bizkarra eta Trek eta Euskaltel Euskadi taldeetako kide izandako Haimar Zubeldia eta Ivan Velasco, hurrenez hurren. Dorletako Ama txirrindulari taldeko kideek gidatutako mahai-ingurura herritar asko gerturatu ziren.

Kadete mailaz harago, harrari eusteko lanean

Bergara Hiria eskubaloia txapelketa jokatu da domekan Labegaraletan (10:00): kadete mailako Debagoieneko eta Gipuzkoako selekzioak eta Bizkaiko Kukullaga taldea arituko dira lehian; 16-17 urterekin ematen dira baja gehien, eta joera horri aurre egin gura diote

Jokin Bereziartua BERGARA

Eskubaloian ere antolatu dute Bergara Hiria txapelketa, Bergarak hiri-gutuna jaso zuela 750 urte bete direla gogora ekartzeko ekitaldien barruan. Domekan jokatu da, Labegaraletan kiroldegian, 10:00etan hasita. Hiruko txapelketa moduan antolatu dute, kadete mailako nesken artean: Gipuzkoako selekzioa, Debagoieneko selekzioa eta Bizkaiko Kukullaga taldea izango dira lehen aldiz antolatu den Bergara Hiria irabazteko lehia-tuko direnak.

Partidu bakoitzak hogeita minutuko zati bana izango du eta honako hau izango da txapelketaren ordena: lehenengo, Debagoienaren eta Kukullagaren arteko lehia; gero, Gipuzkoaren eta Kukullagaren artekoa; eta, azkenik, Debagoieneko eta Gipuzkoako selekzioen artekoa.

Kadeteena, "maila kritikoa"

Muniategik dioenez, Gipuzkoako Federazioak kadete mailako taldeak indartzeko helburuan jarri du fokua, bereziki: "Kadete mailako kategoria da kritikoa, 16-17 urte dituzten nesken artean ematen dira baja gehien. Orduan uzten dute jokalaria gehienek eskubaloia". Hain justu, Debagoieneko eta Gipuzkoako



Kadete mailako taldea; kadeteetan eman ohi da baja gehien, Muniategiren arabera. BKE

ko selekzioak sortzearen helburuetako bat da jokalaria euren taldeetatik atera eta beste harreman batzuk sustatzea, jarraipena ahalbidetzeko.

Horregatik, Bergara Hiria txapelketa geratzeko etorri da: "Urtero asteburu berean antolatzea da asmoa. Debagoieneko eta Gipuzkoako selekzioak beti etorriko dira eta beste taldea aldatzen joango da; saiatuko gara selekzio bat izaten. Aurten, esaterako, Akitaniako selekzioa ekartzen saiatu gara, baina, azken orduan, ez da posible izan".

Senior mailakoa osatu guran

Amaitzeko, Muniategik dio Bergarako nesken eskubaloia sasoi onean dagoela, lau talde dituzte: errendimenduko alebin taldea, infantil mailako taldea, kadete mailakoa eta gazte mailakoa. Hala ere, orain erronka da senior mailako taldea osatzea, oso garrantzitsua delako harrobiko jokalarientzat goian erreferenteak izatea: "Duela lau urte ez genuen neskari; talde bat hasi zen eta haiei jarraika etorri dira besteak. Ea kate osoa osatzerik dugun 2019an edo 2020an".


Gabonetako kontzerturako sarrerak gaurtik eros daitezke

Asteburuan Seminarixoko leihatilan (18:00-20:00) erosi ahal izango dira; internetez eta kontzertu aurretik ere bai

J.B. BERGARA

Abenduaren 22an izango da Gabonetako kontzertua, frontoian, 20:30ean hasita. Urtero legez, Bergarako Musika Eskolak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Bergarako Orfeoia, Aritzeta abesbatzak eta Bergarako Musika Bandak hartuko dute parte hainbat bergararrendako urteroko hitzordu handietako bat den ikuskizunean.

Gaur, bihar eta etzi, 18:00etatik 20:00etara, erosi ahal dira sarrerak Seminarixoa aretoko leihatilan. Horrez gain, www.ticket.kutxabank.es atarian ere eros daitezke sarrerak; prezioa zortzi euro da eta pertsona bakoitzak, gehienez, sei sarrera eros ditzake. Kontzertuaren egunean ere, abenduaren 22an, 19:30ean irekiko dute frontoiko leihatila bertan ere sarrerak erosi ahal izateko.



Kontzertua, artxiboko argazkian. GOIENA

'Horra, horra!'-rako sarrerak

Gaur jarriko dira salgai abenduaren 23an Seminarixoa izango den *Horra, horra!* ikuskizunerako sarrerak, hiru eurotan. Umez osatutako hainbat abesbatza izango dira protagonista, bertakoak eta ingurukoak.

Ereindajan-ek gazta dastatzea antolatu du hilaren 12rako, Uberan

Ereindajan denda-topagunearen eta Uberako auzo elkartearen eskutik, "punta-puntako" gazta dastatzea egingo dute abenduaren 12an Uberako Jaolatza elkartearen (19:00). Antzuolako Pikunieta baserriko Josebe Blancok eta Aretxabaletako Gazteluko Haitz gaztaren ekoizle Lur Pagoagak gidatuko dute saioa: "Lehenengoak eskarmentu han-

dia dauka gaztagintza eta laborantza ekologikoan eta bigarren hasi berria da kontu horretan; gazta egiten hasi da antzina-antzina moduan. Fusio oso interesgarria izango da", adierazi dute antolatzaileek. Ogibidea gertutik ezagutzeaz gain, askotariko behi, ardi eta ahuntz gaztak dastatu ahaliko da.

Bestalde, Joan XXIII. plazan dagoen Ereindajan denda-topagunea zabalik egongo da bihar, Espainiako Konstituzioaren eguna: "Ez dugu zer ospatu", diote.



Abenduan,
%21eko BEZ barik!

Debagoieneko kontzesionario ofiziala
Arrasate • San Andres Auzoa 6
943 79 07 44/54 • 670 82 71 86
www.mugarri.eus



Euren biboteak enkantera atera aurretik, MovemBergara taldekoek "familia argazkia" atera zuten zapatu iluntzean. JON ANDUEZA

Bibote eta euro gehiago, handitzen doan "familian"

Gizonezkoen bizimodu osasuntsuagoa bultzatzea eta inaktibitate fisikoaren gainean kontzientziak piztea helburu duen MovemBergara ekimeneko kideak "oso pozik" daude aurtengo kanpainarekin; aurten 132 bibote izan dira, eta mila eurotik gora lortu dituzte

Jokin Bereziartua BERGARA

Gizonezkoen bizimodu osasuntsuagoa bultzatzea, prostata edo barrabila-minbiziaren, osasun mentalaren eta inaktibitate fisikoaren gainean kontzientziaraziolana eginda eta ikerketarako finantziaraziolana bilatuta. Horixe da 2003an Australian sortutako Movember fundazioaren misioa.

Bertsio bergararraren lehen hazia Miguel Altunan erein zen, duela sei urte: "Urtebete lehenago sortu zen Oñatikoa eta Alberto Larrea lankide oñatiarrak aurkeztu zigun. Oso kurio-soa iruditu zitzaigun eta duela bost urte utzi genuen lehen aldiz bibotea", gogoratzen du hasieratik ekimeneko parte den Joxu

Aranak. Hiru urtetan sortu zen MovemBergara. "Sekulako jauzia eman dugu; iaz 50 ginen eta aurten 132 bibote izan gara".

"Oso plurala eta oso giro polita"

Taldearen berezitasun nagusia, Aranaren ustez, haren pluraltasuna da: "Oso talde plurala gara eta oso giro ona dugu. Gazteenak 16 urte ditu eta zaharrenak 75 bat, eta denetarik egiten dakiten herritarrek daude". Horien artean musikariak ere badaude eta hortik irten da Azkaite Pelox eta haren bandak ekimenari eskaini dion kantua. Bestalde, aurten ekitaldi "ezberdinak" antolatu dituzte. Esaterako, kirola egitea gizonen bizimodu osasuntsua

sustatzeko "ezinbestekoa" dela sinetsita, zuzeneko musikaz girotutako spinning saio bat antolatu zuten. Horrez gain, zapatuan bibotea kentzeko aukera enkantera atera zuten, arrakasta handiarekin. "Enkante horretan 300 bat euro lortu ziren. Horri itsulapikoetan batutakoa eta antolatu ditugun afari eta bestelakoe-takoa batuta, mila eurotik gora batu ditugu; iaz 430 euro izan ziren". Nazioarteko Movember fundaziora bideratuko dute dirua.

Azken mezu bat ere luzatu gura izan du Aranak, hurrengo urteetara begira: "Aurten emakume gutxi batzuk ere batu dira ekimenera eta haien kopurua igotzea da taldearen helburua".

GORA ETA BEHERA



J.G.

Espaloi gaineko autoez kexu, Alkabieta kalean

Herritar batek salatu du "ohikoa" dela Alkabieta kaleko goiko argazkia: "Marra horia egon arren, espaloia autoz beteta dago askotan, nahiz eta Bergarako parking handiena ondoan dagoen".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Elena Lete, Goiena telebistako 'Harira' saioan, hilaren 11n

Goiena telebistak martitzenetan ematen duen *Harira* saioan, Debagoieneko alkate eta zinegotziak elkarrizketatzen dituzte, eta, datorren astean, Bergarako alkate Elena Lete (EAJ) izango da gonbidatua; 2016ko urtarri-laren 11n egindako osoko bilkuran izendatu zuten alkate Lete, Juanje Alberdik arrazoi profesionalengatik alkatetza utzi ostean. Hainbat gairen gainean galdetuko dio Eneko Azkarate kazetariak, baina herritarrek ere izango dute galderak egiteko aukera. Horretarako, bidali galdera, Whatsapp edota Telegram bidez, 688 69 00 07 zenbakira; edo, posta elektronikoz, berriak@goiena.eus helbidera.

OHARRAK

Euskarazko liburuak

Abenduaren 10etik 15era Elkar liburu-dendan erosten diren literaturazko liburuak merkeago egongo dira. Epe horretan egindako erosketak Jardunen bulegora eramanez gero, %50erainoko deskontuak egongo dira. Bi liburu jaso daitezke, gehienez.

Beart-ekoen lanak

Abenduaren 16ra arte, Beart elkarteko artisten lanak ikusi ahalko dira Aroztegi aretoan.

Juanjo Alvarez

Goienagusiren eskutik, Juanjo Alvarezek hitzaldia emango du Seminarixoan hilaren 10ean (10:00): *Nuevo estatus vasco y ponencia de autogobierno*.

disdira
ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak
Leihoak · Tarimak
Egur lanak

I21
KALITATA

Enpresa Registrada Nº00025



Lagun taldea, kroko parte-hartzea ospatzen. GOIENA

Mozorroak atera eta hartu parte kuadrillan!

Lagarrenez ospatuko da San Esteban eguneko krosa abenduaren 26an, eguaztena. Aurten, baina, kuadrillan eta festa giroan parte hartzeko dei egin du Udaleko Kirol Sailak. Mozorroak ateratzera animatu gura dituzte antzuolarrak, hain justu ere

Maidar Arregi ANTZUOLA

Bailara mailan errotuz joan den herri krosa da San Estebangoa. Aurten, baina, hasierako festa giroa berreskuratu gura dutela aitortu du Kirol zinegotzi Garaiz Larreak: "Hasierako jai giroa bueltatu dadin gura dugu; krosa ez da lehiaketa bat. Parte-hartzaileak mozerrotuta eta batez ere, kuadrillan, kamiseta

berdina jantzita, adibidez, ikusi gura ditugu. Lagarrenez egingo den krosak lehenak izan zuen kutsu bera berreskuratzea gura dugu". Gabonen atarian egiten den herri lasterketan, Antzuolatik ez ezik, alboko herrietatik ere etortzen dira. "Harrigarria da; izena Antzuolako udaletxean eta liburutegian bakarrik eman daiteke, eta Zumarragatik eta

inguruko herrietatik ere etortzen dira".

Abenduaren 10era arte izena eman daiteke San Esteban krosan. "Aurrez izena eman duten guztiendako sariak izango dira. Egunean bertan izena eman daiteke, baina horiek ezingo dute zozketan parte hartu". Iaz, 180 lasterkari pasatxok parte hartu zuen.

'Txori mezularia' ipuin liburua idatzi du 'Eltzikorta' presoak

Ataramiñe argitaletxeak Durangoko Azokan jarriko du salgai Joseba Erostegei 'Eltzikorta' -ren ipuin liburua

Maidar Arregi ANTZUOLA

Ilustratzaile lanak egin dituen Lorea Erostegei aitortu du, hasiera batean, familia giroan soilik gozatzeko idatzitako ipuin liburua dela *Txori mezularia*: "Lehengusuendako eta familia-errendako oparitzoa gura genuen egin; aurten joan zaigun amonari omenalditxo ere egin diogu osabak eta biok". Baina, lagun artean zabaldu eta irakurri ostean, argitaratzeko modukoa zela erabaki zuten eta Ataramiñe argitaletxeak Durangoko Azokan jarriko du salgai.

Gabonetarako umeei eskainitako ipuin aproposa dela dio. Izan ere, txori mezulariak bide-lagun dituztela, haurrek opariak nola eskatzen dituzten kontatzen du: "Osabak gura zuen ume bakoitza ipuineko protagonista bilakatzea; ipuinaren parte izatea. Protagonistak, gainera, ez



Lorea Erostegei, liburu aurkezpenen. L.E.

dauka sexurik, eta marrazkietan hori islatzen saiatu naiz". *Eltzikorta*-ren hitzei irudia jarri die Lorea Erostegei ilobak. "Lotura estua izan dugu betidanik; nahiz eta ni Bilbon egon eta bera Herriako kartzelan. Telefono bidez adostu dugu liburua".

OHARRAK

Film emanaldia

Udako amodio bat pelikula ikusgai domekan, abenduaren 9an. Emakumeen borroka eta lesbianismoa gai dituen filma da. 15 urtetik gorakoentzat gomendatua. Olanaren, 18:30ean, doan.

Dokumental emanaldia

Aralar, mundua leku den lurra dokumentala ikusteko aukera izango da martitzenean, abenduaren 11n. Aralarko ondare naturala eta kultura ditu oinarri. Olanaren, 18:30ean.

Gimnasia erritmikoa

Herriko gimnasten erakustaldia abenduaren 12an, eguaztena, herriko pilotalekuan, 17:30ean.

Haur eta gaztetxoak, lehenengo

Hiru txandatan irtengo dira lasterketa egitera. Lehenak 5 eta 8 urte artekoak izango dira, 17:30ean hasita. 17:45ean, benjaminen, alebilen eta infantilen txanda izango da. 18:00etan, berriez, kadeteena eta hortik gorakoena.

Sariak, zozketak, festa eta musika izango dira nagusi abenduaren 26an, eguaztena, Herriko Plazaren bueltan.



Gaztetxo kuadrilla lasterketa ostean. GOIENA

MUJKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Kafe antzokian hainbat ikuskizun abenduan

Biharko, eguena, 'Go!azen' antzezlanaren bi emanaldi daude iragarrita antzokian eta salduta daude sarrera ia guztiak. Etzi, berriz, Herrixa Dantzan ekimenetik antolatutako folk dantzaldia izango da Escamot Catala talde gonbidatuarekin

Larraitz Zeberio ELGETA
Aspaldiko partez, hainbat ikuskizun daude programatuta Espaloia kafe antzokian. *Go!azen* ikuskizunak harrera polita izan du, eta ia agortuta daude bihar-ko bi emanaldietarako sarrerak. Saioak 17:00etan eta 19:00etan izango dira.
Eguenean berriz, laugarren urtez izango dira Elgetan Escamot Catala taldeko kideak (ikus 33. orria).

Bertso jaialdia, hilaren 14an
Udalak antolatuta bertso jaialdia dago iragarrita antzokian hilaren 14rako. Andoni Egaña, Julio Soto, Ainhoa Agirreazaldegia eta Maddalen Arzallus bertsolariak izango dira Espaloian. Amaia Agirrek ipinitako gaietatik abiatuta egingo dute bertsotan.
Sarrera doan izango da, eta jaialdia 22:30ean hasiko da. Maila handiko bertsolariak dira eta Ainhoa Agirreazaldegirendako, gainera, plaza berezia da Elgeta.

Gari & Maldanbera
Go!azen ikuskizunarekin hasiko du Hiru Kultur Taldeak abendua eta Gari & Maldanbera proposatzen dute hilaren 29rako. Elgetako kafe antzokian egingo du legazpiarrak *Estutu* disko berriaren aurrestreinaldia.



Andoni Egaña izango da, besteak beste, hilaren 14ko bertso jaialdian. IMANOL SORIANO

SARRERAREKIN DIRA 'GO!ZEN' ZEIN GARI & MALDANBERA IKUSKIZUNAK

"Hiru hamarkadako ibilbidearen ostean, zortzi pop kanta eder hauen bidez aurrera begira jartzeko beharra sentitu dut. Bultzada horretatik sortu da diskoa", adierazi du. Musikariak ondo ikasia du diskoari izenburua

ematen dion *Estutu* kantako bertso lerroen egia: "Laztan ba-koitzak du bere korapiloa", dio. Kontzertua 22:30ean hasiko da eta sarrerak salgai daude www.musikaze.net/kulturhiru atarian, 12 eurotan. "Salmenta poliki-poliki badoa aurrera", esan dute Kultur Hiru taldeko kideek. "Aurretik, 19:00etatik 20:00etara, Bergarako talde sorpresa bat egongo da".

Herriko musikari gazteek ere egingo dute aurre Gabonetako emanaldia Espaloian. Hilaren 21ean izango da, 19:00etan.



ELGETAKO HERRI ESKOLA

'Ahobizi' eta 'Belarriprest', eskolan

Astelehena, abenduak 3, egun berezia izan zen Elgetako Herri Eskolan; izan ere, Euskararen Eguna ospatu zuten ikastetxean. Bisita berezia ere izan zuten, Euskaraldiko *Ahobizi* eta *Belarriprest* agertu baitziren jolas-ordurako. Esan beharra dago haiei esker apur bat luzeago izan zela jolas-ordua, neska-mutikoen gozamenerako.



L.Z.

Euskararen Egunean, Urflax

Urflax pailazoa ere Elgetan izan zen Euskararen Egunean. Ezaguna da herrian eta guraso elkarteak eskaintako txokolate-janaren ostean elkartu zen herriko neska-mutikoekin udaletxeko areto nagusian. *Urflaxekin euskaraz...1,2,3 GoXaketaaaa!* saioa eskaini zuen. Gustura egon ziren neska-mutikoak haren kantuak eta abenturak entzuten.

Erretiratuen kultura astea

Xalbadorpe elkartearen urteroko kultura asteak lau ekintza izango ditu, eta bi antzokian izango dira. Hilaren 11n, martitzena, *La fiesta de la Madonna* antzezlanaren egingo du Oroimenak antzerki taldeak, 17:30ean. Umorea ardatz hartuta egunerokotasun handiko gaia jorratuko dute; pertsona nagusien bakardadea, hain zuzen ere. Biharamunean, hilak 12, urteroko emanaldia egingo du Bergarako Alai abesbatzak. Kontzertua 18:00etan hasiko da. Kasu bietan sarrera doan izango da.
Erretiratuek kultura astearen barruan egingo dituzte beste bi ekintzak Ozkarbi elkartearen izango dira. Astelehenean, bingo saioa egingo dute 17:00etan, eta hilaren 14an txistor-jana eta zozketa iragarri dituzte 18:00etarako.

Abenduan Espaloian

- **Hilak 6:** *Go!azen*.
- **Hilak 7:** Herrixa Dantzan. Folk dantzaldia.
- **Hilak 11:** *La fiesta de la Madonna* antzerkia.
- **Hilak 12:** Alai Taldea.
- **Hilak 14:** Bertso saioa.
- **Hilak 21:** Herriko musika ikasleak.
- **Hilak 29:** Gari.

PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Ainhoa Zeziaga-Olatz Olaortua / Maitena	
<u>Mañarikua-Eneritz Larrea</u>	18-10
Alain Valle-Eneko Ormaetxea / Josu	
<u>Mañarikua-Beñat Arabaolaza</u>	18-06
Mikel Beretxinaga-Ibon	
Unzetabarrenetxea / Diego Cantabrana-	
<u>Txomin de Vega</u>	18-07

OHARRAK

Podologoa

Erretiratuendako abenduko kontsulta hilaren 13an izango da. Aurrez hartu behar da txanda, 943 76 80 77 telefono zenbakira deituta (Nati).

Gaztelekua

Sofak egiteko tailerra egingo dute hilaren 15ean eta 16an. Bestalde, Bilboko Gabonetako parkera joateko irteera hilaren 22an izango da.

Jardunaldiak Antixenean, hausnartzeko eta hezteko

Teknologia berriak, emakumeen historia, hezkuntza ereduak, armak eta lehen sektorea izango dituzte hizpide, besteak beste, gaztetxeak abenduaren erdirako antolatu dituen jardunaldietan. Irteera eta bazkaria ere egingo dituzte

Oihana Elortza OÑATI

"Formakuntza teorikoa bultzatzeko eta errealitate soziala mintzagai hartu eta berau kuestionatzeko" jardunaldiak antolatu ditu Antixena gaztetxeak. Hilaren 13tik 16ra izango dira eta ekitaldietako bat kultura etxean izango da: "Gaztetxera joatea kosta egiten zaien horiei zuzendutako keinua izango da hitzaldiaren kokapenaren arrazoia; nolabait, gaztetxea herrira zabaltzea da helburua", diote.

Teknologia digitalarekin hasi

Teknologia digitalaren ingurukoa izango da lehen hitzaldia, esaterako. Igor Tome izango da hizlaria eta teknologia horrek gizakiaren pentsamenduan sortzen dituen aldaketen inguruan jardungo du. "Teknologia digitalen ezaugarriak dira azkartasuna eta estimulazioa, adibidez, eta horiek aldaketa ekarri dute gure pentsamenduan. Irakurketa ezberdina da. Pentsamolde konplexurako ohitura edo ariketa galtzen doa. Eta horren ondorioetako bat da publizitate sistemaren menpeko bihurtzen garela. Teknologia digitalen eragina testuinguru soziopolitikoan ere aipatuko dut", azaldu du Tomek.

Egingo den beste hitzaldi bat euskal emakumeen historiaren ingurukoa izango da, eta XVI. mendera egingo du atzera Iraitz Agirre hizlari arrasatearrak: "Mende hartan aldaketa handiak gertatu ziren Euskal Herrian, Europan eta munduan. Orduan hasi zen garatzen egun ezagutzen dugun sistema kapitalista eta patriarkala. Baina orduan baziren enpresa emakumeak; emakumeek oinordetza kobratzea ere normala zen eta genero indarkeriaren epaitegiak zeuden. Hori guztia zergatik ez den konstatzen eta zergatik kontatu gura dudan azalduko dut Oñatiko hitzaldian".



Abenduan izango dira gaztetxeak antolatutako jardunaldiak. O.E.TE

Jardunaldien egitaraua

ABENDUAK 13, EGUENA

- **18:30** Hitzaldia: *Internet eta teknologia digitalen eragina gure pentsamenduan: subjektu garaikidea garatzen*. Hizlaria: Igor Tome.

ABENDUAK 14, EGUBAKOITZA

- **18:30** Hitzaldia: *Euskal emakumeen historiaz eta memoriaz. Bidaia bat XVI. mendean barrena*. Hizlaria: Iraitz Agirre.
- **21:00** Pitxo-afari osasuntsua gaztetxean.
- **21:00** Dokumentala: *Heal*.

ABENDUAK 15, ZAPATUA

- **11:00** Autoformazioa: *Eguno armagintza Euskal Herrian*. Hizlaria: Aimar Uribealzo.
- **14:00** Bazkaria gaztetxean.
- **15:30** Hitzaldi-tertulia: *Baso eskola bateko esperientzia*. Hizlariak: Aran eta Korta.
- **17:30** Hitzaldia: *Kapitalismoaren garapena euskal nekazareremuan: baserriaren mitotik klase gatazkara*. Hizlaria: Gorka Menendez.

ABENDUAK 16, DOMEKA

- **09:00** Mendi irteera Makixen kobara –jatekoa eraman behar da–.
- **17:30** Hitzaldia: *Oñatiko ikastolaren hasiera gatazka*. Hizlaria: Euxebi Osa, ikastolako hasierako irakaslea.

Oharra: Hilaren 14ko hitzaldia kultura etxean izango da. Gainerako ekintza guztiak, gaztetxean.

Etxebizitza hutsendako alokairu babestuak proposatu ditu EAJk

Gaurko osoko bilkuran landuko dituzten aurrekontuetan sartzeko egin duen proposamenetako bat da

O.E. OÑATI

Gaur, abenduak 5, egingo du osoko bilkura udalbatzak, 18:00etan, eta 2019ko aurrekontuak izango dira eztabaidatuko duten puntuetako bat. EH Bilduk bere asmoen berri eman eta oposizioari jakinarazi zizkion duela bi aste. EAJk aztertu egin ditu, eta bere ekarpenen berri eman du orain, "oñatiarren egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko" diren ekarpenak direla adierazita.

Urrutxu eta San Martin

Proposamenen artean, "etxebizitza hutsak alokairu babestura merkaturatzera bideratuko duen kontu saila" nabarmendu du alderdi jeltzaleak. EAJk "beharrezko" ikusten du "hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzea eta horiek alokairu sozialaren merkatuan sartzea, behar gehien dituzten herritarren etxebizitzarako sarbidea errazteko". Eta gaineratu du: "Kontu-sail honek, programa honen inguruko informazioa emateaz gain, diru laguntzak jarriko lituzke Bizigune programan sartzeko obren beharra duten etxebizitza hutsen jabeek lan

horiek egin eta alokairu soziala jartzeko".

Jeltzaleek, "herritarren gehien- go baten eskaerari erantzunez", bizikleta eta patineteen zirkulazioa arautuko duen ordenantza baten beharra ere mahai gainean jarriko dute berriz.

Kirolari lotuta, hiru kirol proiektuen inguruan azterketa teknikoak egiteko beharra azpimarratu du berriz: kanpoko igerilekua eta ondoko aisialdi-gunea, Urrutxu atletismo eta oinarri-futbolera gunea eta San Martingo hariztian korrika egiteko pista. Diote azken hori "jeltzaleek azken urteetan behin eta berriz eskatutakoa" izan dela, herritarrek 2019ko aurrekontuetarako egin den parte hartze prozesuan gehien bozkatu duten ekarpena –315 bozka–.

Herriko nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta baita merkataritza aztertzea ere proposatzen du EAJ alderdiak. Baita berdintasunari "bultzada" emango dion neurriak hartzea ere. 15-18 urtekoendako Gazteen Astea egitea ere proposatu dute, baita kultur eta gizarte ekipamenduen azterketa sakona egitea ere.



NIRE USTEZ

MAIALEN SANTOS

Zorionekoa ni

Selektibitatea, unibertsitatea eta masterra. Horixe da sistemak ezartzen duena, ordena horretan. Sistemak ezarritakoa jarraitu ala ez, beste kontu bat da. Gure esku dago hori. Etorkizun duin bat izan nahi dutenek, gutxienez, sistemaren aldeko hautua egin besterik ez dute. Baina ez hala nahi dutelako, aukera hoberik ez dutelako baizik. Gurasoek honako hau galdetu zidaten duela gutxi: datorren urtean zein master egingo duzun pentsatu al duzu?

Zintotasunez jokatu nahiko banu, sistemari kontra egin nahi diodala erantzungo nieke momentu horretan. Dagoeneko Kazetaritza ikasketak amaitzeaz nagoela, eta horrekin nahikoa dudala. Hala ere, galderari sorbaldak altxatuz erantzun nion, erantzuna hori baino konplexuagoa delakoan. Eta erantzun hobe baten bila hasi nintzen, hurrengo aldi baterako.

Nola esan sistemaren bi biktimari agian masterrik egingo ez dudala? Zorionekoa ni, beraien izerdiz ordaindutako masterra egiteko aukera izateagatik. Eskertuta beharko nuke, edo hala sinestarazi digute, behintzat.

Hiru kirolari herritarren saria jasotzeko hautagai

Abenduaren 21ean banatuko dituzte Oñatiko kirol sariak: abenduaren 19ra arte izango dute herritarrek Erik Martinen, Elene Guridiren eta Ainhoa Redinen artean kirolari onena aukeratzeko tarte. "Pozik" hartu dute hautagaitza hiru kirolariek

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI

Abenduaren 21ean banatuko dituzte osoko bilkuren aretoan 2018ko kirol sariak. Aurtengoa XIX. aldia izango da, eta urtean zehar nabarmendu diren kirolariak sarituko dituzte.

Kirol batzordeko kideek eta kirolaren inguruan lanean dihardutenek egin dute aukeraketa. Kirol sarietan pisu handia izaten duen saria izaten da herritarrek emandakoa. Sari hori jasotzeko aurtengo hiru hautagaiak dira: Erik Martin atleta, Elene Guridi futbol jokalaria eta Ainhoa Redin igerilaria.

Nola eman botoa

Epaimahaiak proposatutako hiru kirolariren artean aukeratu beharko dute herritarrek. Gaur hasi –abenduak 5– eta abenduaren 19ra arte egongo da botatzeko aukera, *Oñati.eus* atarian. Antolatzaileek azaldu dute bozkatzeko sistema kontrolatuta dagoela ordenagailu bakoitzetik boto bakarra eman dadin.

Parte hartuko duten guztien artean bi lagunendako afaria zozkatuko dute.

Hautatuak "pozik" daude

Hautagaiak diren hiru kirolariek "pozik" hartu dute hautagaitza. "Ezustekoa izan da; beste kirol

batzuetan, txirrindularitzan, adibidez, oso ondo dabil jendea. Gustura eta pozik hartu dut nire lehenengo denboraldian horrelako aitortza izatea", azaldu du Martinek. Atletismo sailean bigarren denboraldia du Martinek; iaz, lehenengo urtean, "oso denboraldi ona" egin zuen eta horren ondorioa izan zen Oñatiko Corpusetako nazioarteko lasterketan parte hartzeko jaso zuen gonbidapena. Guridik "harrituta" hartu zuen albiste: "Ez nuen espero. Ohore bat da hautagaitza hau; saria emango didaten edo ez baloratu gabe, oso pozik hartu dut albiste", gaineratu du Guridik. Realeko emakumezkoen bigarren taldean jokatzen du oñatiarrak, irailaz geroztik. Euskadiko selekzioarekin ere ibili izan da entrenatzen, eta iaz Espainiako txapelketako bigarren fasea jokatu zuen Kantabrian. Redin ere pozik dago hautagaitzarekin: "Bai, pozik hartu dut albiste, ez nuen espero", dio. Txikitatik

HERRITARREN SARIAZ GAIN, KIROLARI ONENA ETA TALDE ONENA ERE BANATUKO DITUZTE

igerilekuan egindako lanaren fruitua da Redinek hautagaitza honekin jaso duena. Bizkar era moldatzen da ondoen Redin, eta 50-100-200 metroko probak egiten ditu.

Kirolari onena eta talde onena

Herritarren sariaz gain, epaimahaiak erabakita beste sari batzuk ere banatuko dituzte abenduaren 21ean. Oñatiko kirolari onenaren saria; talde onenaren saria; entrenatzaile onenaren saria; eta, kirolaren alde egindako lanaren aitortza. Horiez gain, aipamen bereziak ere banatu ditzakete. Saritu guztien izenak egunean bertan jakingo dira, sari banaketa ekitaldian.

Iaz, Mikel Ugartek jaso zuen kirolari onenaren saria eta eskubaloiko senior taldeak talde onenaren saria; entrenatzaile onena Aitor Aranburu izendatu zuten, eta kirolaren alde egindako aitortza Esteban Ugarteri eman zioten, pilota sailean egindako lanagatik. Horiez gain, hiru aipamen berezi egon ziren.

Ekitaldia bera bertsoarekin edo antzerkiarekin girotu izan dute azkeneko urteetan. Aurtan, asmoa da sari banaketa ekitaldia ikus-entzunezko txikiekin girotea.

ERIK MARTIN

ATLETA

Erik Martin (1999). Futbolean atezain ibilitakoa, 2017an egin zuen atletismora salto. Urtebeteko epean lortutakoak: krosean, Euskadiko txapelketan 8. postua eta Gipuzkoakoan 3.a. Pistan, Euskadiko txapelduna izan zen 5 kilometroko proban eta 10 kilometrokoan 33.30eko denbora. Corpusetako proba jokatu du aurtan.



Martin, korrika. E.M.



Guridi baloiairekin. JAVI UROLA

ELENE GURIDI


FUTBOL JOKALARIA

Elene Guridi (2002) Aloña Mendin hasi zen eta orain dela hiru urte Eibarrek fitxatu zuen. Kadete mailan eta bigarren territorial mailan jokatu ostean, Realak fitxatu du 18-19 denboraldian. Euskadiko selekzioarekin ere jokatu izan du: iaz bigarren fasea jokatu zuen Kantabrian eta aurtan partidu bakarra jokatu du Guridik selekzioarekin.

AINHOA REDIN

IGERILARIA

Ainhoa Redin (2002) txikitatik ibili da igeri taldean. Bizkar erara moldatzen da ondoen, eta, hain zuzen, hor lortu ditu emaitza onenak: 2016an, 2017an eta 2018an Espainiako txapelketak jokatu zituen, lehenengo biak infantil mailan eta azkena gazte mailan. Euskadiko txapelketan askotan igo da podiumera igerilari oñatiarra.



Redin, igeri egiteko prest. A.R.

Giza proben bigarren itzulian ere ohorea izango dute jokoan

Abenduaren 15ean Lezon jokatuko dute "errebantxa"; 700 kiloko harria ahalik eta gehien mugitzea da gakoa

A.E OÑATI

Oñatiko jaietan, urriaren 5ean egin zuten Oñatiko kuadrilla batek eta Lezoko kuadrilla batek giza proba. Orduko hartan, oñatiarrak nagusitu ziren: 715 kiloko harriarekin 36 plaza egin

zituzten; aurkariek, aldiz, 35 plaza. Olaiturrin egin zuten giza proba herriko jai nagusien barruan eta ikusmin handia piztu zuen.

Hala, "errebantxa" izango dute abenduaren 15ean oñatiarrak.

Oraingoan, Lezoko probalekuan izango da saioa, 18:00etan. Oñatiko saioan etxekoek jarri zuten harria; abenduaren 15ean, berriz, lezoarrek jarriko dute: "600 kiloko harria izango da eta horri 100 kiloko beste plaka bat gehituko diote 700 kilo har dezan", azaldu dute oñatiarrak.

Hogei minutu izango dituzte proba egiteko. Plaza gehien egiten dituen taldeak irabaziko du proba. Jokoan ohorea besterik ez dute izango; mahaiaren bueltan elkartuko dira ondoren.

Hainbat futbol partidu bihar, eguena, jokatuko dituzte

Bihar, eguena, partidua izango du Lehenengo Erregionaleko taldeak: Aloñak Argixaon jokatuko du, Urolaren aurka, 16:00etan. Ohorezko gazteek etxean jokatuko dute, Bergararen aurka: bihar, 12:30ean Azkoagainen. Gizonezkoetan, talde nagusiak zapatuan jokatuko du, Ezozian, 16:30ean; eta emakumeek atsedena izango dute.

Hotz Oñatiren aldeko pilota txapelketa, abenduaren 15ean

Eskuz binakako pilota txapelketa egingo dute abenduaren 15ean, 09:00etatik 14:00etara, eta finala abenduaren 16an izango da. Txapelketa bakarra jokatuko dute, eta mistoa izango da. Izena eman behar da abenduaren 10a baino lehen, 10 euro ordainduta: 631 69 36 74 zenbakian edo laukideak@gmail.com helbide elektronikoan.

Ander Muruak santamas eguna borobildu gura du

PILOTA Pilotari arrasatearrak Bankoa DV Torneoko finala jokatu du hilaren 22an Zarautzen: "Goizean ezingo naiz herrian egon, finala daukadalako, baina arratsalderako txapelarekin etorri gurako nuke", dio. Promes mailan dihardu, Elizegirekin batera

Xabier Urzelai ARRASATE

Uarkapeko pilotalekua inauguratu eta hilabete gutxira jaio zen Ander Murua (Arrasate, 2000): "Gurasoen etxea frontoi ondoan dago; horrenbestez, egun osoa egiten nuen pilotalekuan", dio. Gertutasun horretatik harago, etxean pilotarekiko duten zaletasunak ere izan zuen *kulparik*: "Aita pilotazalea da, eta osabek gaztetan ere pilotan egin zuten. Imaginatzen dut horrek ere eragina izango zuela nik ere pilota aukeratzeko".

Hain zuzen, Arrasateko harrobiko harribitxietako bat –gaur egun Bergarako klubean dago– dagoeneko amateur mailara gerturatzen dabil, eta badabil nabarmentzen: "Oraindik, asko dut hobetzeko, aurrelaria izateko defentsa lanean, batez ere. Kontrara, uste dut tantoa amaitzeko erraztasuna daukadala, eta aurrean jokatzeko hori ezinbestekoa da".

Bankoa DVko finala, 22an

Santamas egunerako Ander Muruak badu Arrasateko azokatik buelta bat ematea baino plan hoberik. Zarauzko Aritzbatalde pilotalekuan jokatu dituzte Bankoa DV Torneoko finalak, eta promes mailan Elizegirekin batera txapela janzten ahaleginduko da: "Ederra izango litzateke txapela Arrasatera ekartzea. Ez dakit partidu ostean zuzen etorriko garen, ala Zarautzen geratuko garen bazkaltzen, baina izan dadila txapela jantzita".

Izan ere, Muruak eta Elizegik Bergaran hasi zuten torneo, final-zortzirenetan: "Aristegi eta Malasetsabarria izan genituen

"ELIZEGI ATZELARIA GORPUTZALDI IKUSGARRIAN DAGO, PARTIDUAK DOMINATZEN DITU"



Ander Murua, ezkerrarekin pilota astintzen. KANTXA PELOTAZALE

lehenengo partiduan aurrean, eta asko kosta zitzagun lehenengo norgehiagoka hura irabaztea. Gogoan dut urduri geundela, torneo hasi berri, lehenengo partidua... Baina, bizkaitarrei 22-17 irabazita aurrera egin genuen".

Ondorengo bi kanporaketak errazago gainditu dituzte: "Gutierrezen eta Olidenen kontra 22-6 irabazi genuen, eta finalerdietan Alberdi eta Ibarloza ere 22-6 hartu genituen mendean. Egia esan, nire bikotekide Elizegi momentu ikusgarrian dago. Kantxatik kanpora oso ondo konpontzen gara, eta kantxan partiduak dominatzen dabil. Hori aurrelari batendako oso garrantzitsua da".

Donostian ikasi, Zarautzen bizi

Gipuzkoan barrena aurrera eta atzera ibiltzen da Murua: "Donostian nabil ikasten, baina aste barruan Zarautzen bizi naiz, eta Tolosan entrenatzen naiz". Hori gutxi balitz, asteburuak Arrasaten egiten ditu, eta jokatu Bergarako klubeko elastikoarekin egiten du: "Irakasle ikasketak eta Soin Hezkuntzako ikasketak egiten dabil, ba-

tera, baina pilotan ere bidea egin gura du: "Ederra izango litzateke Mendizabal III.a edo Rezusta pilotariak egiten dabil-tzan bidearen erdia egingo banu". Lanean jarraitu beharko du horretarako.

Euskal Herriko Torneo, etzi

Euskal Herriko Kluben Arteko Torneo Nazionallean hartuko dute esku Bergarako pilotariak. Hala, Bergarako klubeko ordezkari Julen Aranburuk eman ditu xehetasunak: "Aurre faseko kanporaketa dugu domekan [11:00] Galdakaoko Adiskide klubaren aurka. Hiru partidutako jaialdia izango da eta aurrera egiteko bi irabazi behar dira". Murua –lau t'erdian–, Muguza –buruz buru–, eta Etxaniz-Gartzia –binaka– izango dira Bergara ordezkatzeko dutenak.

Liderrari irabazita, Bergarak Allerru hartuko du bihar, eguena

FUTBOLA Eguenera aurreratutako jardunaldian, Mondrak Oiartzunen jokatu du, eta Tolosan Aretxabaletak

X.U. ARRASATE

Joan den asteburuko jardunaldi borobilaren ostean –kategoria hiru taldeek irabazi egin zuten–, Bergarak sailkapenaren atzealdean dagoen Allerru hartuko du bihar, eguena, Agorrosinen (15:30).

Mahoneroek ezusteko ederra eman zioten joan den astean Anaitasunari (0-2); izan ere, duela bi aste Aretxabaletaren kontrako derbia galdu eta gero, Paul Valgañonek garbi esan zuen: "Partidua galdu dugu, baina taldea lan ona egiten dabil, eta talde barruan ditugun sentsazioak ez dira batere txarrak". Hala, non eta liderraren zelaian berretsi zuten hori. Kontuz ibili behar da, baina, lehenengoari irabazi eta atzealdeko batekin erlaxatzearekin.

Aretxabaleta eta Mondra ere joan den asteko lan onari jarrai-



Jaurtiketa egiteko gertu. IMANOL SORIANO

pena emateko asmoz daude; oraingoan, baina, etxetik urrun. Oiartzun kontrario zuzena da Mondrarendako (eguna, 15:30, Karla Lekuona) eta Aretxabaletaren kontrario Tolosa hirugarren postuan dago (eguna, 16:30, Berazubi).

FUTBOLA Leintz Arizmendik eta Bergarak, domekan

Emakumezkoen Ohorezko Erregional mailan ere ez da atsedenik egongo zubian. Domekan jokatu dute bai Bergarak eta baita Leintz Arizmendik ere. Mahoneroek Tolosaren zelaian gura dute hirugarren garaipena jarraian eskuratu (11:30) eta Leintz Arizmendi Zumaian ahalginduko da hiru puntuak batzen (17:00).

ESKALADA Urtea borobildu du Mikel Linazisorok

Nazioarteko Txapelketei dago kienez egutegi bete izan du Mikel Linazisorok aurtan. Munduko Txapelketan –kategoria absolutuan– eta Gazteen Olinpiar Jokoetan parte hartu du, besteak beste. Urtea, baina, etxean borobildu du, bergarra Euskadiko txapeldun izan berri da-eta, Iruñean egindako txapelketan nagusitu ostean.

ESKUBALOIA Musakolan hartuko du liderra Ford Mugarrik

Euskadiko Txapelketan lehenengo postuan dagoen Urduliz hartuko du Ford Mugarri Arrasatek bihar, eguena (18:00, Musakolan). Liga hasiera txarra egin eta gero, arrasatearrak hasi dira erreakzionatzen, eta dagoeneko hiru garaipen batu dituzte jarraian. Fagor Industrialek, berri, Urdanetaren kantxan jokatu du.

ATLETISMOA Hasi dira San Silvestre probak prestatzen

Urtea korrika eginez amaitzeko hitzordu bat baino gehiago izango da aurtan ere ibarrean. Bergarako Hankaluzekoak badabil-tza San Silvestre Trail prestatzen eta Oñatiko Antxintxiketaneok 18. ixa 19. lasterketa gertatzen dabil-tza. Antzuolan, dagoeneko zabalik dute hilaren 26an egingo duten San Esteban kroserako izen-ematea.

"Hemengo taldeen aukera falta izan zait"

JOKIN ETXABE ZIKLISTA OHIA

TXIRRINDULARITZA 24 urteko bergarar gazteak txirrindularitza uztea erabaki du, urte zaila pasa eta hemengo taldeen eskaintzarik jasotzen ez zuela ikusi eta gero

Jokin Etxebarria DEBAGOIENA

Kontinental mailako bi taldetan ibili da azken bi denboraldietan Jokin Etxabe bergararra. Bata estatubatuarra eta bestea japoniarra. Bigarren horrekin esperientzia txarra bizi izan du, nahiz eta emaitza aldetik ez den guztiz txarra izan. Kanpora berriz ere atera nahi ez, eta etxeko taldeek bere aldeko apusturik egiten ez zutela ikusita, bizikletatik jais-tea erabaki du.

Txirrindularitza utzi berri duzu. Erabakia hartzea zaila izan da?

Bai, ez da erraza izan. Erabaki hau ez da egun batetik bestera hartzen den kontu bat. Jarraitzeko ilusioa beti egon da hor, baina, data hauek gerturatu ahala, geroz eta argiago neukan erabakia horrek izan behar zuela. Ondo hausnartutako erabakia izan da eta argi neukan egin behar nuena.

Inguruko taldeek zure aldeko apusturik egin ez izana faltan igarri duzu, agian?



Jokin Etxabek ziklista ibilbideari agur esatea erabaki du. ARTXIBOA

Hemengo azpiegiturak lan egiteko idealak dira. Lanean serio jarduten duten taldeak, kalitatezkoak eta norberaren kirol maila hobetzeko leku aproposak dira hemengo taldeak. Nik hori neukan helburu, nire kirol mai-

la hobetzea, eta kanpoko taldeetan ibilita hori ez da erraza. Azken bi urteetan kanpoko taldeetan ibili naiz eta, batez ere, azkena ez da esperientzia onegia izan. Horrek ere izan du eragina erabakia hartzeko orduan,

berriro kanpora joateko eskaintzek dudak sortzen dituztelako. **Ameriketako Estatu Batuetako talde batean aritu zara, Japoniako beste batean denboraldi erdi egin duzu, eta ez duzu gustura amaitu.**

Ez, azkeneko esperientzia ez zen ona izan. Denboraldi erdian, taldeko aurrekontu osoa amaituta zegoen, diru gastu ezegokia egin zelako. Lasterketarik ezin izan genuen jokatu handik aurrera, eta, noski, soldatak ikusi ere ez. Abuztutik, aurrera afizionatu talde batekin aritu naiz, baina, batez ere, aktibo egon behar nuelako aurten eskaintzaren bat jaso ahal izateko.

Baina eskaintzarik ez da heldu.

Denbora batean ibili nintzen hemengo talde batekin aukeraren bat aztertzen, baina, azkenean, beste txirrindulari batzuekiko hautua egin zuten. Pena da kolonbiar bat, bielorrusiar bat, madrildar bat... zure aurretik ikustea eta hemengo txirrindularien alde benetako apusturik ez egitea. Nire urtea nahiko zaila izan da, maiatz erdira arte bakarrik lehiatu naiz, eta, hala ere, estatu maila, 26 urtez azpiko profesionalen rankingean, seigarren gelditu naiz puntutan, bigarren euskalduna izan naiz. Eta ikustea ez dudala aukerarik eduki hemen... egia esan, min ematen du. Kanpoko taldeek bestelako ideologia bat daukate, babesle bat bilatu eta hark badio hamar herrialde ezberdinetako mutilak izan behar dituzula,

horrela fitxatzen duzu eta kito. Hemengo taldeek, baina, beti izan dute, edo esan izan dute, harrobia lantzea dutela helburu. Nik ulertu dezaket talde bat egituratzeko orduan, agian, esprinterrak edo bestelako ziklistak behar izatea eta nik lekurik ez edukitzea, baina nire profileko batzuk aurretik jartzea... denboraldian zehar ezer egin ez banu... Hemengo talderen baten aukera falta izan zait; behintzat, urtebete. Gero, errepideak ba-koitza bere lekuan jartzen du, eta, mailarik ez badut eman, harremana amaitu eta kito, baina, behintzat, urtebeteko aukera merezi nuela uste dut.

Eta orain, zer?

Uste dut ziklismoan ez dudala zorte handirik eduki, ez naizela momentu egokian leku egokian egon, agian. Orain, burbuila horretatik kanpo nago eta gehiengoaren errealitatera egin dut jauzi. Ziklista profesionala zarenean, 24 orduak ematen dituzu bizikletarentzat. Orain, txipa aldatu dut eta lanean jarri naiz enpresa batean. Aukera ona eskaini zidaten, eta hemen-dik aurrera lan munduan eman-got ditut pausoak.

"ONDO HAUSNARTUTAKO ERABAKIA IZAN DA ETA ARGI NEUKAN EGIN BEHAR NUENA"



IPURUA GIMNASIA ERRITMIKO TALDEA

Urrezko dominarekin etxera

GIMNASIA ERRITMIKOA Nahia Arguiz eta Lorea Armendariz eskoriatarrek urrezko domina lortu zuten, Ipuru Gimnasia Erritmiko Taldeko euren kideekin batera, BECen izan zen Euskalgym 2018an, mazoan modalitatean erakustaldia eginda. Txapelketa hori estatu mailako

egutegian egiten den garrantzitsuenetako bat da eta bertan, nazioarte mailako gimnasta onenek eruen dohainak erakusten dituzte. Abenduaren 13tik 16ra jokatu den Espainiako Txapelketarako baliagarri izango zaie esperientzia.

Ointxe!-k bolada eten nahi du Easoren aurkako derbian

SASKIBALOIA Zapatuan, 18:00etan, Musakolan –eta ez Iturripen– jokatu dute Iñaki Ogara 'Arri'-ren mutilek

J.E. DEBAGOIENA

Azken bi asteburuetan ez du MU Ointxe!-k nahi bezalako emaitzarik eskuratu. Bai etxean Ardoiren aurka jokaturako partiduan eta baita Pas Pielagos talde kantabriarraren kantxan jokaturakoan, taldeak oso maila ona eman du, atsedenaldira arte. Hortik aurrera, baina, arazoak eduki ditu, eta badirudi luze samar egin zaizkiola nor-gehiagokak.

Ardoi nafarren aurka galdu zuten arte, jarraian bost partidu irabaziak zituzten mondragoe-

tarrek, eta lehen postuen borrokan bete-betean sartzea lortu zuten. Bi porrot horiekin, baina, taula erdira jaitsi dira Iñaki Ogaraeren mutilak; hala, egotzari buelta emateko, Easoren aurkako derbia aprobetxatu nahi dute. Talde donostiarra goiko postuetan egotera ohitu da aurreko urteetan, baina aldaketa asko izan ditu udan, eta urte zaila izaten ari da.

Ointxe! da, berez, favorito derbian, baina ez du ohiko lekuan jokatu, Musakolako kiroldegian jokatu baitu zapatuan.

Durangon, bailarako 30 produktutik gora

Produktu propioak zein partekatuak eta saltzen zein aurkezten, baina aurten ere Debagoienez dagoen sormen lanaren zati bat ikusgai egongo da gaurtik domekara bitartean egingo den Durangoko Azokan

Oihana Elortza OÑATI

Izan eleberriak, filmak, DVDak, ipuinak, musika produktuak zein ikus-entzunezkoak, Debagoienarekin lotura zuzena duten 30 produktu baino gehiago egongo dira aurtengo Durangoko Azokan irakurtzeko, entzuteko edo ikusteko. Azokan izango diren 247 standetan egongo dira, zein azoka osatzen duten zortzi guneeetan.

Propioa zein kolektiboa

DA! asko dira da aurtengo Azokak izango duen leloa. 158 argi-

taletxe, diskoetxe, kultur elkar-te, erakunde eta banatzaile egongo dira. 439 nobedade: 304 liburu, 93 disko, 18 aldizkari, argitalpen elektroniko bat eta 23 bestelako. Eta horien guztien artean egongo dira Debagoienetik hara eramandako produktuak.

Juan Carlos Irizar musikari oñatiarra da, esaterako, aurten go nobedadeetako bat. Bere stand propioa izan du azken urteetan, baina aurten ezin izango da han egon, etxeko arazoengatik. Egingo azken lana, baina, *Peda-leando* diskoa, erosi ahal izango

da azokan; Elkar-en postuan egongo da.

Irizarren moduan euren produktu propioa izango dute debagoiendar askok ikusgai Durangoko Azokan. Esaterako: Ruper Ordorika musikariak, The Potes taldeak, Potx eta Lotx pailazoek eta Yon Suinaga idazleak. Beste askok, ordea, proiektu kolektiboetan parte hartu dute. Horien artean daude, esaterako, Lanku argitaletxeak atera dituen bi produktuetan dauden egileetako batzuk: Ainhoa Agirreazaldegik, esaterako, *Ber-*

tsolaritzaren bilakaera genero ikuspegitik liburuan hartu du parte eta Manex Agirrek eta Ruper Ordorikak, *Buruz buru* produktuan. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak kaleratu duen *Haziak II* diskoan, bestalde, Arrasateko Leire Etxezarretak, Eider Garrok eta Maider Azkarraga-Urizarrek egindako *Isilduak* kanta jaso dute. *Gure oroitzapenak* filmean, berriz, Asier Altuna *Kixi*-ren eta Mireia Gabilondoren lana dago.

Bailarako beste kultura ekoizle batzuek, ordea, azokako stand partekatu dute beste artista batzuekin. Horixe da, esaterako, Bergarako Ertzak eta Nomadak taldeen kasua. "Beste egile batzuekin batera erakutsiko dugu geuk egindakoa. Nomadak taldea, esaterako, Egurra eta Kitto, Pott Produzioak eta Dekot taldearekin dago eta Ertzak, Jokin Trikitixarekin eta Julen Alonsorekin", dio Aritz Alustiza musikariak. Bi standak bata bestearen segidan daude Goienkalen. Bi produktuekin egongo da Alustiza azokan, baina ez da bakarri izango. Juan Martin Elexpuruk ere bi liburu izango ditu han: Estepan Plazaolarekin batera idatzitako *Urdiratz* eta Antzineko udalekuei buruzko liburua, batetik, eta Iruña-Veleiakoari buruzkoa, bestetik, Badihardugurekin bata eta Pamielarekin bestea. Eta Arrasateko RIP taldearen kasuan, Kataluniako Silencio Toxico fanzinekoek egin duten *Larga vida a RIP* liburu-fanzinea eramango dute Musika Zuzenean standera.

Autoekoizleen plaza

Autoekoizleen gunean izango diren hamazazpi ekoizleren artean ere badira bailaran bizi edo lan egiten dutenen produktuak. *He-*

rensugeen itzulera ipuina egin duen Bergarako familiak, esaterako, hortxe egoteko ahaleginak egin ditu. "Pena izan da, gure proiektuaren azken etapa delako saltzea, eta azokan egon gura genuen ipuina bisitariei zuzenean saltzeko. Egun, Bergarako Mariaren Lagundia ikastetxean eta Tximeleta litxar dendan saltzen ditugu eta gure hurrengo erronka da webgune bat sortzea eta horren bitartez gure ipuina saltzea", dio egileetako batek, Ander Errastik, aitak. Stand horretan egongo dena Ane Odriozola da, Arrasateko Bezeroen Arreta Bulegoan lan egiten duen legazpiarra. *El secreto de Gibola* liburua eramango du Odriozolak azokara; liburuaren bigarren edizioarekin joango da. Familiako historia sekretu batekin egiten du topo ustekabeen Nereak eta ikertzen hasten da, egia jakin guran. Oso erraz irakurtzeko moduan idatzi du liburua Odriozolak eta Donostia eta Legazpiko, Brinkolako, istorioak eta XX. mende hasierako historia jasotzen ditu oso modu arinean. Muted taldeak ere, bide batez, autoekoizleen gunean erakutsiko du bere azken lana: *Krisis 4.0*.

28 LAN AURKEZTU DITUZTE SORMEN BEKARA; HILAREN 6AN JAKINGO DA IRABAZLEA

INKLUSIBOAGOA IZATEKO BIDEAN, PAUSO GEHIAGO EMAN DITUZTE AURTENGO AZOKAN

AUTOBUSAK IZANGO DIRA AUTOBIDE ONDOKO APARKALEKUETARA 20 MINUTUAN BEHIN


200 KULTURA EKITALDI ETA 247 ERAKUSLEIHO EGONGO DIRA LANDAKO GUNEAN



HERRIKO FESTETAN

Potx eta Lotx

Lanku



MIGUEL MADARIAGA

Yon Suinaga

Elkar



ARRIKRUTZEKO LEHOIA

Aranzadi Zientzia Elkarte

Aranzadi Zientzia Elkarte



TXORI MEZULARIAK

Joseba Erastegi 'Eltzikorta'

Ataramiñe



BERTSOLARITZAREN BILAKAERA...

Kolektiboa

Lanku



BIDEAN

Helena Azkarragaurizar

Denonartean



BURUZ BURU
Kolektiboa
Lanku



EGUNAREN HONDARRAK
AED
ELKAR



HERENSUGEEN ITZULERA
Ander Errasti eta familia
Auto ekoizleen plaza



HUMANITY AT MUSIC
Mondragon Taldea
MU, Elkar eta Eroski



TELESFORO MONZON
Pako Sodupe
Texpertoa



URDIROTZ ETA ANTZIN
E. Plazaola eta J.M. Elexpuru
Badihardugu



2019 ILARGIAREN EGUTEGIA
J. Errekondo eta P. Zabala
Argia



AMETSAK DIRA EGI ERABAT...
The Potes
Mauka



ANITA PARKER!!
Anita Parker
Mauka



BAKARKA
Ruper Ordorika
Elkar



BUZZED OUT!!
Screamer & Sinners
Mauka



DONOSTIAKO PIRATAK 2018
Des-kontrol
Mauka

Debagoiendarren aurkezpenak

ABENDUAK 5

- **Markel Irizar.** Emoción. Tolin Photographer. Irizar eta Haimar Zubeldia. 15:00etan areto nagusian.
- **Huntza.** Kontzertua. 23:00etan, Plateruena.

ABENDUAK 6

- **Gure Oroitzapenak.** Joseba Sarrionandiaren poema liburuak. 16:30ean areto nagusian.
- **Anita Parker.** Anita Parker II. 13:40an Ahotsenean.
- **The Potes.** Ametsak dira egi erabat bete aurretik. 15:40an Ahotsenean.
- **Nomadak.** Hasieratik. 16:40an Ahotsenean..
- **Euskal Herriko Trikitixa Elkarte.** Haziak II. 17:40an Ahotsenean.
- **Lanku.** Bertsolaritzaren bilakaera genero ikuspegitik. Infografia. 13:00tan Ahotsenean.
- **Gure oroitzapenak.** Film luzea. 12:30ean Irudienan.
- **Kimuak.** Espedizio handia film laburra. 18:45ean Irudienan.
- **Hika Teatroa.** Txarriboda. 19:00etan Szenatokian.

ABENDUAK 7

- **LPM** Botaba euskal esamoldeen sari banaketa. 15:30ean areto nagusian.
- **Mondragon Taldea.** Humanity at music soinu banda. 14:30ean areto nagusian.
- **Ertzak.** Gaur. 15:00etan Ahotsenean.

ABENDUAK 8

- **Txintxua films.** Soinujolearen semea filma. 12:30ean Irudiena guneko areto handian, gonbidapen bidez
- **Pello Zabala eta Jakoga Errekondo.** 2019 Ilargiaren egutegia. 16:00etan areto nagusian.
- **LPM.** Lope filma. 18:00etan Irudiena gunean.
- **Txintxua films.** Dantza dokumentala. 19:00etan Irudienan
- **Asier Altuna.** Aupa Etxebeste proiektuaren aurkezpena 17:00etan Irudiena gunean.
- **Aitor Alberdik eta Ander Larrañaga.** Apodaka film laburra 17:30ean Irudiena gunean.
- **Pako Sodupe.** Telesforo Monzon, aristokrata abertzalea liburua. 16:30ean areto nagusian
- **Errasti familia.** Herensugeen itzulera ipuinaren aurkezpena 15:00etan Saguanbaran.
- **Bidelapurrak.** Gorriak eta bi lana. 17:00etan Ahotsenean.

ABENDUAK 9

- **Estepan Plazaola eta Juan Martin Elexpuru.** Urdirutz eta Antzin. Euskal udalekuak historia eta istorioak. 12:30ean areto nagusian.
- **Dorleta Kortazar.** Heldu eskutik izeneko ipuin kontaketa familia osoarendako. 12:00etan Saguanbaran.



Egun guztian egongo da zabalik Azoka. GOIENA



EKINTZEK DUTE HITZA

Brigade Loco

Musika zuzenean



GAUR

Ertzak

Goienkale 46



GORRIAK ETA BI

Bidelpurak

Musika zuzenean



HASIERATIK

Nomadak


Goienkale 47



HAZIAK II

Euskal Herriko Trikitixa Elkarte

Euskal Herriko Trikitixa Elkarte



KRISIS 4.0

Muted

Autoekoizleen plaza



PEDALEANDO

Juan Carlos Irizar

Elkar



XILEMA

Huntza


Mauka



URREZKO KAIOLA

Perlata

Musika zuzenean



Egunero jasoko du azokako giroa Azoka Telebistak. GOIENA

Etxeko telebistan ere, DA!

Azoka Telebistak berrikuntza asko izango ditu aurtengo Durangoko Azokan. Batetik, ibiltaria izango da; ez du platorik izango. "Hainbat gunetan egon gura dugu, eta jaso hor gertatzen dena", dio Azoka Telebista koordinatuko duen Goiena telebistako zuzendari Oihane Agirrek. Gainera, ibiltaria izateaz gain, zuzeneko musika emanaldiak ere jasoko ditu. "Aurreko urteetan, taldeen bideoklipak bota ditugu. Arrakasta izan du, eurendako erakusleihu polita izan da. Aurtengo proposatu diegu Plateruenako saioak jasotzea eta ondo ikusi dute. Hala, abenduaren 6an, 7an, 8an eta 9an, zuzeneko telebista saioa egingo dugu handik, 12:00etan. Taldeko kideak elkarriketatuko ditugu, euren bideoklipa erakutsi, eta sorpresaren bat ere egongo da", adierazi du Agirrek.

'Hautsi bolumena' da saioaren izena

Aurtengo, gainera, saio berezi bat egingo dute, etxeko telebistatik ikusi ahal izango dena. *Hautsi bolumena* du izena saioak eta egunero eskainiko dute tokiko telebistek, 21:30ean. "Azoka Telebistak jasotzen duen ikus-entzunezko guztia egongo da ikusgai gauean tokiko telebistetan. Ordu pare bateko iraupena izango du eta azokaren laburpena eskainiko du. Esaterako, eguerdian Plateruenan egindako saioa ikusiko da, baina baita Ahotseneako kontzertuak eta azokak emandako beste irudi eta elkarriketa ugari ere", dio Oihane Agirrek.

Sare sozialen bitartez ere emango dute azokan gertatzen denaren berri, eta, horretarako, sare sozialetako propio sortuko diren ikus-entzunezkoak egingo ditu Azokako Telebistarako lanean egongo den Goienako lantaldeak. "Helburua da han gertatzen dena ikus-entzunezkoetan jasotzea eta ahalik eta gehien hedatzea. Eta erakutsiko ditugu, adibidez: Durangoko Azokako Facebook, Twitter, Instagram eta azokako webgunean".

AZOKA TELEBISTA

DURANGOKO AZOKA TELEBISTAKO SAIOAK GOIENA TELEBISTAN
ABENDUAREN 5ETIK 9RA, 21:30ETIK AURRERA

BABESLEA:
DURANGOKO AZOKA



goiena
Zu hemen zaude.



"Arrasatekoa erronka handienetarikoa da"

MARIA ZUBIMENDI AKORDEOI-JOLEA

Zumaiarrak iazko Arrasate Hiria nazioarteko akordeoi lehiaketa irabazi zuen Torkar esloveniarrarekin batera. Aurtengo txapelketa bihartik domekara arte izango da

Josu Bilbao ARRASATE

Maria Zubimendik Neza Torkar esloveniarrarekin batera 2017ko Arrasate Hiria lehiaketa irabazi zuen. Hori dela eta, bi emaldi eskainiko dituzte biek aste honetan. Bihar, Aretxabaletako Arkupe aretoan –20:00etan–, eta egubakoitzean Arrasateko Kulturaren –20:00etan–. Bi kontzertuak doan izango dira.

Urtebete pasa ostean, nola gogoratzen duzu Arrasaten bizi izandako erronka hura?

Egia esan, prozesu gogorra izan zen; azken batean, minutu askoko programa bat prestatzea lan handia da. Gainera, lehiaketa baterako prestatzen duzun presioarekin... Jakinda gero epaitua izango zarela... Hala ere, lehiaketa iritsi denean, oso polita izan da beti. Hainbeste denbora eskatzen duen lan bat sarritza ere gustura hartzen da.

Sentsazio onekin etorri zinen, ezta? Horregatik parte hartu zenuen.

Nik gaztetatik daramat lehiaketetan parte hartzen. Arrasatekoa erronka handienetarikoa bat da, mundu mailan garrantzitsuenetarikoa delako. Etxe ondoan edukita, gainera, zentzu berezi bat hartzen du lehiaketa honek. Denbora nuen, eta niretzako momentu ona izan zen prestakuntza lan horretan sartzeko.



Maria Zubimendi. TXOMIN MADINA

Egia da lehiaketek, batzuetan, zorte puntua ere izaten dutela. Zure maila duten beste askorekin elkartzen zara, azkenean.

Horrelako lehiaketetan piezak aukeratzeko orduan askatasuna izaten duzue?

Lehiaketaren arabera izaten da. Arrasateko kasuan, adibidez, lehen fasea bai izaten da derri gorrezko obra bat, eta gero, bigarren fasean ere zerrenda bat jartzen dute. Besteak, berriz, libre izaten dira. Hala ere, Arrasatekoak zerbait berezia badu: epaimahaiak ez du estetika jakin

bateko musika bilatzen, baizik eta oso plurala dena. Mundu osoko tokietatik etortzen da jendea, eta oso erreperitorio ezberdinekin. Alde horretatik, oso lehiaketa irekia da. Iazkoa adibidea garbia da. Neza Torkarrek eta nik berdinketa teknika egin genuen iaz, eta oso profil ezberdina dugu.

Biharko eta egubakoitzeko emanaldietan lehiaketan erabilitako erreperitorioa joko duzu?

Ez, erreperitorio berria prestatu dut. Lehiaketara aurkeztu zaren erreperitorioarekin eroso sentitu behar duzu, baina luzimendua ere bilatu behar duzu. Emanaldira eramango dudana erreperitorioa ere oso anitza izango da. Luciano Berio-ren *Sequenza* joko dut eta guztiz ezberdina den Bach-en obra bat ere joko dut. Bukatzeko, Francisco Dominguez-en obra bat joko dut, akordeoi elektronikokoa. Lehiaketa baten ez duzu elektronika jartzeko askatasunik, adibidez.

Zuk non bilatzen duzu luzimendua?

Erreperitorio garaikidea asko gustatzen zait. Hori da nire berezitasuna. Iñaki Alberdirekin ikasi nuen, Musikenen, eta estetika hori asko lantzen du. Gauza gehiago egitea ere gustatzen zait, klasikoa ere bai, baina ni garaikidean sentitzen naiz eroso.

Escamot taldearekin batera dantzaldi berezia Espaloian

Egubakoitzean, abenduaren 7an, Herrixa Dantzan ekimeneko beste saio berezi bat egingo dute Elgetan

J.B. ELGETA

Escamot Catala taldearekin dantzaldi saio berezia antolatu du Herrixa Dantzan ekimenak, Elgetako Udalarekin batera, Espaloia kafe antzokian –abenduaren 7an, 20:00etan–.

"Aurten laugarren aldiz antolatu dugu Euskal Herritik bira. Iruñeko eta Elgetako plazak finkatu dira, eta aurten, Durangora, Zarautzera eta Altsasura ere joango gara. Adibidez, Elgetan oso harrera beroa egingen

digute. Patxi Monterok antolatzen du eta jende asko hurbiltzen da", azaldu du Escamot taldeko Mikel Juanizek.

"Dantza mota hau ez da oso ezaguna hemen; beraz, ez du jarraitzaile askorik. Hala ere, dantza nahiko errazak dira. Batez ere, jendeak lehenengo momentutik dantzatzeko eginak daudelako", adierazi du Mikel Juanizek.

Saioa doan izango da, eta Eko Taloak etxeak eskainitako taloak eta edariak ere egingo dira.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko abenduko sariak!



Telebista

LG 32LJ50 80CM/32

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeke, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremendenda.org

Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bakidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrendagien LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dugu zure datu pertsonal Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitxategi automatizatu batean sartuko direla. Datu biltzearen helburua da baina da indarrendagien datuaren gestioa. Eskubidea izango duzu datuak sartzea, berrizatuzea edo ezabatzea. Helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

TABERNA BERRI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bakidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker

"Gofazen" antzezlan musikaturako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Abenduaren 16an | 17:00etan

PARTE HARTZEKO:

E-posta: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Antzerkia" [bakidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrendagien LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dugu zure datu pertsonal Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitxategi automatizatu batean sartuko direla. Datu biltzearen helburua da baina da indarrendagien datuaren gestioa. Eskubidea izango duzu datuak sartzea, berrizatuzea edo ezabatzea. Helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Eta 2019 urte osorako harpidetza ORAIN eginez gero, 2018ko ABENDUA DOAN!! 2019 urte osoa 56 euro! Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

OROIGARRIA

Jose Luis Lizarralde Galdos



Gure bizitzan izan zarela zu gure parte irudi hoiak guregan beti oroimen ona dakarte ohore handiz bihotz-bihotzez agur, Jose Luis, betirarte.

izpi

Zuzendaritza, bazkide eta langileak. Bergaran, 2018ko abenduaren 5ean.

URTEURRENA

Felisa Bengoa Ezkibel

2017ko abenduaren 9an hil zen, 91 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 9an, 11:00etan, Eskoriatzako Bolibar auzoko San Migel elizan.

—

Beti izango zaitugu gogoan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Eskoriatzan, 2018ko abenduaren 5ean.

URTEURRENA

Felix Zubia Orobengoa

2017ko abenduaren 4an hil zen, 73 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, abenduaren 8an, 12:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.

—

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2018ko abenduaren 5ean.

URTEURRENA

Joxe Olabe Zuazua



2017ko abenduaren 9an hil zen, 82 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 9an, 11:30ean, Aretxabaletako Andra Mari elizan.

—

Beti gogoan izango zaitugu.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, etxekoen izenean. Aretxabaletan, 2018ko abenduaren 5ean.

URTEURRENA

Aurora Telleriarte Eguidazu

2017ko abenduaren 5ean hil zen, 90 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 9an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokan.

—

Bere ahizpak, Sol eta Luz.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2018ko abenduaren 5ean.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguruia izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

HILDAKOAK

- Jose Luis Lizarralde Galdos. Bergaran, azaroaren 29an. 71 urte.
- M. Pilar Beitia Arejolaleiba. Aretxabaletan, 30an. 87 urte.
- Pedro Maria Osa Unamuno. Arrasaten, 30ean. 84 urte.
- Valentin Alfonso Almenar Gonzalez. Arrasaten, abenduaren 1ean. 69 urte.
- Antonio Marquina Beltran. Arrasaten, 1ean. 75 urte.
- Jose Tomas Galdos Montoya. Arrasaten, 2an. 69 urte.
- Jabier Armendariz Zubizarreta. Eskoriatzan, 2an. 85 urte.
- Valentina Garcia Garcia. Bergaran, abenduaren 3an. 81 urte.
- Presentacion Garces Campos. Bergaran, 3an. 92 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 7	ETXEBERRIA: Zaruvalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Zapatua, 8	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Domeka, 9	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Astelehena, 10	BERNANDEZ: Musakola, 11 / 943 79 22 26
Martitzena, 11	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Eguaztena, 12	SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Eguena, 13	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 7	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 8	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 9	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 10	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 11	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 12	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 13	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 7	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 8	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 9	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 10	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 11	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 12	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 13	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2018ko abenduaren 31ra arte:
IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2018 osoan:
MOZOS: Iparragirre 2
943 76 12 15

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Euskararen Eguna, Maider Undarekin**

Aramaiko borrokalaria Bilboko Cervantes eskolako bosgarren mailako ikasleekin ospatu zuen Euskararen Eguna. Solasaldia eduki zuen haiekin, eta, bereziki, Londresen irabazitako dominaren inguruko galderak egin zituzten. Ikasleen zaletasunei buruz ere egin zuten berba. Basque Team taldeko koordinatzaile Olatz Legartza ere egon zen.

2. 1973an jaiotako en ospakizuna

Aurreko zapatuan elkartu ziren urte hartan jaiotakoak, urteko bazkaria egiteko. Goizeko poteoaren ostean, Arteaga jatetxean bazkaldu zuten. Ostean, dantzaldia egin zuten DJ batek girotuta. Arrasatera itzuli zirenean, festarekin jarraitu zuten. Ederto ibili ziren elkarrekin, eta dagoeneko hurrengo urterako deialdia egin dute.

3. Urteko azken irteera

Pol-Pol Mendizale taldeko beterranoek urteko azken ibilaldia egin zuten aurreko domekan. Otzaurte-Araia ibilaldia egin zuten. "Eguraldi ederrarekin ibili gara, eta, ibilaldia bukatu ostean, Araian bertan bazkaldu dugu, elkarrekin". Aurtengo egutegia bukatuta, hasi dira dagoeneko 2019rako irteera proposamenak egin.

4. Gaztetxera bisita

Larrañako egoitzan dauden asilo-eskatzaileak hasi dira herrian integratzen. Herriko futbol txapelketarako taldea osatu dute, aurreko astean Bergarako Mariaren Lagundian egon ziren bisitan, eta, oraingoan, Oñatiko gaztetxean. Eraikina ezagutu eta gazteekin euren esperientziak eta bizipenak partekatzeko aukera izan zuten.

5. 'Larga vida a RIP' liburu-fanzinea

Aurreko zapatuan, Bergarako kartzela zaharrean aurkeztu zuten *Larga vida a RIP* liburu-fanzinea eta diskoa. Kataluniako Silencio Toxico fanzinearen egile eta proiektu honen gidari Judith Uriach eta Nando Alonso eta, RIpeko Txerra Bolinaga egon ziren aurkezpenean. 35 bat lagun egon ziren aurkezpenean eta talde argazkia egin zuten bukaeran.


6. Eskola Kirolekoak, Euskaraldiarekin

Oñatiko Eskola Kiroleko hainbat kidek mendi irteera egin zuten aurreko asteburuan. Eta, datak Euskaraldiarekin bat egiten zuela ikusita, ariketa sozialean parte hartzeko konpromisoa hartu zuten. Talde argazkia erakutsi zuten hori. Ederto ibili ziren neska-mutikoen eta euren gurasoak Oñati inguruetan egindako ibilaldian.

ZORION AGURRAK



BERGARA
Paco Moreno
Abenduaren 12an, 60 urte. Zorionak, aitzitxa! Egun berezia gaurkoa, 60 urte borobil betetzen dituzu-eta. Merezi duzun moduan ospatuko dugu. Muxu eta besarkada erraldi bat, etxeko eta, bereziki, Kenarren eta Alaineren partetik.



BERGARA
Marisa Escobar Miranda
Abenduaren 12an, 58 urte. Zorionak, amama! Merezi duzun moduan ospatuko dugu eguna. Muxu eta besarkada erraldi bat, etxeko eta, bereziki, Kenarren eta Alaineren partetik.



ANTZUOLA
Eneritz Zubikarai Aguado
Abenduaren 12an, 7 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, etxeko partetik.



ARAMAIO
Paule Avila Hernando
Abenduaren 12an, 4 urte. Zorionak, Paule, zure urtebetetzean. Egun zoragarria izan eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



OÑATI
Peru Orueta Santos
Abenduaren 11n, 7 urte. Zorionak, Peru, danon partetik. Bereziki zure arreba Natalek! Ondo pasatu zure zazpigarren urtebetetze eguna! Zorionak, txapeldun!



BERGARA
Urko Muruamendiaraz Arevalillo
Abenduaren 10ean, 6 urte. Zorionak, pitxin, Anouken, amaxoren eta aitaoren partetik. Ederto ospatu zure eguna.



OÑATI
Maier Urteaga Zubia
Abenduaren 9an, 3 urte. Zorionak, Maier! Muxu eta besarkada erraldi bat etxeko partetik, zure hirugarren urtebetetzean.



OÑATI
Aner Errasti Urrate
Zorionak, Aner! Abenduaren 9an, 7 urte! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta muxu handi bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
Naia Rueda Cabanillas
Abenduaren 8an, 9 urte. Zorionak, Naia! Oso ondo pasatu zure bederatzigarren urtebetetzean! Muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



BERGARA
Alaitz Garai Zenitagoia
Abenduaren 8an, 7 urte. Zorionak, poppolintxo! Primeran ospatu zure eguna eta patxo erraldi bat, familia osuaren partetik.



ANTZUOLA
Andoni Sanchez Sanchez
Abenduaren 8an, 3 urte. Zorionak, txikitxo. Egun zoragarria pasa ezazu, maite zaituen jendez inguratuta. Musuak, gurasoen eta, bereziki, Nagoreren partetik.



ESKORIATZA
Aner Ortiz Esnaola
Abenduaren 7an, 7 urte. Zorionak, kapitain! Zure eguna ondo pasatzea opa dizugu familia osoak. Bereziki aitaok, amaxok eta Aimarrek. Muxu potolo bat!



OÑATI
Izaro Markuleta
Abenduaren 7an, urtebete. Zorionak, maittia, familia danaren partetik. Urtetxo bat dagoneko.



OÑATI
Maider Igartua
Abenduaren 7an, 24 urte. Zorionik beruenak, etxekuan eta lagunaren partetik! Ondo ospatu 24 urtiak eta muxu goxo asko!



BERGARA
Oier Osa Zabala
Abenduaren 7an, urtebete. Zorionak, pottoko! Urtebete jada gurekin zarela. Segi zure irrifar horrekin gure etxia alaitzen! Aita, ama eta Iratxe.



ARETXABALETA
Aner eta Unax Maria Tercero
Abenduaren 5ean, 8 urte. Zorionak, txapeldunak! Gure bizipoza zarete. Horrelako alai eta pozik jarraitu dezazuela. Egun zoragarria izan. Muxu pila bat, familia osoaren partetik.



BERGARA
Maddi Elexpuru Gonzalez
Abenduaren 4an, 2 urte. Zorionak, Maddi, zure bigarren urtebetetzean! Asko maitte zaitugu! Patxo handi-handi bat!



OÑATI
Garazi Beitia Urkia
Abenduaren 3an, 2 urte. Zorionak, maitia! Musu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Oier Kortazar Lasagabaster
Abenduaren 3an, 9 urte. Zorionak, Oier, etxeko danon partetik! Jarraitu horrela, beti bezain alai eta umoretsu! Patxo handi bat!



ARRASATE
June Iriarte Balerdi
Abenduaren 3an, 11 urte. Zorionak, printzesa! Muxu potolo bat, etxeko danon partetik. Ondo pasatu!



OÑATI
Laia Aramendi Urkia
Abenduaren 2an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo. Muxu potolo bat, etxeko partetik.



ARRASATE
Benja Ramos
Abenduaren 2an, 36 urte. Zorionak, aitaok! Disfrutatu asko zure eguna! Musu potolo bat, gure partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUAZTENA 5

ESKORIATZA Gabonetako argien piztuera

16:45ean, eskulan tailerrak;
18:00etan, txokolate-jana;
19:00etan, *Merkatari* aplikazioaren bideoa; eta ostean, argien piztuera.
Fernando Eskoriatza plazan, 16:45ean.

ARETXABALETA Gaztaina-saltzailea kalean

Aretxarte merkatarien elkarteak gonbidatuta.
Herriko kaleetan, 18:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Bertako produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

EGUENA 6

ARRASATE 'Argala'-ri buruzko hitzaldia

Iñaki Gil de San Vicentek egingo du berba *Argala*-ren ekarpenen gaurkotasanari buruz.
Gaztetxean, 11:30ean.

BERGARA Ohe elastikoak

Gabonetako ekintza, urtarilaren 6ra arte.
Munibe plazan, 11:30ean.

LEINTZ GATZAGA 'Gipuzkoako urre zuria', bisita gidatua

Gatz ekoizleen historia ezagutzeko bisita gidatu berezia. Aurrez eman behar da izena: 943-72 20 42 edo *turismo@debagoiena.eus.*
Gatz Museoan, 12:00etan.

OÑATI 'Giltzapeko altxorrak', bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko bisita gidatu berezia. Aurrez eman behar da izena: 943-78 34 53.
Turismoa Bulegoan, 13:00etan.

ELGETA 'Go!azen' antzezlana

Go!azen telesaileko aktoreek egindako antzerkia. Bi emanaldi egingo dituzte: 17:00etan eta 19:00etan. Sarrerak, hamabost euro.
Espaloian.

EGUBAKOITZA 7

OÑATI Azoka

Aurreratu egiten da zapatuko azoka.
Foruen plazako aparkalekuan, 09:00etan.

ESKORIATZA Durangoko

Azokara bisita

Gaztetxoendako. Itzulera 17:30ean egingo dute.
Akeitako geltokian, 10:30ean.

ARETXABALETA Durangoko

Azokara bisita

Gaztetxoendako. Itzulera 17:30ean egingo dute.
AZBEko geltokian, 10:30ean.

OÑATI 'Giltzapeko altxorrak', bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko bisita gidatu berezia. Aurrez eman behar da izena: 943-78 34 53.
Turismoa Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI Santa Lutzia jaiak Berezaon

17:00etan, haurrentako txokolate-jana; eta 22:00etan, mus txapelketa.
Auzoko elkartean.

BERGARA Beart elkartearen erakusketa

Taldeko kideen lanen bilduma ikusgai gaurtik hilaren 16ra arte.
Aroztegin, 18:00etan.

ARETXABALETA Pintura erakusketa

Blanca Martinez Colinoren lanak ikusgai hilaren 29ra arte.
Arkupen, 18:00etan.

OÑATI 'Emakume zirkulua'

Creciendo Con Arte taldearen eskutik.
Eltzian, 19:00etan.

ELGETA 'Herrixa Dantzari'

Hirugarren urtez, Escamot Catala taldekoekin dantza saioa.
Espaloian, 20:00etan.

ARETXABALETA Organo kontzertua

Aitor Olearen emanaldia. Debalde.
Parrokian, 20:00etan.

ARRASATE Akordeoi kontzertua

2017ko Arrasate Hiria txapelketa irabazi zuten Maria Zubimendiren eta Neza Torkarren kontzertua.
Kulturaten, 20:00etan.

ZAPATUA 8

OÑATI Autobusak Arantzazura

Jaiegunetako ordutegiarekin egingo du lan zerbitzuak; lehena 07:30ean Oñatin eta azkena 19:00etan Arantzazun.
Autobus geltokian.

ARRASATE Durangoko Azokara bisita

Gaztetxoendako. Itzulera 17:30ean egingo dute.
Garibaiko geltokian, 10:30ean.

BERGARA 'Arte erlijiosoa Bergaran', bisita gidatua

Ariznoako San Pedro eta Santa Marina parrokiak ezagutzeko bisita gidatu berezia. Aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63 edo *turismo@debagoiena.eus.*
Laboratoriumen, 12:00etan.

OÑATI 'Giltzapeko altxorrak', bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko bisita gidatu berezia. Aurrez eman behar da izena: 943-78 34 53.
Turismoa Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI Santa Lutzia jaiak Berezaon

14:30ean, bazkaria; eta ostean, erromeria.
Auzoko elkartean.

ARETXABALETA 'Denboraren taupadak' antzezlana

Patata Tropikala taldearen eskutik, 5 urtetik gorakoendako emanaldia. Sarrerak, hiru euro.
Zaraia aretoan, 17:00etan.

ARETXABALETA Gabonetako ekintzak erabakitze batzarra

Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 17:30ean.

ESKORIATZA Gabonetako ekintzak erabakitze batzarra

Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 17:30ean.



IMANOL SORIANO

ARETXABALETA Maria Zubimendi eta Neka Torkar

2017ko Arrasate Hiria akordeoi lehiaketa irabazi zuten bi emakumeen kontzertua. Errepertorio berriekekin datoz biak ala biak. Aurtengo txapelketari hasiera emango dion emanaldia izango da.
Bihar, eguena, Zaraia aretoan, 19:30ean.

DOMEKA 9

OÑATI Bigarren eskuko azoka

Kaleko elkartasuna, bigarren eskuko disko eta liburu salmenta.
Udaletxeko arkupetan, 09:00etan.

BERGARA Emakumezkoen eskubaloi txapelketa

Bergara Hiria txapelketa jokatu dute Debagoieneko eta Gipuzkoako selekzioek eta Kukullagak.
Labegaraietan, 10:00etan.

OÑATI 'Oñatiko Magdalenako ermita', bisita gidatua

Frantzisko Borjakoak etxe moduan erabili zuen elizaxoa ezagutzeko aukera. Aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63 edo *turismo@debagoiena.eus.*
Madalenako ermitan, 11:00etan.

OÑATI 'Giltzapeko altxorrak', bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko bisita gidatu berezia. Aurrez eman behar da izena: 943-78 34 53.
Turismoa Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI 'Go!azen', antzezlana

Go!azen telesaileko aktoreek egindako antzerkiaren emanaldi bikoitza: 16:30ean eta 18:30ean.
Gaztelekuan.

ARETXABALETA Gabonetako ekintzak erabakitze batzarra

Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 17:30ean.

ARETXABALETA Gabonetako ekintzak erabakitze batzarra

Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 17:30ean.

ARRASATE Talogintza ikastaroa

Gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

ARRASATE 'Operación ogro' pelikula

Gillo Pontecorvo zuzendariaren pelikula, eta ostean, solasaldia. Jose Miguel Beñaran *Argala*-ren heriotzaren 40. urteurrena oroitzeko.
Gaztetxean, 18:00etan.

ARRASATE 'Lope' filma

Lope Agirre konkistatzailea oinarri hartuta, Oñatiko LPM taldeak egindako lana.
Irati tabernan, 19:00etan.

OÑATI The Woolly Bushmen taldea

Arduino diskoa aurkeztuko du Floridako hirukoteak.
Itturri tabernan, 19:30ean.

ARRASATE Akordeoi lehiaketa

Sari banaketa ekitaldia.
Amaia antzokian, 20:00etan.

ASTELEHENA 10

BERGARA 'Nuevo estatus vasco y ponencia de autogobierno' hitzaldia

Juanjo Alvarezek egingo du berba.
Seminarixoan, 10:00etan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan

ELGETA Bingo saioa
Erretiratuendako.
Ozkarbi elkartean, 17:00etan.

OÑATI Espetxeetarako material bilketa
Barruko arropak, txandalak, txankletak, kirol oinetakoak, turroi biguna, tabako gorria, azazkalak moztekoak eta zigituak.
Garoa aretoan, 18:00etan.

ARRASATE 'Gabonak, etxean norbait falta denean', hitzaldia
Doluari buruzko berbaldia egingo dute Maite Urzainek eta Eider Otzoak.
Kulturaten, 18:30ean.

MARTITZENA 11

OÑATI Jostailu truke azokarako bilketa
Gaur jasoko dute materiala.
Ludotekan, 16:45ean.

OÑATI Bingo saioa
Erretiratuendako.
Eltzian, 17:00etan.

ELGETA 'La fiesta de la Madonna' antzezlan
Oroimenak antzerki taldearen lana, erretiratuendako.
Espaloian, 17:30ean.

OÑATI 'Erantzukidetasuna, zainketan' saioa
Adinekoak eta Familiak kanpainaren baitako berbaldia.
Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.

OÑATI Emakumeen jabetze eskola
Dantza eta perkusio afrikar ikastaroa.
Eltzian, 18:00etan.

OÑATI Espetxeetarako material bilketa
Barruko arropak, txandalak, txankletak, kirol oinetakoak, turroi biguna, tabako gorria, azazkalak moztekoak eta zigituak.
Garoa aretoan, 18:00etan.

OÑATI 'Arrikruz' liburuaren aurkezpena
Atapuercako zuzendari Juan Luis Arsuagak egingo du berba. Era berean, AMET taldea, Zubeldia eta Ruiz de Arkaute omenduko dute.
Santa Anan, 19:00etan.

EGUJAZTENA 12

BERGARA Langabetuendako ikastaroa
Automatizazio-sistema industrialek muntaketa eta zainketa ikastaroa egingo dute. Izena emateko: 943-76 70 49 edo *ikastaroak@maltuna.eus*.
Miguel Altuna institutuan.

BERGARA Kafe-konpon
Etxeko tresna txikiak konpontzeko tailerra.
San Joxepen, 16:00etan.

ELGETA Alai Abesbatza
Bergarako taldearen emanaldia. Sarrera, debalde.
Espaloian, 18:00etan.

OÑATI Espetxeetarako material bilketa
Barruko arropak, txandalak, txankletak, kirol oinetakoak, turroi biguna, tabako gorria, azazkalak moztekoak eta zigituak.
Garoa aretoan, 18:00etan.

ARETXABALETA Umeendako bertso-liburuaren banaketa
Leikaixoka bertso eskolakoei 2017an jaiotako umeendako egin duten bertso liburuaren banatuko diete, Igor San Juan musikariak girotuta.
Arkupen, 18:30ean.

EGUENA 13

ELGETA 'Hitzez Pitz' solasaldia
Martin Ansoren *Ele zahar ele berri* liburutik hartutako pasarteak. Saio bat goizez eta bestea arratsaldean.
Liburutegian, 10:00etan.

ARRASATE Sasoibideren ibilaldia
Biteri-Mojategi-San Isidro-Nafarroa etorbidea-Biteri ibilbidea egingo dute.
Biterin, 10:00etan.

OÑATI Jostailu truke azokarako bilketa
Gaur jasoko dute materiala.
Ludotekan, 16:45ean.

BERGARA 'Clown-a eta ahalduntzea'
Nerea Ariznabarretak gidatutako saioa, euskaraz.
Gaztelekuan, 17:30ean.

ARETXABALETA 'Nola hezi gure haurrak berdintasunean?', hitzaldia
Amelia Barquinen eskutik.
Kurtzebarri eskolan, 17:30ean.

ARETXABALETA 'Zer gertatuko litzateke Frankenstein berpiztuko balitz', ikuskizuna
Ana Galarragarekin, 8-10 urte artekoendako.
Liburutegian, 17:30ean.

OÑATI Espetxeetarako material bilketa
Barruko arropak, txandalak, txankletak, kirol oinetakoak, turroi biguna, tabako gorria, azazkalak moztekoak eta zigituak.
Garoa aretoan, 18:00etan.

ARRASATE 'Murren bidaia' antzezlan
Behibi's taldearen lana, 5 urtetik gorakoendako.
Kultureteko klaustroan, 18:00etan.

ARRASATE 'Baleak ikusi ditut' solasaldia
Literatura solasaldia euskaraz, Javier de Isusiren eskutik.
Kulturaten, 18:15ean.

OÑATI 'Internet eta teknologia digitalen eragina gure pentsamenduan: subjektu garaikidea garatzen', hitzaldia
Igor Tomek egingo du berba.
Gaztetxean, 18:30ean.

BERGARA 'Historia de los labradores y caserios de Bergara', hitzaldia
Alberto Santanak egingo du berba.
Irizar jauregian, 19:00etan.

ARRASATE Eskean Kristo
Kooltur Ostegunak kontzertua. Sarrerak, bost euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

OÑATI

KULTURA ETXEA

Bohemian Rhapsody
Eguena: 19:30.
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

El cascanueces y los cuatro reinos
Eguena, zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Malos tiempos en el Royale
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Horman erlojua duen etxea
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

Viudas
Zapatua eta domeka: 17:00.

Superlopez
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Durante la tormenta
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Los cinco y el valle de los dinosaurios
Zapatua eta domeka: 17:00.

GAZTEIZ

GORBEIA

Animales fantásticos
Eguaztena: 19:15, 22:00.
Eguenetik zaptura: 12:00, 19:15, 22:00.
Domeka: 12:00, 19:15.
Astelehenetik eguenera: 17:10, 19:15.

Robin Hood
Eguaztena: 17:30, 20:00, 22:30.
Eguenetik zaptura: 12:00,

17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 12:00, 17:30, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Ralph rompe Internet
Eguaztena: 18:10, 20:20, 22:30.
Eguenetik zaptura: 12:00, 18:10, 20:20, 22:30.

Domeka: 12:00, 12:00, 18:10, 20:20.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

El grinch
Eguaztena: 18:00, 19:50, 21:40.
Eguenetik domekara: 12:00, 16:10, 18:00, 19:50.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:15.

El cascanueces y los cuatro reinos
Eguenetik domekara: 12:00, 16:45.

Cadaver
Eguaztenetik zaptura: 18:40,

20:30, 22:20.
Domeka: 18:40, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Viudas
Eguaztenetik zaptura: 20:00, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Bohemian Rhapsody
Eguaztena: 17:10, 19:50, 22:30.
Eguenetik zaptura: 12:00, 17:10, 19:50, 22:30.
Domeka: 12:00, 17:10, 19:50.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:10.

Superlopez
Eguaztena: 18:10, 20:20, 22:30.
Eguenetik zaptura: 12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:10, 20:20.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

KRITIKA

Entre dos aguas ★★★★★

Zuz.: Isaki Lacuesta. **Herr.:** Espainia (2018). **Aktoreak:** Israel Gomez Romero, Francisco Jose Gomez Romero.

Bizitzaren bideak

ANTONIO ZABALA

Entre dos aguas-ek Donostia Zinemaldiko Urrezko Maskorra irabazi zuen. Izaki Lacuestaren lana dokudramatzat har dezakegu. Ikusten dugunak dokumentalen itxura dauka: agertzen diren pertsonaiek, egoerek eta horiei hurbiltzeko moduek oso errealek ematen dute. Pertsonaia nagusiak ez dira aktore profesionalak, baina kontatzen denak badauka horiekin lotura: ez da beraien bizitza. Duela hamabi urte, Lacuestak *La leyenda del tiempo* zuzendu zuen. Orain, zuzendaria istorio hartako pertsonaia batzuetara bueltatu da, haien bizitza azaltzeko. Zer gertatu zaien eta bakoitzak bizitzaren aurrean hartutako erabakiak ikusiko ditugu. Isra eta Cheito anaiak dira. Euren bizi-baldintzak ez dira errazak;

baina egonkortasuna heldu da Cheitoren bizitzara: emaztea eta seme-alabak ditu, eta, lanarengatik etxetik kanpo ordu asko pasa arren, familia sendoa dauka. Isra, aldiz, kartzelatik irten da, ez du lanik eta emazteak ez dio etxera bueltatzen uzten. Bidea aurkitu nahian dabil. Lacuestak pertsonaien ingurunea erakusten du: familia, lagunekin dituzten topaketak, anaiei arteko elkarriketak, pertsonaien momentu onak, etsipenezkoak... Hori guztia, gauzak behartu barik eta topikoetan erori barik. Sentiberatasuna eta naturaltasuna azaltzen ditu hemendik urte batzuetara jarraipena izan dezakeen istoriora gerturatzerakoan.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Vox, neofrankismoa

Euskaraldiaren balantzea egiteko egunaren zain geundela, ezusteko indarrak sartu da ekaitza, ekaitz beltza, gure irrati eta telebistetan, kriskitinaren eta oliba-olioaren lurraldetik. Andaluzia, langile xehe askoren lurraldea, oraindik ere latifundista eta lur-jabe handien lurra ere badela argi utzi nahi izan dute Vox bozkatu duten askok. Ultraeskuindarrak, muturreko eskuindarrak, eskuina, demokraziaren barne dagoen alderdi politiko itxura emateko izen-abizen hauek entzun ditugu igande gauek eta Andaluzia gobernatzeko alderdi eskuindarren elkartzea aldarrikatu dute zenbait kazetari eta arduradun politikok.

12 parlamentariarekin Andaluzia zuri-berdean sartu den ekaitz beltzari eman diezaiozun benetako izena: neofrankismoa. Urtetan atzean izan dugun itzala lotsagabetuta irten da bere gordelekutik eta bere helburu nagusienetako autonomia bertan behera utzi eta alderdi abertzaleon urraketa da. Gogoeta sakona egin beharko dute sozialistek Espainia mailan, baita Podemosek ere, populismoaren hazitik sortu baita Vox ere. Euskal Herrian izango duen eragina ere ez da makala izango, Madrilen ordezkaritza handia lortzen badu.

BUKATZEKO



Estatuko kirol prentsan emakumeekiko errespetu falta erakusten duten zenbait adibide. GOIENA

Kirol informazioa genero ikuspuntutik lantzen

Kirol kazetaritzan emakumezkoek gizonezkoek baino protagonismo txikiagoa dutela agerikoa da. Kontua da, baina, protagonista direnean ere, sarritan, errespetu falta handiak jasan behar izaten dituztela. Horiek zuzentzeko lanean hasita daude

Xabier Urzelai BILBO

Emakume kirolarien agerpena komunikabideetan eta publizitatean lelopean, EAEko komunikabideetako eta publizitate agentzietako ordezkariak –Goiena tartean– lan-saioa egin zuten joan den astean Bilbon. Begira sareak antolatu zuen lan-saioa; Emakundeko batzordea da, eta bere zeregina da aholkularitza

eskaini eta azterketak egitea, publizitatearen eta komunikazioaren eremuetan sexuaren bereizkeria mota oro desagerrarazteko. Hizlarietako bat RTVEko kazetari Paloma del Rio izan zen; besteak beste, Olinpiar Jokoei kate publikoan ahotsa jarri dien kazetaria: "30 urte daramatzat kirol kazetaritzan, eta denetarik ikusi dut. Eta be-



Begiraren eskuliburua. GOIENA

netan, ez dut uste aurrerapauso handirik eman dugunik. Nire jarrera, baina, beti izan da gustatu ez zaidan hori salatzearena, eta horrela jarraitu behar dugu".

Hala, Del Riok estatuko prentsako hainbat adibide negargarri erakutsi zituen –ondoko argazkikoak Begira sareak egin-dako txostenean batutakoak dira– eta Clara Sainz de Baranda kazetari eta irakasleak egin-dako doktore tesian batutako datuak ere erakutsi zituen: "2013-2014 urteen artean EAEko prentsako 15.000 albiste aztertu eta gero, gizonezkoek eskaini zitzaizkien tartea %91koa izan zen eta emakumezkoek, %5ekoa".

Gizartea, sentsibilizatuta

Egun, baina, gizartea parekidesuna eskatzen dabil, eta zenbait kazetariren hanka-sartzeen aurrean sare sozialetan autoerregulazio erreminta moduan balio dute. "Adibide moduan, duela gutxi Espainiako irrati nazional batean Joana Pastrana munduko boxeoko txapeladuna elkarriketatu zuen kazetari ezagunenetako batek [Jose Ramon de la Morenarekin] eta elkarriketa hasi orduko mutil-lagunik ba ote zuen edo makillatzen ote zen galdetu zion. Hori ezin da onartu".

Lanketa, Emakume Txokoarekin

Euskal komunikabideak hasi dira Begira sarearekin lanean, kirol kazetaritzan emakumezkoek dagokien protagonismoa emateko, eta egoki. Bide beretik, Goienak duela bi urte argitaratu zuen, Arantza Santestebanekin eta Arrasateko Emakume Txokoarekin elkarlanean, *Komunikazio parekiderantz* izeneko kazetaritza eskuliburua.

LEHEN ETA ORAIN, ETORKIZUNA IKASGAI

GOIENA TELEBISTA, ERREPORTAJEA

ABENDUAREN 13AN, EGUENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
BERGARAKO MIGUEL ALTUNA LANBIDE HEZIKETA IKASTETXEA, 90 URTE.
ARRASATEKO MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK, 75 URTE.
DEBAGOIENAREN NORTASUNEAN BI ERAGILE GARRANTZITSU.

JULEN IRIONDOREN ERREPORTAJEA.

goiena
Zu hemen zaude.

